


ZENBAKI BEREZIA



ARGIA



COVID-19 IZURRIA

*Mundua
birpentsatzeko
garaia*

Mundu berri bat eraiki beharko dugu

Geldirik gaudela dirudien arren, inoiz baino azkarrago ari gara pausoak ematen. Etenak, aurrez gure artean genituen krisiak bizkortu eta azaleratu egin baititu. Orain krisi horiei erantzuteko pausoak alde batera edo bestera emango ditugun da galdera. Eskubideetan atzera, ala aurrera egingo dugun. Ez dago erdibiderik, etorkizuna ez baita iraganaren berdina izango. Pausoen norabidean ordean eragin dezakegu kolektiboki.

Gizakiak gelditu gara. Baina munduak biraka jarraitu du. Guri baimenik eskatu gabe. Ahaztuta genuela zirudien arren, natura ez baita gurea, gu geu gara naturaren parte. Etorkizuna denontzat izango bada, naturarekin berradiskidetu behar dugu. Bere mugak gure eginez. Bizirauteko etengabe hazi behar duen sistema ekonomikoa, ez baita bateragarria mugatutako planetarekin.

Ekonomia eskualdeka, berrantolatzea tokatzen da orain. Edo hobeto esanda ekonomia bizitzarako antolatzea. Oinarrizko beharrak asetzeko, gure eredu produktiboa eraldatu behar dugu ekologikoki jasagarriak eta sozialki baliagarriak diren produktu eta zerbitzuak sor ditzan. Sortutako aberastasuna zuzen banatzeko, banaketa politikak eta birbanaketa bultzatu behar ditugu. «Bakoitzak bere ahalmenaren arabera, bakoitzari bere beharren arabera» proposamen eraldatzailea oinarri izango duen eredu ekonomikoa behar dugu.

Eta nork ordainduko du krisi honen faktura, galdetuko du baten batek. Ez behintzat 2008ko krisiaren kostua gure gain hartu genuen berdinek. Gehien dutenei gehiago eskatuz egin behar diogu aurre krisiari. Aberatsei, bankuei eta enpresa handiei zergak igoz eta zerga iruzurra zailtzeko kontrolak handituz. Pandemiaren osteko mobilizazio zikloa norabide horretan kokatu behar dugu, aurrez baliagarriak izan diren erantzun antolaturako espazio kolektiboak indartuz.

Koronabirusaren osteko ekonomia berrabiarazteko, sektore publikoa, ekonomia sozial eraldatzailea eta herri ekonomia artako itun zabala ezinbestekoa da, lurraldetutako ekonomia sareak eraikitzen hasteko. Gure eredu sozioekonomikoa, denon bizitzak posible egin ditzan antolatzen hasteko. Bide horretan,

estrategiak adostu eta planifikaziorako mahaiak sortzea proposatzen dugu. Euren artean sare gisa koordinatuko diren mahaiak. Horretarako tresna kooperatiboetan sakondu eta berriak sortu beharko ditugu, burujabetzak modu sistemikoan garatuz, herri ikuspegiz.

Elkarren arteko beharra inoiz baino handiagoa da. Hori aintzat hartuta sortu genuen Olatukoopen, Krisiari Erantzuteko Elkartasun Mahaia. Sareko enpresa komunitarioen egoeraren diagnostikoa egin, informazioa gardentasunez partekatu eta zailtasunei aurre egiteko tresna kolektiboak sortzeko. Hala nola, likidezia arazoei aurre egiteko funts mankomunitua. Interkooperazio eta mutualismo tresna gehiago ere sortu beharko ditugu, agerian geratu dira beharrak, eta tresnak sortu eta indartzeko garaia da.

Herrikideak zaintzeko gai ez den jendarteak ez du etorkizunik. Eta lehendik gure artean zegoen zaintzen krisia (emakumeek eta sektore prekarizatuek pairatzen zutena bereziki) agendaren lehen lerroan kokatu da. Merkatuek, krisiari erantzuteko ezintasunaren aurrean, irtenbidea publikoa, kooperatiboa eta komunitarioa beharko du izan, familien (eta beraz bertan ematen diren botere harremanen) gain soilik erori ez dadin beste behin ere. Eta horretarako praktika berriak, eguneroko bihurtzea dagokigu, zaintza sareak

iraunkortzea, bide horretan ekarpena egin asmoz argitaratu dugu Zaintza Dekalogo.

Mundu berri bat eraikitzea tokatu zaigu, denoi. Ekonomia Sozial Eraldatzaileko enpresa komunitario eta eragileok, prest gaude etorkizunari heltzeko. Etorkizuna guztiontzat izan dadin, ekonomia bizitzarako antolatzen jarraitzeko. Planetaren mugak aintzat hartuz eta proiektuen bizigarritasuna erdigunean kokatuz. Bakoitzaren onena emateko garaia da. Orain arte gehien sufritu dutenei, etorkizun duin bat eskeintzeko. Krisi honetan guztion bizitzan alde lan egin dutenei eskertzeko. Bidea urratzeko. Bizitza bizigarriak denontzat posible egitekoa. Etxean gaude, baina ez geldirik eta pausoak ematen jarraituko dugu. Atzera ez egiteko modu bakarra, aurrera egitea delako.



4 | EDITORIALA

Zaintzen gaituen kazetaritza

AZALEKO ILUSTRAZIOA: XABIER SAGASTA


SHOCKEAN ADI Doktrina ekonomiko eta politikoaz

12 | COVID-19 ETA ESKUBIDE ZIBILAK

"Zapalkuntzaren arkitektura eraikitzen ari dira"

Lander Arbelaiz Mitxelena

5 | ELKARRIZKETA | MIKE DAVIS

Pandemiak, superkapitalismoa eta biharko gatazkak

Sharif Abdel Kouddous

17 | UMOREA | EZ HANKA EZ BURU

Adur Larrea

17 | IRITZIAK

Edu Zelaia / Asier Blas Mendoza


ERANTZUN SOZIALA Herritarrek ez daude lo

22 | EKIMEN SOZIALAK

24 | ZAINZA SAREAK

Zaintzatik, komunitatera bidean

Zigor Oleaga

27 | ELKARRIZKETA | ALBA GARCIA

"Agintarien neurriek ez dute balio paperik gabeentzat" Mikel Garcia Idiakez

28 | HEZKUNTZA

Eskolaren arrakalak agerian

Mikel Garcia Idiakez / Estitxu Eizagirre Kerejeta

31 | HEZKUNTZA

Zortzi uste faltsu haurrei eta konfinamenduari buruz

Heike Freire / José María Paricio Talayero

34 | ELKARRIZKETA | AUTODEFENTSA SAREA

"Tresna berriak behar ditugu kapitalaren erasoengandik defendatzeko" Amaia Lekunberri Ansola

36 | KULTURA

Larrialdirako neurriak badaude, erabaki estrategikorik ez

Gorka Bereziartua Mitxelena

38 | BIZI BARATZEA

Jakoba Errekondo / Garazi Zabaleta

40 | KIROLA

Guztiok heroi? Jon Torner Zabala

41 | IRITZIA Iñaki Murua


BIHARAMUNARI SO COVID-19 ostean paradigma aldaketa?

44 | EKOLOGIA

Pandemien aurka, ekologia

Sonia Shah / The Nation

47 | ZAHARTZAROA

Adinkeria agerian

Jenofa Berhokoirigoin

50 | SANTIAGO LÓPEZ PETIT

"Egungo epidemia baliagarri izango da autoritarismoa areagotzeko"

Giuseppe Savino / Ester Fayos

52 | DOMINIQUE MEDA

"Erabateko hondamendiaren aurreko azken alerta dugu hau"

Jenofa Berhokoirigoin

55 | IRITZIAK

Bea Salaberri / Maria Colera / Aritz Galarraga

57 | KOMUNITATEA

Itsaso Zubiria

58 | BERANDUEGI

Jabetza

Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Lekunberri, Axier Lopez,
Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre,
Gorka Bereziartua, Jenofa Berhokoirigoin,
Jon Torner, Lander Arbelaiz,
Maria Ortega, Mikel Asurmendi,
Mikel Garcia, Onintza Irureta,
Pello Zubiria, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartzandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produktzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loarte
Salmenta
Idoia Arregi, Karlos Olosolo,
Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza
Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametzta Interaktiboa, S.L.

Lege gordailua

SS 837-2012

ISSN

0213-909X

Batzorde parekidea

72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO
Posta elektronikoa

komertzial@argia.eus

harpide@argia.eus

Telefonoa

943371545

Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Ametzagaiña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

iametzta
interaktiboa

ADUR software
productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu,
zabaltu eta argitaratu ditzakezu, gure
egilek aitortu eta baldintza beretan
eginez gero. Are gehiago, gure edukiak
ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.



Lizentzia hau soilik ARGIAren
edukientzat da baliagarria,
baliteke beste testu eta argazki
batzuek lizentzia hau ez izatea.



EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA



ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Zaintzen gaituen kazetaritza

COVID-19ak areagotutako krisiaren erdigunean zaintzaileen kontzientzia soziala askoz nabarmenago ikusi dela ohar-tarazi digu Make Davis historialariak. Pandemiak zaintzaren krisia azalerazi du: osasun langileei arratsaldero txalo zaparrada eskaintzen diegu; haurrei etxean eskolak ematen saiatzen dira guraso eta irakasleak; adinekoak laguntzeko sareak sortu dituzte herri-tarrek nonahi; baserritarrek euren jakiekin elikatu gaituzte momentu zail hauetan, hornikuntza sareetan dabil-tzan guztiei esker; egoitzetan, etxeetan eta saltokietan dabil-tzan langileekin orain akordatu gara... Ikasi dugu arlo guztie-tan dela zaintzaren ongaria beharrezko. Kazetaritzan ere bai, eta esku artera iritsi zaizun ARGIA-ren paperezko zenbaki hau da horren erakusgarri.

Martxoaren 18an iragarri genuen ez genuela aldizkaria paperean argitaratuko, inprimategiko langileen eta postarien osasuna babestearren; gure ideiekin kontsekuente izan nahi genuen, inoren bizitza arriskuan jarri gabe. Baina hainbat astetako hutsunearen ondoren, berriz gatoz zure etxeko postontzira. Antzako lagunaren eta produkzio-kateko langileen segurtasuna –gure esku dagoen neurrian behinik behin– bermatuta dagoela ziur gaudelako hartu dugu erabakia. Eta babesten gaituen komunitateari (ARGIAko kideak, iragarleak...) ahalegin hori zor diogulako ere bai.

OlatuKoopek plazaratutako dekalogoarekin bat gatoz: elkartasunetik eta konfiantzatik abiatuta, norberaren eritimo eta beharrak errespetatzea ezinbestekoa da, pertsonak bere osotasunean ulertuko baditugu. Hortaz, zaintza lehen lerroan jarri dugu, eta horri begirik kendu gabe hartuko ditugu erabakiak aurrerantzean, direnak direla ere.

Ataka estu bakoitzetik indarberrituta atera izan da ARGIA. Hala ekin zion frankismoan, euskaltzaileen borrokarako tresna bihurtuta; baita 80ko hamarkadan ere, langileak komunikazio proiektuaren jabe eginik. Oraingoan gauza bera ari da gertatzen zuen laguntzaz: paperezko astekaria kaleratu ez dugun denbora tarte

*Ikasi dugu arlo guztietan dela
zaintzaren ongaria
beharrezko.*

*Kazetaritzan ere bai, eta
esku artera iritsi zaizun
ARGIA-ren paperezko
zenbaki hau da horren
erakusgarri*

honetan, hedabide digital bezala urrats garrantzitsuak eman ditugu etxetik lan eginez –gure buruen eta ingurukoen eguneroko arreta bazterrean utzi gabe–.

Webgunea etengabe ari gara elikatzen goizetik gauera, lehen aldiz astean zazpi egunez jarraian. Koronabirusak ekarritako guztiak aztertu ditugu: shockak sorturiko gorabeherak, datuak, baita jendeak egoera horri emandako erantzun sozial ere. Nola izango da COVID-19 osteko gure mundua? Hori da askok egin ohi duen galdera. Biharamun horri erreparatzen saiatu gara analisi sakonak gurera ekarrita. Koronabirusaren azken ordukoaz buletin espezi-fikoak sortu ditugu sare sozialetan zabaltzeko eta, irri egitea denez txertorik osasuntsuena, igandero *Oasiko Kronikak* irratsaioa jarri dugu martxan, eztenkada umoretsuz beteta.

Koronabirusaz kaleratu berri dugun zenbaki berezi eta monografiko honetan, lan horren zati bat besterik ez duzu aurkituko, tamalez aukeraketa bat egin behar izan baitugu. Eduki mamitsu eta interesgarrienak eskaintzen saiatu gara eta diseinuari ere indar berezia jarri diogu, garai historiko hauetan ARGIAren itzulerak aparteko zenbaki bat egiteko

esfortzua merezi zuela uste baikenuen. Irakurleak estimatuko duelakoan gaude.

Baina aurrera begira zer egingo dugu? Ekonomiak kolpe gogorra jasango duela diote hedabide handiek, BPGren jaitziera iragartzen dute gorritz, krisia lauhazka datorrela guregana... Krisia? Bankuek herritarroi milaka milioi euro zor dizkigute 2008ko hondoratzetik; fortuna handiek eta multinazionalak paradisu fiskaletan ezkutatzen dute denon dirua; eta auskalo zenbat den inbertsio funts-putreek jendarteari odolustutakoa. Ivan Miró ekonomia eraldatzailean adituak esan duen bezala, hori guztia gastatzean akaso has gaitezke krisiaz hitz egiten.

Kazetaritza kooperatiboa egiten dugun hedabideok aspaldi ikasi genuen krisiarekin bizitzen, lehiatik at, egokitzeko eta auzolanerako gaitasunak bartzten gaitu. ARGIAk, gainera, bidelagun ditu Ametzagaña Taldeko beste enpresa komunitarioak (Antza, Adur eta Iametzta). Elkarren arteko laguntza inoiz baino beharrezkoagoa den uneotan, arduraz eta konpromisoz luzatuko diegu eskua zailtasunetan direnei, taldeko lau enpresen etorkizuna bermatzeko helburuz.

Ohar hau iritsi bazaizu, etxe honen habeak mantentzen dituen ARGIAko kidea zara edo harremana izan duzu gurekin inoiz. Baina oraingoan ez gatoz ezer eskatzera, eskaintzera baizik.

Agian aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak erasanda dagoen milaka horietako bat zara, edo prekarioan ari dena; igual autonomo kuota ordaindu ezinik zabil-tza, edo zure saltoki txikiko alokairurako adina ez daukazu. Horren aurrean, guk garbi dugu: inork ez luke informazio independente eta kritikorik gabe geratu behar, ez gutxiago herritarrok sortu ez dugun krisi honen erruz. Ez dadila inor ARGIArik gabe geratu. Gure harpidetza sistema berritzaileak norberak ahal duena eman eta egoki iruditzen zaiona jasotzeko aukera ematen du. Beraz, behar baduzu, hartu telefonoa edo teklatura eta eskatu laguntza. Ondo informatuta egotea hain garrantzitsua den sasoi trumoi-tsu hauetan, alboan izango gaituzu, zaintzeko gaude. ●

Pandemiak, superkapitalismoa eta biharko gatazkak

Mike Davis
aditu eta ekintzailea



Nola gertatu da hau? Zein dira izurri globalari bidea erraztu dioten oinarritzko egitura politiko, ekonomiko eta ingurumenekoak? Nondik sortzen dira pandemiak? Biologiaren aldetik jasangarria da gure bizimodu kapitalista? Galdera horietako batzuk argitzeko, Mike Davis idazle, historialari eta ekintzaile politiko estatubatuarrengana jo dugu. Davisek 20 liburu baino gehiago idatzi ditu eta Kaliforniako Unibertsitateko irakasle emeritu ospetsua da.

Sharif Abdel Kouddous, elkarrizketaren egilea *Mada Masr* hedabide egiptoarreko kazetariaren galderei erantzun die idatziz Mike Davisek, eta ondoren *Democracy Now* hedabide iparramerikar aurrerazaleak zabaldu.

 **SHARIF ABDEL KOUDDOUS**
ITZUTZAILEA | PELLO ZUBIRIA KAMINO

Nekazaritza kapitalistaren eta urbanizazioaren konbinazioak nola eraman du pandemiak sortzera? Eta zergatik sortzen dira eragin andui horietako gehienak Asiako hego-ekialdean?

Birus batzuek mintegi naturalak dituzte. Kolera-agerraldi ia guztiak, esaterako, Bengalako Golkoko ur bero eta gai fekaletz aberatsetan sortzen dira. Beste birus batzuek ostalari iraunkorrak dituzte zenbait animalia-familiatan: izurri bu-bonikoak karraskarietan, gripeak hegazti basatietan, sukar horiak tximinoetan eta koronabirusak saguzarretan. Gripeak, oro har, Txina hegoaldean sortzen dira, zibilizazioak arrakastarik handiena eduki duen gunetako batean alegia.

Milaka urtez Txina hegoaldeko laborantza sistema, gerora Asia-ko hego-ekialdean hedatuko zena, izan da planetako emankorrena, urtean bi uza ekoizten dituzte bertan arroz soroetan aldi berean

haziz ahate, oilo eta txerriak: proteina mordera eta karbohidrato kopuru bikoitza. Baina urez es-talita egoten diren arroz soroek hegazti migratzaileak ere erakar-tzen dituzte eta sarritan ahate eta oilaskoei gripe-andui berriak transmititzen dizkiete, eta hauek txerriak kutsatzen, alegia, giza-kion antzeko immunitate sistema daukaten animaliak. Txerrietatik gizakira jauzia erraza da, eta ba-tzuetan katastrofiko.

Azalduko diguzu zergatik RNA birusek, koronabirusak esaterako, eragiten dituzten agerraldi hilgarriak?

Mutazio tasa muturreraino ugaltzen dutelako, DNAn oinarritutako birus edo zelulak baino milioi bat aldiz azkarrago. Bere genomaren hainbeste bertsio desberdin eta zehaztugabe ugaltzen ari den bi-rusak abantaila handia dauka giza sistema immuneari aurre egiteko, zeren eta derrigor sortuko baititu



BETTMANN ARCHIVE

1919 SIDERURGIA GREBAN AEB-ETAN. Mike Davisek ikusten du parekotasunik joan den mende hasieraren eta egungoaren artean.

birus batzuk txertaketaren eraginari edo iraganeko infekzioetan sortutako anti-gorputzei neurri batean bederen erresistenteak direnak. Horregatik jarraitzen du A gripeak urtero aldatzen eta gizakiak gaixotzen.

Zergatik ez dugu ezagutzen gripentzako txerto unibertsal bat? Posible al da?

Ia ikertzaile guztiak ados daude, badaudela tresnak eragin zabaleko txerto bat sortzeko, eta horrek gizakiari urtetarako immunitate orokorra emango lioke gripe andui guztiekiko. Ikerketa eskuragarri dago, baina Big Pharmak ez du txertoa garatuko edo ekoiztuko, errentagarria ez delako. (Norbaitek diseinatuko balu bizi osorako iraungo lukeen auto berri bat, General Motors hasiko ote litzateke hori ekoizten?). Txertoen diseinuak abiada hartu du eta, COVID-19a menderatzeko ikerketa lanak bero-bero direla, baliteke gripearen aurkako txerto unibertsalak lortzea. Ziur dakigun bakarra da hori ez duela Big Pharmak egingo.

Badirudi koronabirusa ez dela hain arriskutsua adin-talde gazteagoentzat. Planetako hegialdeko herrialdeek, oro har,

populazio gazteak dauzkate eta, beraz, horiek ote dute gaurko pandemiaren eraginik txikiena?

Ez, ez derrigor. Gogoan izan orain arte birusa ibili dela 50 urtetik beherako jendeak ondo elikatuta dauden eta mediku eta ospitaleen zerbitzu onak dauzkaten herrialdeetan. Zer gertatuko da, ordea, COVID-19a zabaltzen denean sendagaiak eskuratzeko oso aukera gutxi dauzkaten eta elikatze maila oso txar, artatu gabeko osasun arazoak eta hondatutako immunitate sistema nozitzen dituzten populazioen artean? Adinaren abantailak askoz gutxiago balioko die Afrikako eta Asia hegoaldeko txabolategietako gazte txiroei.

Aldi berean, arriskua badago txabolategietan eta auzo txiroetan infekzio masibo batek koronabirusaren kutsatzeko moduan eragin eta gaixotasunaren izaera eraldatzeko. Gaur egungo COVID-19a etorritako, positibo eman dutenen ehuneko txiki batek nozitu ditu beherako eta goragaleak, eta ikerlan batek dioenez "ez da gutxietsi behar SARS-CoV-2 [COVID-19 izurria eragiten duen birusaren izen zientifikoa] komuneko uren, zaborren, ur kutsatuen, aire girotuko sistemen eta aerosolen bidez kutsatzeko aukera".

Pandemia orain Afrikako eta Asiako hegialdeko auzo marjinaletara iritsi da

eta horietan kutsadura fekala nonahi dago: uretan, norik bere etxean ekoiztutako barazkietan eta haizeak eramandako hautsetan. (Bai, kaka-ekaitzak bene-tan badira.)

Koronabirus pandemia ezustean iritsi al da? Aurreikusita zegoen? Eta hala balitz, zergatik dirudi munduak hain gutxi prestatua?

Ez da batere ezustekoa izan. Pandemia bat gainean zela epidemiologoek buhurtutako zegoen 2003an SARSen eraso gertatu zenetik. 2005ean hegazti gripea iritsi eta gero, AEBetako Gobernuak plazaratu zuen *Gripe pandemia baterako estrategia nazionala* plan anbiziotsua, hasieratik aitortzen zuena AEBetako osasun publiko sistema ez zegoela prestatua eskala handiko izurri baterako. Txerri-gripearen sustoaren ondoren, 2009an, estrategia eguneratu egin zuten, eta 2017an, Trump karguaz jabetu baino aste bate lehenago, Obamaren funtzionarioek eta Trumpen administrazioak berriek simulazio bat egin zuten elkarrekin. Sistemak, noski, ez zuten lortu ez izurriak saihestea ezta izurriak eragindako kalteen kurbak garaiz menderatzea ere. Horrez gain, porrot egin da azken hamarkadan diseinu bio-



TXINAKO ARROZ SORO TXIT EMANKOR BATEAN. Birus asko Asiako hegoaldeko arroz soroetan eman ohi direla dio Davisek, hegazti basatien, oiloen eta txerrien arteko birusa nahasketarekin.

logikoan lortutako aurrerapen iraultzaileak aprobetxatu eta sortu diren antibieral eta txerto berrien biltegiak txukun antolatzerakoan.

Globalizazio kapitalista biologia aldetik iraunkorra al da?

Soilik gizateriaren galbaheketa iraunkor bat onartuz [jatorrizkoan *triage*, euskaldun espainolok esango genuke "etengabe gizakien artean entresaka egitea onartuz", alegia, jende ahulenak etengabe ezabatuz] eta giza arrazaren zati bat desgertzerakondatuz.

Ikusten ari gara mundu mailako metaketa-sistema bat animalien eta gizakien gaixotasunen arteko muga tradizionalak nonahi apurtzen ari dena, botiken monopolioen boterea handitzen duena, hondakin kantzerigenoak ugaltzen, oligarkia lagundu eta osasun publikoarekin konprometitutako gobernu aurrerakoiak eraso, komunitate tradizionalak suntsitu (bai industriak eta industria-aurrekoak) eta ozeanoak estolda bihurtu dituen. Merkatuek ezarritako soluzioek sortzen dituzte [XIX. mendean] Dickensek azaldu zituenak bezalako baldintza sozialak, betikotuz mundu osoan zehar edateko ura eta saneamendurako eskubidea irabazitako

diruaren arabera mugatze lotsagarria.

Egungo krisiak behartuta, kapitalak -handiak bezala txikiak-, aurre egin behar dio bai munduko bere ekoizpen kateen kolapso arriskuari, eta baita atzerriko eskulan merkeagoak etengabe lortzeko gaitasunari ere. Aldi berean,

"Gaurko
superkapitalismoa
erabateko traba bihurtu
da gure espezieak
bizirauteko behar dituen
indar produktiboen
garapenerako"

erakusten dizkio merkatu berriak txertoetan, esterilizazio-sistematan, zelatatze-teknologietan, elikagaiak etxeraino eramate eta abarretan. Uztartuz arrisku eta aukera, adabaki partzial bat asmatuko dute: eten gabeko gaixotasun erasoaren arriskuak murrizteko produktu

eta prozedura berriak eta, aldi berean, kapitalismo zelatari [*surveillance capitalism*, jatorrizkoan] baten garapena bul-tzatuz. Baina babes horiek -baldin eta merkatu eta erregimen nazionalista autoritarioen esku uzten badira- dudarik gabe mugatuko dira herrialde aberats eta klase aberatsetara. Harresiak indartuko dituzte, ez dituzte eraitsiko, eta bi humanitatearen arteko zatiketa sakonduko dute: bata, klima aldaketa eta pandemia berriak arintzeko baliabideekin; eta bestea, horiek gabe.

Pandemia honek zenbateraino irekitzen du aukera bat sistema ekonomikoak eta neoliberalismoaren politikak berrikusteko? Alegia, gerta ote daiteke *shock doktrina* moduko bat baina alderantziz?

Gerretan gertatzen den moduan, gober-nuek eta agintean dauden eliteek neurri kolektibistetara jo dute eta orain arte erradikaltzat edo 'antisistematzat' jotzen zituzten politikak ezarri. Azken bi gerra mundialetan, aurkako oposizioa zant-patua izan baldin bazen, aldi berean langileek botere berri bat aurkitu zuten gerra produkzioaren antolakuntzan parte hartzearen truke. Gerrak amaitu zirenean, jakina, korporazioak eta trust handiak



HAURRAK NAIROBIKO KIBERA TXABOLATEGIAN 'ESTOLDA' ONDOAN. "Jakina denez, munduan osasun publiko mailako arazoetan larriena da ur garbi eta komun falta, hilkortasunik handiena eragiten duena, bereziki haurren artean".

saiatu ziren kontzesio horiek desegin eta gerra industriak berriz pribatizatzen; sindikatuek eta ezkerak, berriz, borroka egin zuten eusteko aldi baterako irabazitakoari. Horregatik izan zen 1919.a historiako greba olderik handieneko urtea.

Oso antzeko egoera baten aurrean gaude gaur, klase guztien osasuna mehatxatzen duten pandemien aurrean. Soberan dauden politika errepresiboekin batera, gobernuak beren izuan ari dira baimentzen neurri progresiboak. Dena dela, fenomenorik garrrantzitsuena izan da "protagonismo historikoa" [*historical agency*, jatorrizkoan] talismana daukan langile klasearen bloke berri baten agertzea. Ari naiz osasun arloko langileen koalizio zabal antolatua (AEBetan, adibidez, erizainen sindikatua dute aitzindari): izurritearen ondorioz erradikalizatzen ari da eta berekin kontatu dezakegu oinarritzko eskubide sozioekonomikoen aldeko biharko borroketan are rol garrrantzitsuagoa bere gain hartzeko. Une honetan, krisiaren kontzientzia soziala nabari den gune orotan daude. Beraz, herrialde guztietan, indar aurrerazaleak behartuta daude berehalako lehen-

tasuna ematera lehen lerroan ari diren zaintzaileekiko elkartasunari.

Zure ustez, zein da agertzen ari diren gaixotasun berrien eta munduko ekonomia kapitalistaren arteko harremana, Ebola bezalako kasuetatik hasi eta eragin handiko andui hilgarrietara arte?

Hemen zenbait osagai zerrendatuko ditut:

Arrantza eta nekazaritza. Funtsezko gakoa honako hau da: eskala txikiko nekazaritza –eta arrantzarekin berdintsu–, tokiko elikagaien segurtasunaren oinarria dena, bere azpian hartu edo ordezkatu egin du esportaziorako laborantza kapitalistak, eta hau dago lehengaien merkatu espekulatzailen mende eta ongargi eta pestiziden inportazioei lotuta. Azken horiek, jakina denez, petroliotik eratorriak dira eta, gehiegizko erabileraren ondorioz, minbizia eragiten duten hondakin arriskutsuak are gehiago ugartzerara doaz (pestizidak) eta arrantza guneak hiltzen dituzte (eutrofizazioz ibai, laku eta itsaso zabaleko urak hiltzen ditu).

FAOren arabera, munduko elikagaien ekoizpena (labore edo zerealena batez

ere) gutxienez %50 handitu beharko da hurrengo belaunaldian, populazioaren hazkundera elikatzekotan. Nekazaritza kapitalistak, nik uste, ezingo du helburu hori bete, ezta bioingenieritzako laborantzan eta tantakako ureztaketan egindako aurrerapen iraultzaileekin ere, zeren eta mundu mailako merkatuak gaizki antolatzen baititu nekazaritzako ekoizpenak (lehentasuna behi okelari eta ez zerealei) eta ez dielako oinarritzko diru-sarrerarik bermatzen nekazaritzako ekoizle txikiei eta langileei. Aldi berean, 1960ko hamarkadan abiatu zen Iraultza Berdearen oinarria (soroak ureztatzeko milioika putzu zulatzea) gainbehera dator, edonon akuiferoak agortzen edo pozoitzen dira eta.

Auzo marjinalak. Hondoan jota, ekoizle txikiak hirietara doaz bizimodu bila eta hauetako asko oraindik kolonialismo garaian bezala jarraitzen dute antolatuta, saneamendua, edateko ura eta mediku zerbitzuak europarren auzoetan bakarrik zeuzkatenean bezala. Nasser, Nehru eta Sukarnoren aroan [1950-1960 hamarkadetan] gobernu nazionalista aurrerakoiek osasun publikoan hobekuntza ikusgarriak lortu zituzten

arren, geroztik auzo marjinaletako osasun baldintzak, bereziki hiri periferietakoak, arras hondatu dira eta aldi berean populazio kopurua ikaragarri hazi.

Enplegurik eza. Auzo marjinaletako biztanle gehienak ekonomia informalean lan egitetik bizi dira. Neurri handi batean, orain jendeok alferrikakoak dira mundu mailako erreprodukzio kapitalistarentzako. "Soberazko jende" horiek ezin dira iritsi gehienbat enplegu formalarik lotuta doazen zerbitzu medikuetara, eta ez daukate aski diru-sarrera merkatu pribatuan arreta medikua erosteko. Kapitalismo korporatiboak, planeta mailan, jada ez du enplegurik sortzen, hori da dena.

Murrizketak osasunean. 1980ko eta 1990eko hamarkadetan, herrialde aberatsek eta haietako bankuek, berregituratze eta doikuntza-programak inposatuz, nazio pobreak behartu zituzten nork bere autonomia ekonomikoari uko egitera, horrekin batera ezarritik zerbitzu publikoen murrizketa eta, sarritan, privatizazioa. Geroztik, osasun publikoko aurrekontuak ez dira inoiz berreskuratu, eta ez daukate dirurik osasuneko langileei ordaintzeko. Horren ondorioz, Mendebaldeak erauzi eta ostu ditu Kariben, Afrikan eta Asiako hego-ekialdean ikasitako mediku eta erizainak.

Hur eta komun falta. G20-koak ez diren herrialde gehienetan udal eta eskualdeetako aurrekontuekin finantzatzeko dira osasun zerbitzuak. Zerga-sistema oso erregresiboei esker konpainia handiek eta tokiko klase ertainek aukera eduki dute ihes egiteko beren betebeharrak fiskalei, ondorioztatuz ekarritik murrizketa oso handiak osasun mailako hornikuntzan eta are handiagoa saneamendu azpiegiturretan. Jakinaenez, munduan osasun publiko mailako arazoetan larriena da ur garbi eta komun falta, hil-

kortasunik handiena eragiten duena, bereziki haurren artean.

Adibide lotsagarriena Indian daukagu, non Chennai eta Bangalore bezalako hiri teknologiko ospetsuetan ere, auzo txiroetan emakumeak kaka eta pixa jendaurrean egitera behartuta dauden. Edo AEBetan bertan Flint edo Herdoilaren Eskualdeko [Rust Belt] beste hiri batzuetan: jendeak berunez pozoitu dira iturriko ur zerbitzuaren hodiak zaharkituta daudelako. Edo Nestle eta beste multi-

"Pandemia Afrikako
eta Asiako auzo
marjinaletara iritsi da
eta horietan kutsadura
fekala nonahi dago:
uretan, etxeko
barazkietan eta haizeak
eramandako hautsetan.
Bai, kaka-ekaitzak
benetan badira"

naziolak egin duten kanpainan, gobernu neoliberalak bultzatuz beren ur sistemak privatizatzerara. (Txabolategietan pagatuzko komun publikoak ezartzea da asko hazten ari den beste negozio etekintsu bat).

Big Pharma eta txertoak. Monopolioen monopolio den Big Pharmak pertsonifikatzen du kapitalismoaren eta munduko osasunaren artean dagoen gatazka. Big Pharmak alde batera utzi du premiaz behar ditugun antibiotiko

eta antibiral hil ala bizikoen garapena. Errentagarriagoa zaie inpotentzia maskulinoarentzako aringarriak sortzea antibiotikoen belaunaldi berri bat garatzea baino mundu osoko ospitaleetan zientotika milaka gaixo hiltzen dituen bakterio-andui erresistente berriei aurre egiteko. I+G-n baino diru gehiago gastatzen du publizitatean. Big Pharmak merkaturatzen dituen farmazia-produktuak eta abangoardiako txertoak gehienetan lehenbizi bioteknologia konpainia txiki eta dinamikoek garatu dituzte eta hauek, beren aldetik, unibertsitate publikoetako ikerketa kapitalizatzen dute. Big Pharma, funtsean, kapitalismo errentazalea da [rentier capitalism], giltzarrapo bat itotzen duena diseinu biologikoan eta txertoen ekoizpenean azaleratzen ari den iraultza.

Kutsadura. Azkenik, bistan denez, kapitalismoak zuzenean hiltzen gaitu, fabriketan ekoiztutako kartzinogeno eta pozoioak giza bizitegi-inguruneetara eta espazio publikoetara esportatuz.

Kontuan hartzeko gauza asko esan dituzu. Laburbildu dezakezu zure argudioa?

Bizi dugun zibilizazio krisia, nire ustez, honetan mamitzen da: kapitalismoa ez da gai gizateriaren gehiengoarentzat diru sarrerak sortu, enplegu eta rol sozial esanguratsuak eman, erregai fosilen isurketak amaitu eta osasun publikoan aplikatzeko biologia egiten ari den aurre-rapen iraultzaileak. Krisi konbergenteak dira, batzuek besteetatik bereizi ezinak, eta multzoaren konplexutasunean ikusi behar dira, ez banakako arazo gisa. Baina hizkera klasikoago batean esateko, gaurko superkapitalismoa erabateko traba bihurtu da gure espezieak bizirauteko behar dituen indar produktiboen garpenerako. ●





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com



**SHOCKEAN
ADI**

Doktrina ekonomiko
eta politikoaz



COVID-19 osasun-arazo larria da, baina ez da hori bakarrik, ezta bere ezaugarririk garrantzitsuen ere. Alde ekonomiko, ekologiko eta sozial batzuekin lotutako ondorioa ere bada. Edo, bestela esanda, arazo sistemiko eta politikoa. Horregatik erabiltzen ari da gainean dugun krisi ekonomikoa "justifikatzeko". Koronabirusa kontrolatu egingo da, txertoa asmatuko da, baina krisiaren kudeaketan gizarte gisa adierazi dugun hauskortasuna ez da desagertuko, gaixotasun maltzurrago baten sintoma baita: beldurra. Termometrozt jantzita kopetan dugun autoritarismoaren pistolarekiko abegikor bihurtzen gaituena. Irudian: Irakeko aireportua.

 ESAM AL SUDAN / ALAMY

 AXIER LOPEZ

“Larrialdia ez da inoiz amaitzen, normalizatu egiten da”

COVID-19 ETA
ESKUBIDE ZIBILAK

Mundu mailako pandemia honi aurre egiteko testuinguruan, eskubide zibilak konprometitzen dituzten erabakiak hartzen ari dira agintariak. Zer ari da gertatzen eta zein dira ikusi ez ditugun ondorioak? Edward Snowdenek eman berri dituen pistei jarraituko diegu: "Zapalkuntzaren arkitektura eraikitzen ari dira", dio.

 LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Bizitzak salbatzeko behar dugunean, non dago teknologia hiper aurreratu hori? Urteetan herritarrak zelatatze teknologian murgilduta ibili ostean, ospitaleetan arnasmailuak falta ziren mundua eraiki dutela ohartu gara. Sistemak huts egin du”.

Edward Snowdenen hitzak dira. Munstroaren tripak barnetik ezagutu eta bertan ikusitakoa munduari kontatzeagatik, batzuentzat heroia da, beste batzuentzat etsai amorratua. AEBetako Inteligentzia Agentzia Zentraleko (CIA ingelesezko siglekin) eta Segurtasun Agentzia Nazionaleko (NSA) kide zela salatu zuen bere herrialdea gizarteak masiboki zelatatzen ari zela, telekomunikazio konpainien eta Europako gobernuen aliantzarekin. AEBetako Gobernuak bera atxilotzeko nazioarteko agindua emana du eta lehen une hartan ihes egitea lortu ostean, gaur egun Errusian bizi da. Eskubide zibiletan eta pribatutasun gaitan aditua da, eta mundu osoan hitzaldiak ematen ditu, beti ere, webcam bidez.


Munduko herrialde askotan alarma egoerak dekretatu eta militarrek kalera ateratu dituzte gobernuak. Konfinamendua agindu zaie munduko milioika eta milioika laguni, bost kontinenteetan. Bateko eta besteko gobernuak mugikorretarako aplikazioak diseinatu ari dira, gaitzaren eta herritarren kontrol zehatza egiten laguntzeko. Munduko telekomunikazio enpresa handienak ere sartu dira horretan, Google eta Apple arteko hitzarmenak erakusten duenez. Oraingoz, herrialde gehienetan herritarren esku dago norberaren osasunari buruzko aplikazio horiek instalatu ala ez –gainera poblazioaren parte batek ez du *smartphonerik*–; baina kalean ibiltzeko eskubidea mugikorreko aplikazio jakin batek ematen duen mundua ez da hain urruna jada. Txinan hasiak dira hala jotzen COVID-19 pandemiaren testuinguruan.

Eskubide zibilak berrogeialdian: nolakoa izango ote da zalantzarik gabe historiara pasako den gertaera honen amaieran geratuko zaigun panorama?

Gai hauei buruz mintzatu berri da Edward Snowden *Vice* hedabideko Shane Smith kazetariarekin egindako elkarriketan. Bere hitzetan gobernuak hartzen ari diren neurriekin oso tentuz ibili beharra dago. Izan ere, herritarrak belurtuta daude, ados, baina horrek ez du esan nahi egunotan probatzen ari diren politikak ez dituztenik gerora aplikatuko. “Zapalkuntzaren arkitektura eraikitzen ari dira”.

NSAko sekretu haizatzaileak batetik salatu du gobernuen interesekoa zela pandemiak sortzea eta bera bere garaian horri buruzko informeak irakurritakoa dela. Horrez gain, aipatzen du txerto eraginkorra heldu bitartean, zientzialariak aurreikusten ari direla COVID-19 izurriaren olatu ugari etorriko direla. Orain bizi duguna lehen olatua, udazkenean bigarrena etor daitekeela, eta ondoren hirugarrena, laugarrena, bosgarrena... bata bestearen atzetik.

“Argi izan behar dugu biharra gaur hartzen ditugun erabakien ondorioa izango dela”. CIAko langile ohiak argi





dioenez, kezkatu egin behar gintuzke mugikorren bidez populazio osoak monitorizatzeko saiakerak. Espazio faltatik esaldi batean aipatuko dugu, baina elkarrizketan sakon azaltzen du telekomunikazio enpresek nola lortzen duten herritar bakoitzaren geoposizioa antenen eta wifi sareen bidez.

"Badakigu gure telefonoak etengabe jarraitzen dituztela piztuta edukitze hutsagatik. Baina nork dauzka datu horiek? Telefono konpainiek bai. Facebookek, Googlek eta Applek ere ziurrenik bai. Baita sekula entzun ez dituzun konpainia piloak ere". Horri gehitu behar zaie, gobernuek ere badituztela nahi dutenean horiek eskuratzeko eskumenak, hala nola, *ad hoc* Kataluniako Tsunami Demokratikoaren aurka egiteko Pedro Sanchezen gobernuak onartu zuen Dekretu Digital polemikoaren bidez.

Mendebaldeko herrialdeetan ardura-dunek diote herritarren pribatutasuna bermatzeko mugikorren informazioa ez dutela maila indibidualean gordetzen, despersonaltatu edo *anonimizatu* egi-

ten dutela, telefono hauen mugimenduen fluxu agregatuak aztertzen dituztela. Snowdenen hitzetan, ordea, batetik, ehunka milaka infektaturen fluxua kontrolatzeko orduan hori ez da erabilgarria, eta bigarrenik, inork ez daki informazio hori nora doan.

"Izurritearen ondorioz hartzen ari diren erabakiekin mundua nora doan pentsatzen jartzen garenean, lehenik eta behin pentsatu behar dugu non egon garen". Bere hitzetan, salbuespen eta alarma egoerek ematen dituzten botereek gehiegikerien historia elikatzen dute. "Larrialdia ez da inoiz amaitzen eta normalizatu egiten da". 2001eko irailaren 11ko atentatuaren ostean George W. Bushen hartutako erabakiak oraindik indarrean daude, hala nola zelata masiboa legeztatzeak inolako bermerik ez zuen *Patriot Act* edo *Patriot Legea*. "Behin eta berriro gertatu da, behin eta berriro, behin eta berriro".

"Egitan uste al duzu lehen olatua pentsatzean, bigarren olatua... koronabirusaren 16. olatuan gogoan izango ditugula

lehenengoan inposatu zizkiguten neurriak? Egitan uste dugu mugikorre-tatik jasotzen ari diren datuak ez dituztela gordeko? Egunotan lortzen ari diren gaitasunak ez dituztela mantenduko? Ez dutela esango kriminalitatearen aurka erabiliko dituztela?". Bere ustez ez da erokeria pentsatzea analisi politikoari aplikatuko diotela, hala nola erroldak edo inkesta politikoak egiteko.

"Konfiantza izan dezakezu gaur egun arazoa kudeatzen ari denarekiko; edo esan dezakezu *ez zait Mark Zuckerberg axola!*. Baina datu horiek beste norbaiten eskuetara helduko dira noizbait. Zure herrialdean bertan ere, beste presidenteren batek kontrolatuko du azkenean datu sorta guzti hori, eta norbaitek abusatu egingo du, ez bada jada gertatzen ari".

KOOPERAZIOA DA BIDEA, EZ LEHIA

"Osasun krisia zena, berehala bilakatu da ekonomia krisi, eta oso azkar finantza krisia lehertuko da". Analista politiko gaztearen hitzetan, dagoeneko ikusten da gobernuek eman beharko dituzten diru-laguntza publikoen parterik handiena ez dutela ekimen publikoetara bideratu nahi, hala nola ospitaleetara. "Problema sistemikoak sortu zituzten enpresa horiei lagundu nahi diete, gainbehera azkar honek gogor kolpatu dituenak".

Bere hitzetan urte sabbatiko kolektiboa inposatu digute mundu osoan. "Gure bizitzako momentu bakan horietako batean gaude, non sistema hain dago estresatuta eta gainditua, lidergoa galduta, aldaketak egiteko aukera daukaguna, ez erreformak, aldaketa iraultzaileak baizik. Orain gizartearen funtzionamendua alda dezakegu. Elkarrekin pentsatzen badugu nola babestu geure buruak, gure familiak, gure komunitateak, gure ospitaleak; pentsatzen badugu egoera honi aurre nola egin nazioarte mailan elkarrekin, lehiatu beharrean elkarlana sustatuz. Hala eginez, gaitzaren sintomak nola gainditu baino, gainpopulatutako eta ezberdintasunez jositako munduaz pentsatzen hasteko aukera izango dugu, horixe baita birusa mugen gainetik batetik bestera mugiarazten duen zorigaitza".

Bere hitzetan, alda dezakegu geure bizitza kontrolatzen duen sistemaren egitura. "Alda dezagun nola monitorizatzen gaituzten, nola jarraitzen gaituzten. Zeren eta, ez baditugu sistema hauek aldatzen, ez dituzte soilik gure osasunaren jarraipena egiteko erabiliko". ●

EUSKAL HERRIA

5.ak munduan hildakoen rankinean

Euskal Herria, garen 3,2 milioi herritar urri izanda, munduko hamalagarren herrialdea gara koronabirusaren biktimatan. Europakoen artean, zortzi edo bederatzigarrenak. Milaka edo milioika herritarreko zenbat heriotza dauden proportzioak aztertzen hasiko bagina bosgarrena litzateke.

Hemen edizio hau itxi zeneko apirilaren 17ko datuak, Worldometers eta Johns Hopkins Institutetik jasoak:

Hilak 141.922. Herrialdeka: AEB 34.233, Italia 22.170, Espainia 19.130, Frantzia 17.920, Erresuma Batua 13.729, Iran 4.869, Belgika 4.857, Alemania 3.856, Txina 4.632, Holanda 3.315, Brasil 1.764, Turkia 1.643, Suitza 1.333, [Euskal Herria 1.298, ez du biltzen, ez da estatua], Suedia 1.281, Kanada 1.048, Portugal 629, Indonesia 496, Irlanda 449, Mexiko 449, India 423, Austria 410...

Heriotzak miloi bat biztanleko: San Marino 1.120, Andorra 427, Belgika 419, Espainia 409, [Euskal Herria 405, Worldometersek ez du biltzen, ez da estatua], Italia 367, Frantzia 275, Sint Marteen (San Martin uhartearen zati holandarra) 210, Erresuma Batua 202, Holanda 193, Suitza 148, Suedia 132, Luxemburgo 110, AEB 103, Irlanda 98...

ANALISIA



DANI BLANCO

Zergatik erabili behar dugu denok maskara?

 MOON OF ALABAMA BLOGA

Lancet aldizkariak argitaratutako artikulu batek argudiatzen du denok jantzi beharko genukeela maskara:

“Ebidentzia gutxi dauzkagu aurpegiko maskarek komunitateren arnas infekzioen aurka babes eraginkorra ematen ote duten ala ez, hala aitortzen dute Erresuma Batua eta Alemaniak beren gomendioetan.

Alabaina, aurpegiko maskarak asko erabiltzen dituzte medikuntzako langileek, arnas infekzioak dituzten pazienteak artatzen dituztenean [hauek igorritako arnas edo listu] tanten prebentzio-neurri gisa. Arrazoizkoa dirudi iradokitzea pertsona zaurgarriek jende multzoak saihestu behar dituztela eta arrisku handiko eremuetan daudenean maskara kirurgikoak erabili behar dituztela. Ebidentziak iradokitzen du pertsona kutsatu batek COVID-19 transmitu dezakeela sintomak eduki aurretik ere eta horregatik komunitate transmisioa murriztu ahal izango dela baldin eta guztiek –infektatuak izan arren sintomarik gabekoak eta kutsakorrek diren pertsonen barne, maskarak erabiltzen badituzte”.

Mozorro bat erabiltzeak norberari laguntzen dio bere burua babesten, baina are garrantzitsuagoa dena, besteak babesten laguntzen du. Norberak eraman dezake gaixotasuna berekin eta inguruan zabaltzen ari ohartu gabe. Denok jaurtitzen ditugu tanta txikiak hitz egin, doministiku egin edo ezul egitean. Maskarak eragozten digu gure tantak besteri botatzea.

Birusak nahiko txikiak dira maskara baten poroetatik pasatzeko. Baina birusak garraiatzen dituzten tantak handiagoak dira eta ez, hauek maskara zeharkatzea ez da hain erraza. Bestalde, uste da birus bakar batek kaltea eragiteko aukera gutxiago duela eta birus kopuru esanguratsu bat behar dela gaixotasuna abian jartzeko.

Badira irizpide kultural batzuk ere garmatzatenak denok maskara bana erabili dezagun eskatzera: jende guztiok maskarak erabiltzearen abantaila bat hauxe da: guztiek maskara erabiltzean saihesten dela diskriminatzea ondo ez daudelako maskarak daramatzatenak.

Uneotan maskara profesionalen eskasia dago, eta oraindik erabilgarri daudenak gure ospitaleetan behar dituzte. Baina bufanda bat ere erabil daiteke, nork bere maskara bat josi edo etxean eskuera aurkitutako osagaiekin maskara osatu. Horiek ez dira izango maskara profesionalak bezain onak, baina guztiek lagunduko dute COVID-19 kasu kopurua murrizten. Birusek ez dute beroa maite. Xaboiak izorratzen ditu. Maskara garbitu dezakezu 70 ° C-tan labean berotuz edo xaboiarekin garbituz. (*Moon of Alabama, Billmon, martxoak 23*). ●

EHU-K GARATUTAKO PCR TESTA

Test masiboa noizko?

Apirilaren 10ean jakin zen EHU buru den euskal ikerlari talde batek COVID-19a atzemateko test berria sortu duela. Biharamunean bertan abiatu zuen Zalla Bai plataformak test hauek erabiltzen hasteko eskatzeko kanpaina. Apirilaren 16an mintzatu zen lehen aldiz Jaurilaritza EHUn testak erabiltzen hasteko aukeraz. Enpresa pribatuen lehia, burokrasia... zer ote da test honen aplikazioa atzeratzen ari dena?

ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Sorreratik bertatik da euskal ikerlari taldeak garatu duen testa berezia. Izan ere, bost ikerlarik ekin zioten bere ekimenez eta etxeko konfinamendutik, koronabirusaren diagnostiko masiboa egiteko ahalmena emango zuen testa asmatzeari; ez da goiko edo kanpoko inoren enkargua izan. Osasunaren Mundu Erakundeak test masiboak egitea jo du pandemiaren lehen unetik beratu kontrolatzeko modu eraginkorrenetakotzat.

Berehala zabaldu zuten auzolana, eta EHUn laguntza instituzionalaren babesean bost ikerlarik hasi zuten ekimena 55 ikerlariko sarea izatera igaro zen, Ugo Mayor koordinatzaile izanik. Hauek dira testa garatu duten erakundeak: EHU, Ikerbasque, Achucarro, Biofisika Bizkaia Fundazioa, Biocruces Bizkaia eta Bioaraba. Gaiari buruz munduan argitaratutako artikuluak berrikusi eta horien inguruko eztabaida telematikoak egin ondoren, ekintza plana diseinatu zuten eta aipatu erakundeetako baliabideekin sei laborategi egokitu zituzten. Azkenik ekin zioten Osakidetza COVID-19az diagnostikatu-tako gaixoen laginekin frogak egiteari eta beste hamar egunen buruan lortu dute PCR test berri hau ekoiztea.

PCR teknikak material genetikoaren kopuru txikiak handitzen ditu, kasu honek COVID-19 birusarena. Teknika horren RT-PCR aldaera darabil test berriak eta



honi esker material genetikoaren hautemate kuantitatiboa jasotzen da eta beraz, birusik ez duten eta kutsatuta dauden pertsonen artean bereizi daiteke.

ABANTAILAK: KIT BEHARRIK EZ, MERKEA ETA FIDAGARRIA

Ikerlari hauek sortu duten PCR testaren indargune handietako bat da ez duela kit baten beharrik laginak hartzeko. Eta hau bertute handia da, izan ere, kitak behar dituzten PCR probek zailtasun handiak dituzte kit horiek ekoizteko: orain dagoen eskariaren ondorioz, mundu osoan baitago eskas laginak hartzeko kit hauek beharrezko duten lehengaiak.

Horrez gain, test honen lagin bakoitzak 15 euro balioko duela aurreikusitako dute, eta lau ordu baino gutxiagoren buruan eskuratzen da emaitza. Fidagarritasun handia du: %100eko espezifikotasuna eta %92ko sentikortasuna eskaintzen ditu. Sentikortasunak kasu positiboak detektatzeko gaitasuna adierazten du, eta espezifikotasunak, berriz, probaren fidagarritasun maila, alegia, zenbateraino emango dien emaitza negatiboa infektatuta ez dauden pertsonen.

Gainera, PCR test hau kopuru handian ekoizteko gaitasuna badagoela adierazi du ikerketa honen koordinatzaile Ugo Mayorrek: "EHUn egunean 500-1.000 test egin ahalko genituzke, baina EAEko baliabideak koordinatuz gero, egunean 10.000 test egitera iritsi ahalko genuke".

APLIKAZIOA NOIZKO?

Horixe da test masiboen garrantzia kontzientzia duten herritarrek EHUn testaren berri izan dutenetik egin duten

galdera. Zalla Bai plataformak erabilera sustatzeko sinadura bilketa abiatu zuen apirilaren 11n eta hiru egunean 29.000 sinaduratik gora jaso ditu. Eskaera horren babes zabalak albiste bihurtu du gaia eta kazetariak Jaurilaritzako Osasun Sailari egunero egin dien galdera izan da.

Osasun Sailetik emandako erantzunetan badago pistarik, pentsatzeko zein elementu dauden jokoan aplikatzen has-terakoan.

Nekane Murga Osasun sailburuak apirilaren 13an adierazi zuen "hainbat enpresa ari direla testak garatzen", eta "zuhurtziaz" jokatu nahi duela Jaurilaritzak test hauek erabiltzen hastekotan. Egun horretan bertan zabaldu zituen Jaurilaritzak testak garatzen ari zirenen bi osasun enpresen izenak: Osasun enpresa, zeinaren zuzendari den Asier Albizu, nekazaritzako ikerkuntza aritzen den Neiker-Tecnalia institutuko zuzendari nagusi izana. Eta Progenika Biopharma, Grifols farmazeutika handiari lotua dagoena.

Apirilaren 15ean sailburu berak iragarri zuen Jaurilaritzak oraindik ikerketa fasean zen "koronotesta"ren alde egiten zuela: BioAraba, Biocruces Bizkaia eta Biodonostia erakunde publikoak eta SOMAprobes enpresa pribatua daude test honen atzean.

Kaleko presioak izan dezake bere eragina, izan ere, sailburuak "koronotesta" aipatu eta biharamunean, apirilak 16, Jaurilaritzaren osasun datuak ematen dituen Miguel Sánchez Fernándezek adierazi du EHUn biltzear zela "ikusteko nola egin dezakegun aurrera aukera hau gehitzeko egun egiten ditugun diagnostiko testei". ●

**DATU PERTSONALEN BABESA
EUROPAKO ARAUTEGIA**

Zure enpresa egokitzen
lagunduko dizugu



SIGACUS

☎ 943 453 588 - www.sigacus.com

MARCOS
okindegia

**Benetako
antzinako ogia**

© 943 450 966
Ubarburu pasealekua, 113
Astigarraga (Gipuzkoa)



aholku
FISKALIA KONTABILITAS LABORTASIA

**EKONOMIA SOZIAL
ETA ERALDATZAILEAREN
BIDEAN DOAZENEN
AHOLKULARITZA**

aholku@aholku.eus · 943 005 680
aholku.eus

Ogiaren egia




**Galparsoro
OKINDEGIA**

Ogi biologikoa
Harri errotan sehetutako irinaarekin egindako ogiak
Grantzia ogiak

Kale Nagusia 4 (Aldia Zaharra) - DONOSTIA - Tel.: 943 421 874

EKONOMIA



Zein dago industria jarduerari eutsi dioten enpresen atzean?

Eusko Jaurlaritzak bere sokako enpresei “mesede” egiteko eutsi dio produkzioari. Hori da ELAren susmoa. EAEko eta Nafarroako gobernuen kontra jarritako salaketan, enpresa horien zerrenda luze bat ere aurkeztu dute.

 **URKO APAOLAZA AVILA**

ELAK eta LABek salaketa jarri dute Eusko Jaurlaritzaren eta Nafarroako Gobernuaren kontra, funtsezkoak ez diren jarduerak eteteko Espainiako Gobernuaren Errege-Dekretua haustea-gatik. “Argipen oharra” kaleratu zuen EAEko administrazioak eta enpresei eskatu zien ez uzteko produkzioa bertan behera.

ARGIAk salaketaren txosten osoa aztertutako eta argipen oharraren ondoren jarduerarekin segi duten enpresen zerrenda luze bat ageri da, sindikatuen arabera legea urratu dutenak. ELAk heldabide honi azaldu dionez, gehiago egon daitezkeen arren, horiek dira ateak irekita mantendu dituzten gehientsuenak, eta “lotura estua” dukete Eusko Jaurlaritzarekin eta EAJ alderdiarekin: “Elkar elikatzen dira” azaldu du Pello Igeregik.

JAZ Zubiaurre da enpresa horietako bat, Confedasko presidente Eduardo Zubiaurrek Eibarren duen lantegia. Zubiaurrek, hain zuzen, adierazpen polemikoak egin zituen Radio Euskadin, Espainiako Gobernuaren errege-dekretuaren kontra eta Arantxa Tapia Ekonomia Garapen sailburuaren jarrera defendatuz. Sare sozialetako erabiltzaile ugari gogorarazi dute EAEko patronaleko ordezkaria Eibarko EAJko Uri Batzarreko presidentea izan zela iraganean.

Horrez gain beste enpresa batzuk ere nabarmendu ditu sindikatuak, haien zuzendaritzako kideak EAJren hurbilekoak direlako edo Jaurlaritzarekin harremanak izan dituztelako. Tartean dira Tubacex, Nuria Lopez de Guereñu –Jaurlaritzako Garraio eta Herri Lan sailburu izandakoa eta Confedasko presidente ohia– kontseilari duena, baita Haizea Wind ere; Iñigo Urkullu lehendakariak haize errotak egiten dituen enpresaren Santurtziko planta inauguratu zuen, honek Ekarpent funts publikotik 10 milioi euro jaso eta gero.

Sindikatuak osaturiko zerrendan 37 enpresa daude, horietako batzuk aski ezagunak, hala nola Olaberriko eta Bergarako ArcelorMittal, CAFen Irungo lantegia, Lointek, Nervacero, Indaux, Lapoxi, Fundiciones del Estanda, Arania... Azkeneko honek esku hartu zuen –Unesid siderurgiako patronalaren bidez– Sánchez eta Urkulluren arteko negoziazioetan, Espainiako Gobernuak martxoaren 30ean ekonomia guztiz geldiaraztea erabaki zuenean.

ELAren esanetan soilik erlazio horiek jakinda uler litezke Arantxa Tapiaren sailaren ahaleginak enpresen produkzioari eusteko, sindikatuen esanetan kasu askotan langileen segurtasuna bermaturik ez izan arren. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com



LABURREAN

*Irlandak ospitale pribatu guztiak
nazionalizatu ditu
pandemiak iraun bitartean*

*Liburu-denda independenteak itxita,
Amazonen triskantza
eragin dezake sektorean*

*Herritarren telefonoetako informazioa
"helburu polizialeko" erabiltzeko prest
azaldu da Espainiako Gobernuak*

*Munduko 76 herrialde txiroenei kanpo-zorra
urtebetez atzeratzea onartu dute
G20ko estatuek*

*Espainiako CIS inkesta etxeak galdera
batean iradoki du gobernutik ez datorren
informazio guztia zentsuratzea*

*Amazoniako deforestazioa %50 hazi da
koronabirusak eragindako kontrol faltagatik*

*Fusila eskutan, protesta egin dute
AEBetan konfinamendu neurrien aurka*

IRITZIA

Konfinamenduak ekarritako berri askotarikoen artean, *Blavatnik School of Government* delakoa dago. Labur definitzeko, politika publikoari buruzko ikastegi espezializatua da eta Oxfordeko Unibertsitatearen barruan dago.

Parte txarreko birusaren krisiari emandako erantzun politikoak alde-ratu ditu erakunde ingelesak. Neurri komunaren artean daude ikastegiak itxtea, bidaiak murriztea, urruntze soziala ezartzea edota osasungintzaren hornidura handitzea. Hala ere, estatuek ez dituzte berdin ulertu hitz berak. Horren adibide argia da konfinamendu eredu ñabarra Europar Batasunean (EB): alde

handiak daude 27 estatueta neurri murriztaileen artean.

Hartara, konfinamendu orokorra gorabehera, ez gaude (inolaz ere) berdin *konfitatuak*. Esaterako, Espainia izeneko eremu juridikoan bizi garenok, Bulgarian bezala, ezin gara paseatzera atera; EBko gainerako 25 estatueta, berriz, jarduera fisiko indibiduala baimenduta dago.


Kasu: konfinamenduak luzatzen ari diren honetan, hitz berbera erabiltza ere, ez dira gauza bera luzatzen ari. Eta, konparazioaren egileek ohartarazi bezala, neurriak drakoniarragoak izateak ez du esan nahi, berez, kudeaketa hobea denik. ●

Gobernu eskola(k)



EDU ZELAIETA ANTA
IRAKASLEA ETA IDAZLEA

Iritzia



Harropuzkeriaren biktimak



ASIER BLAS MENDOZA
EHU-KO IRAKASLEA

Ez genuen uste horrelako zerbait ezagutuko genuenik, inoiz ez gaituztelako prestatu kinka larrian bizitzeko; mendebaldar harropuzkerian hezitu gaituzte. Munduan herrialde eta pertsona gehien azpiratu dituztenek, baliabide gehien ostu eta xahutu dituztenek, gehien kutsatu eta giza eskubideak nahieran urratu dituztenek esana ziguten munduko eskualde garatuena ginela. Osasun sistemetan, askatasun zibiletan eta demokrazian txapeldunak omen ginen. Hain gara *zibilizatuak* sinetsarazi nahi digutela munduan zehar lezioak eman ditzakegula harrokeriaz beteriko hitzekin, gure interesak bultzatzen dituzten Gobernu Kanpoko Erakundeeekin, milioika pertsona pobrezia kondenatzen dituzten zigor ekonomikoekin edo bonbardaketa eta gerra humanitarioekin (sic).

Ez da harritzekoa Txinan COVID-19 agertu bezain laster, mundu libretik mespretxuz seinalatu izana baldintza higienikoen falta edota osasun-sistema kaskarra arazoaren iturburu bezala. Txinatarrek desastrea omen ziren, hamarnaka milaka gaixotu eta 3.000 hildako inguru zeuzkatelako. Mendebaldeko hedabideek kritika sentsazionalistak egiten zituzten bitartean, Txinak hasierako anabasa zuzendu eta konfinamendu neurri gogorak hartu zituen. Segidan harroputzen kritika zaparrada berria etorri zen: horrelako neurriak diktadura batek soilik hartu ditzake edota ekial-

Ez da harritzekoa Txinan
COVID-19 agertu
bezain laster, *mundu
libretik mespretxuz
seinalatu izana baldintza
higienikoen falta edota
osasun-sistema kaskarra
arazoaren iturburu bezala*

deko kultura hauek ez dute askatasuna maite, otzanak dira.

Azkenean birusa mundu libreria iritsi zen orain konfinamendu neurri demokratiko eta zibilizatuarekin antza. Herrialde kaltetuarekin EBkatasri eta NATOr laguntza eskatzen zioten unean, *zibilizatuaren zibilizatuarekin* beraien bertsiorik berekoiena atera zuten paseatzera beste behin. Italiara eta beste herrialde batzuetara lehenengo laguntzak Txinatik, Errusiatik eta Kubatik iritsi ziren.

Hegemonia aldaketek une fundatzailer biolento bat behar izaten dute, baina oraingoan mugarri historikoa biru bat izango da. COVID-19aren krisiak Txinaren hegemonia hasiera unea markatu dezake. Nazioarteko edozein katastrofe gertatzen zenean munduko laguntzaren ardatza eta sektorea AEBak ziren, dena pasatzen zen New Yorketik. Oraingoan

laguntza Txinatik dator nagusiki, munduko zentroa Beijing da.

Baina, Mendebaldeko hedabide eta politikari askok jasoriko laguntza eskertzeko modu oso arraroa izan dute *ez zibilizatu* gaizki esaka arituz, *fake news*-ak zabalduz eta ustez dituzten ezkutuko xedez arituz. Horrela balitz ere, aliatuen interesak non zeuden? Mendebaldeak eman duen laguntza apurra bere bazkideekin egin du nagusiki eta modu erreaktiboan Txina, Errusia eta Kuba prestigio-tu direlako.

Nahiz eta Txina lehen potentzia bilakatu, AEBek botere handia dute oraindik, horregatik, duda asko daude ikuskera geopolitikotik etorkizuneko agertokia aurreikusteko. Zer izango dugu, nazioarteko anabasa handiagoa edo multilateralismoa indartuko da? Garbi dagoena da globalizazio neoliberal finantzarioa ahulduta aterako dela, interes eta perspektiba nazionalen mesedetan.

Txinak *Mundu librea* baino erantzun azkarragoa eta eraginkorragoa eman du. Mendebaldearen harropuzkeriaren biktimak dira gure hildakoak, osasun sistema estresatuak, langabetuak eta krisi honek pobretuko dituen guztiak. Tan Liu-k Twitterren idatzi du: "Bitxia da nola ekonomia kolapsatzear dagoen jendeak behar duena bakarrik erosten duen". Saiatu gaitzeen krisia aukera bilakatzen gauzak errotoaldatu eta benetan inportantea den horretaz arduratzeko: bizitza duinak izateaz naturarekin bat. ●



Elkar zainduz, komunitatea
eraikiz, Errenteria eginez.

**Eskerrik asko
herrikide guztiei!**



Errenteriako Udala



Goitik behera heldu zaigun debeku zerrendak egun batetik bestera hankaz gora jarri du gure bizimodua, baita albokoa ikusteko manera ere. Gure txarrena eta onena aterarazi ditu itxialdi tarteka, surrealista, honek. Komando autonomoak antolatu dira balkoietan, barruan duten poliziari hegoak emateko. Baina zorionez beste hainbatetan elkartasuna eta herritarren arteko samurtasuna gailendu dira, besteari laguntzeak dakarren bizipoza lehenetsiz eta baldintza zailenak dituztenengan lehentasuna jarritz. Osasunaren ikuspegitik, eta Estatuaren neurri paternalisten aurrean, parte-hartze aktibo eta komunitarioa dezente eraginkorragoa da eta. Artikulatu gabeko jendarteek, ekintza autoantolatuak egiteko gai ez direnek, errazago onartzen dituzte neurri autoritarioak. Txikitu dezagun bada, distantzia soziala.



ERANTZUN SOZIALA

Herritarak
ez daude lo



Komunitatearen indarra

Laguntza eta babesak eskaini nahi duen jendea ez da gutxi garaiotan, horren lekuko dira sortu diren ekimen txiki eta handiak, sarri administrazioak utzitako hutsuneak bete asmoz.

ZAINTZAK ERDIGUNEAN

Zaintza-krisiaren aurrean esku hartzeko, mahai teknikoa sortu du mugimendu feministak. Agintarien erantzunik gabe, baina hoge eragile sozial, politiko eta sindikalen babesarekin ekin zion mahaiak ibilbideari martxoaren 23an.

ZAINTZA SAREAK

Euskal herri osoan, atariz atari, txanpinoiak lez eta autoantolakuntza oinarri, zaintza sareak osatu dituzte herritarrek, laguntza behar duten herrikideen beharrak asetzeko: erosketak egin, osasun zentroetan bajak jaso, umeentzako jostailuak eman...

ETXEBIZITZA ESKUBIDE

Espainiako Estatuko hainbat kolektibo eta maizterren sindikatuk deituta, alokairu greba abiatu dute apirilean, alokairua ordainduz maizterrek gehiegi zorpetzea saihesteko.

ERRESISTENTZIA KUTXAK

Lana galdu duten etxeetako langileei laguntzeko, krisiak bereziki kolpatu dituen migratzaileei ekarpena egiteko... han-hemenka sortu dituzte erresistentzia kutxak, egoera lazarrienean daudenek oinarritzko beharrak ase ahal izan ditzaten.

ZAHAR ETXEETAN BIZITZEN

Lizarrako eta Zestoako zahar etxeetan, konfinamenduak iraun bitartean



MATTANE GARTZIANDIA

etxera joan-etorria egin ordez egoitzan bertan geratzea erabaki dute langileek, zaharrak ez kutsatzeko ahaleginean.

ARRAKALA DIGITALA GAINDITZEKO

Etxean internetik ez daukaten haurrei konexioa eskaintzen hasi da Izarkom operadore kooperatiboa, ikastetxeekin elkarlanean, eskolako lanekin segi dezaten.

TOKIKO ELIKADURA SAREAK

Ekoizle txikiak tokiko elikadura sareak erabiltzen ari dira euren produktuei aterabidea emateko, dela internetez, dela etxeetara banatuz edo azoketan.

INDARKERIA MATXISTAREN AURKA

Hainbat emakume beren erasotzaileekin itxita eta isolatuta egoitera igaro dira. Konfinamendua hasi zenetik jasotako erasoei tinko erantzuten jarraitu du mugimendu feministak, leiho eta balkoietatik kazeroladak deituz.

EZ IZAN SALATARI

Balkoietakako salatarien aurkako hainbat irudi eta mezu zabaltzen ari da sare sozialetan. Balkoietatik salatari lanak ez egiteko eskatzen diete herritarrei, eta horren ordez auzokideak zaintzeko.

OSPITALEETARAKO MATERIALA EGITEN

Ospitaleetan dagoen material eska-siari aurre egin asmoz, 3D inprimagailuak dituzten ikastetxe, fabrika eta herritarrak lanean jarri dira, arnas-aparailuak eta beste egiten. Maskarak josteari ekin dioten herritarrak ere makina bat dira.

TXALOAK

Herritarrek egunero eskertzen diete balkoietatik osasun arloko langileei pandemiaren aurkako eta herritarren aldeko borrokan egiten ari diren ahalegin handia. Bestelako eskertzak egiteko txalo deialdiak eta aldarrikapenak egiteko eltze-jotzeak ere ez dira falta egunotan. ●

ZAINZA SARE HERRITARRAK

Zaintzatik, komunitatera bidean

Arabian koronabirusaren krisiaren testuinguruan sortu diren hainbat zaintza sare herritarrekin jarri gara harremanetan. Nola sortu ziren eta zertan ari diren ezagutu nahi izan dugu. Jakinda, horiez gain zaintza praktikatzen duten sare informal ugari dagoela gure herri eta auzoetan, krisiaren aurrean aktibatu direnak zein aurretik ehundutakoak. Bide hasi berrian metatzen doazen jakintzak, lorpenak zein gabeziak konpartitu dizkigute, etorkizunari begira ezinbesteko iritzi dioten lan komunitarioan sakontzea helburu.

 ZIGOR OLEAGA

Aiaraldea Zainduz sareko Ainhoa Lezamarekin, Aguraingo sareko Jon Ruiz de Pinedorekin, Gasteizko Batera sareko Aitziber Romerorekin eta Gasteizko Alde Zaharreko sareko hainbat kidearekin hitz egin dugu. Sare bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu, baina gauza askotan datoz bat. Batzuek eta besteek aletu dituzten bertute, ahulgune eta kezka Euskal Herriko beste sare batzuei ere irakurri ahal izan dizkiegu (erreportaje hau jatorrizkoaren laburpena da, osorik irakurtzeko, jo argia.eus-era).

Agurainen, ekimena Gaztetzeko Gazte Asanbladatik sortu zen. Gasteizko Alde Zaharrean, eskolak itxi zituztenean hasi ziren auzoko hainbat sareen artean ideiak partekatzen. Jarraian egin zen publiko Batera Zaindu Gasteiz mailako sarea. Elkarrekin hitz egin, eta bat egitea erabaki zuten: Bateraren parte da Alde Zaharreko sarea. Aiaraldean, eskualdeko bost herrietan sortu dituzte sareak: Laudion, Okondon, Orozkon, Aiara eta Amurrian.

Ekimen horiek guztiak sare sozialen bidez hasi ziren haien burua aurkeztzen. Laster egin zuten jauzi eremu digitaletik atari fisikoetara. Feminismoaren eragina nabarmena eta egiturazkoa da sareen mezuetan, egiteko moduetan, aldarrikatzen diren baloreetan edo lantzen diren ildoak aukeratzean.

Ekimen jendetsuak eta askotariakoak

Alde Zaharrean aniztasuna handiagoa izan da, baina oro har gazteak izan dira ekimenen sustatzailerak. Baina sareek arrakasta izan dute, jende asko batu zaie oro har: Agurainen 40 bat lagun dira; Aiaraldean 200; Gasteiz osoan 2.300 eta 300 inguru Alde Zaharrean. Kideen soslai askotariakoa da, ondorioz.

Aniztasun hori altxor moduan bizi dute, batetik: ohiko esparruetatik harago helitzen ari da herrigintza, eta hori ez galtzeko nahia antzematen da gure solaskideen hitzetan bezala sareen mezuetan zein moduetan. Buruhauteen iturri zaie tarteka batzuei, bestetik: antolatze inongo ohi-turrik ez duten pertsonekin aritzea zaila egiten zaie batzuetan, kuriositateagatik edo informatuta egoteko soilik kide izan diren pertsonak daude, eta zenbaitek ez dute ulertzen edo errespetatzen WathsApp taldeen funtzioa eta ezarritako arauak.

Elkar laguntzeko hamaika manera

Zertan ari dira herritarrak elkarri laguntzen zaintza sareen bitartez? Lezamak eta Ruiz de Pinedok erosketak egitea nabarmen dute. Hori da errepikatuen. Horrez gain, osasun zentroan erreka-duak egitea aipatzen du Barriocanalek. Zaborrak jaiste edo besterik gabe hitz egitea, Romerok.


Herritarrek bestelako laguntza orokorrak bideratu dituzte ekimen hauen sare sozialen bitartez: itxialdia hobeto pasatzeko kultur emanaldiak, sukaldaritza proposamenak edo ariketa fisiko saioak kasu, edo hitz egiteko beharra dutenentzako telefono zenbakiak. Laudioko merkaturaren euren produktuak saltzen zituzten ekoizle txikiekin harremanean jartzen ari da banan-banan Aiaraldea Zainduz, merkaturak bertan behera gelditu den honetan nola lagundu dezaketen pentsatzeko. Arrakala digitalaren ondorioak inoizko gordinen azaleratu diren honetan, Gasteizen edo Laudion etxeetako wifiak bizilagunei irekitzea proposatu dute.

Azkenik, zaintza sareek material propioa sortu dute: laguntza eman edo jasotzeko protokolo idatziak, profesionalen bideo laburrak kutsatzeak ekiditeko edo itxialdia psikologikoki ahalik eta hobekien eramateko, eraso matxisten aurkako protokoloak...

ESKaintzeko erraztasuna; eskatzeko zailtasuna

Solaskide guztiek ahulgune berbera seinalatu digute: asko dira laguntza emateko prest saretu diren herritarrak, gutxi dira heldu diren laguntza eskaerak.

Arazoietako batzuk negatiboak dira. Horien artean errepikatuen zaurgarritasuna agertzeko ditugun zailtasunak



MAITANE GARTZIANDIA

dira. Neoliberalismoak gutako bakoitzean egin duelako abia, eta behin ardurak indibidualizatuta, laguntza behar izateak porrot pertsonalaren kutsua du. Horrez gain, lotsatiak gara laguntza eskatzeko orduan, are gehiago pertsonalki ezagutzen ez dugun norbaiti eskatu behar badiogu.

Arantza Basagoiti Gasteizko Alde Zaharreko sareko kidea da. Talde bat osatu du bakardadea dela eta hitz egiteko beharra duten auzokideei telefonoz deitzeko. “Oso zaila da behar hori duen pertsona batengana heltzea, bakardade handian badago”, hausnartu du Basagoitik. Helduta ere, aipatutako arazoa dago: “Zaurgarri agertzea oso zaila zaigu”. Ondo daki Basagoiti zertaz ari den. Gorpildun aulkian bizi da eta gatazka hori bere azalean bizi izan du: “Transmititzen dudana estereotipoa da laguntza behar duen pertsonarena. Nik laguntza eskaintza piloa jasotzen dut. Asko eskertzen dut, baina ikasketa gogorra izan da. Gure jendartearen autonomismoa erlijioa da”

Zailtasun horiek guztiek ez dituzte ezustean harrapatu sareetako kideak, oro har. Joera eta ahulgune horiek urra-

tsez urrats eraldatzen joatea sare hauen borroketako bat dela ulertzen dute, hain zuzen ere. Asteek aurrera egin ahala, laguntza eskaerek gora egin dute pixkana.

Arrazoi positiboek ere azaltzen dute laguntza eskaeren urritasuna. Batetik, sareek atariz atariko antolaketa eta dimentsioa lehenetsi dute, lehenago aipatu bezala. Hortaz, behin atariko bizilagunen artean komunikazioa sortu eta elkar laguntzarik praktikatu bada, sarearen kudeaketatik zein ezagutzatik kanpo geratzen da errealitate hori. Zentzu horretan, ez dago jakiterik sareen bitartez asetzen edo bideratzen ari diren beharren tamaina. Bestetik, oraindik ere mantentzen dira gutxieneko zentzu komunitarioa duten eguneroko erlazio sareak. Ikusezinagoak diren sare informal horietatik naturaltasunez praktikatzen da elkar laguntza, berriazko egitura bat sortzeko beharrik gabe, eragile batek propio sustatu gabe. Zentzu berean, Aguraingo komertzioak euren kabuz antolatu dira behar duten herrikideei erosketak etxera eramateko, edo Gasteizko Alde Zaharreko supermerkatu txikiak berdina egiten du auzokideekin.

Balore handia du horrek, eta erreallitatea aztertzean kontuan hartu behar da. Pentsa genezake, bestela, hainbat herri txikitan zaintzarako sare formalik sortu ez bada herritarren zentzu komunitario ezagatik dela. Aldiz, kontrakoagatik izan daiteke kasu askotan. Murgian edo Kuartangon, esaterako, ez da sarerik sortu, eta horren azalpen berdina eman digute bertako herritar banak: bizilagunek ezagutzen dituzte aurretik ere dauden beharrak edo pertsona jakin batzuen egoerak, eta propio egiturarik sortu gabe erantzuten diete haien beharrei.

BAZTERTUENAK SAREETATIK KANPO?

Behar larrienak dituzten pertsona eta sektoreengana heltzeko elkartasun sareek mugak ote dituzten galdetuta, solaskideek baietz diote. Iñaki Luzuriaga Gasteizko Alde Zaharreko kale hezitzailea da, baina auzokide eta militante bezala ari da auzoko zaintza sarean parte hartzen. “Estatus legala, baliabide laboralak eta errekurtsioak ditugunoi irizpide batzuk ematen dizkigute, babesten gaituztenak, baina baztertuta dagoena konexiorik gabe geratzen da erabat, beti du galtzekoa”, dio.



Gasteizko Batera Zaindu sarera ia 3.000 pertsona batu dira. Laguntza deszentralizatu dute 50 eremutan.

Alde Zaharrean pobrezia eta bazterkeria egoerak Gasteizko gainontzeko auzoetan baino handiagoak dira, baina deskribatzen dituen egoerak toki askotan ari dira gertatzen: “Pobrezian dagoen jende askok ez du etxea alokatuta, gelak baizik. Askok mugikorrak badituzte, baina daturik ez. Isolatuta egotea dakar horrek egun, informaziotik, lagunartetik, eskolatik. Leihotetan daude, ia taberna edo elkarte batetik wifia harrapatzen duten”. Etxe horietako askotan haurrek jolasak ere ez dute eta kalean ordu asko ematera daude ohituta, eskolako lanak egiteko beharrezko materialik ere ez. “Zaintza saretik jolasak edo barruko aldetik pintatzeko kartelak eta margoak banatu ditugu. A ze harrera! Baina benetako beharra harremana zen. Sentitzea badagoela norbait, auzoa, nolabaiteko komunitate bat, eta ni haien buruan nagoela”.

ETXEKO LANAK, AUKERAN, AURRETIK

Gasteizko Alde Zaharreko sarean egoera eta pertsona zaurgarrien ezagutza hurbilagoa dagoela ematen du, eta horien presentzia zaintza sarean handiagoa dela. “Gure elkar zaintza sarea egunerokotasunean sortuta dugunaren inguruan sortu dugu”, dio Barriocanalek, ezinbesteko gakoak emanez. Egunerokotasun hori sare ugariz osatuta dago, horietariko batzuetan egoera sozioekonomiko ezberdinetako jendea nahasten da eta urteetako lana dago atzean: eskolako gurasoak, Goian elkarte, Sareak Josten, Auzoan Bizi... El-

karren artean saretuta daude aldi berean, haien artean eta beste hainbat mugimendurekin ere: Gasteiz Txiki Auzo Elkarte, Gasteizko Gaztetxea, Talka guneko okupatu feminista...

Antzera interpretatu dezakegu Lezamak kontatu diguna. “Laudion eta Amurrioren greba mugagabearen egun ziren supermerkatu batzuk, eta greba orokorraren testuinguruan harreman estua sortu zen greba komiteetan”. Prekarizatu-tako eta feminizatutako lan esparrua da, migratzaile kopuru handikoa ere. “Orain, haiek jarri dira harremanetan sarearekin, kutsadura arriskua gutxitzeko erosketekin laguntzeko haien burua eskainiz”.

Sektore baztertuenetara heltzea ez da egun batetik bestera lortzen den gauza. Osaerak asko baldintzatzen eta mugatzen ditu mugimendu bakoitzaren agendak, lehentasunak, ardurak edo sentsibiltateak. Baina egia da azken urteetan ugaritu egin direla gabezi hauen inguruko hausnarketak eta borroka herritar zehatzak. Bizitzeko ari garen garaia –eta etorriko direnak– aliantza eta nahasketa hauetarako beharra zein aukerak areagotu dituzte.

Barriocanalek uste du modu dikotomikogian planteatzen ari direla laguntza: eman ala jaso. Batetik, errealitatea desitxuratzea dela deritzo. Romerok dioen bezala, “guztioak dugu zainduak izateko beharra, eta baita zaintzeko ardura ere”. Bestetik, nahi gabe ere logika paternalista edo asistentzialak elikatu ditzakeela uste

du: “Laguntza emateko gai” diren sareko kideak dira “laguntza behar duten pertsona zaurgarriak” babesten dituztenak, nolabait.

GARAIEI KOMUNITARISMOTIK HELTZEKO ERREMINTAK

Konfinamenduak eta larrialdi egoerak sortu edo areagotu dituzten zaintza beharrei erantzuteko sortu dira zaintza sare herritarrak Araban –eta Euskal Herri osoan–. Behar horiek areagotu egingo dira konfinamendu egoera luza-tu ahala, gure solaskideen ustez.

Konfinamendua amaituko da noizbait, baina beharrak ez. Krisiaren ondorioak berriz ere herritarren bizkarrean zamatzen ahaleginduko dira agintariak, injustiziak eta sufrimenduak areagotuz. Zaintza sareen esperientzia agertoki horri erantzuteko baliagarri ikusten dute gure solaskideek, sare bezala izan zein beste moduren batean. Erronka handia izango dute orduan sareek. Konfinamendua komunitatearen beharra ikus-tarazteko eta sentsibiltatea garatzeko testuinguru oso aproposa da. Baina komunitatea egituratzeko eta sendotasuna emateko muga gaindiezinak ezartzen ditu –horizontalki, elkar ukituz eta parte-hartzea oinarri eraikitze–.

Luzuriaga ez da optimista, sistemak koronabirusaren krisia bere burua orekatzeko erabiliko duela dio, 2008an egin zuen bezala. Baina hala ere zaintza sareek edo ekonomia sozial eraldatzaileak aukera bat dutela uste du. “Auzokideen artean inoiz baino gehiago ari gara hitz egiten, ikusten duzu zuri laguntzeko prest dagoena ez dagoela ez dakit zein bulegotan, baizik eta zure atarian. Nik uste horrek oinarri polita utziko duela”, dio Barriocanalek Gasteizko Alde Zaharretik; “nik uste dut hone-tatik ikasiko dugula. Gazte Asanbladatik abiatu zen ekimena baina beste jende bat batu da. COVID-19aren krisia pasatuta sarea beste modu batean mantendu daitekeela uste dut”, Ruiz de Pinedok Agurainetik; “horretaz ez dugu hitz egin eta nik neuk sarea bere horretan ez dut uste mantenduko denik, baina sortzen ari diren lotura eta zubi berriak balioko digute aurrera begira”, Lezamak Aiaral-deatik; “etorkizunean forma desberdina hartuko dugu agian, baina ziur nago egun hauetan egindako lanak arrastoa utziko duela. Baterak asko izango du esateko eta egiteko”, Gasteizko sareaz Romerok. ●

Pandemia zein neurritan ari den migratzaileen kolektiboa kolpatzen, nola ari diren beraiek antolatzen egoerari aurre egiteko, beldur eta emozio garai hauek zein modutan hauspotu duten arrazakeria eta poliziak zenbateraino dituen hartuta migratzaileen auzo eta espazioak, horiek Bilboko SOS Arrazakeriako Alba Garciarekin hitz egin ditugun gaiak.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ

Pandemiak bereziki eragin al die migratzaileei?

Bai. Ekonomikoki, askok beltzean egiten dute lan, paperik ez dutelako eta beste, eta beraz, agintariak hartzen ari diren neurriek (autonomoentzat, langabeziara doazenentzat...) ez dute eurentzat balio. Azpimarratu behar da beltzean ari direla ez beraiek nahi dutelako, legeak horretara behartzen dituelako baizik. Hiru urtez ilegal aritu behar dute bai ala bai. Pandemia egoeran, inongo babes ekonomikorik gabe geratu dira asko eta asko.

Eta nola ari dira krisiari aurre egiten?

Erresistentzia kuxak sortu dira, diru-ekarpenak jasotzeko eta behar dutenen artean banatzeko. Jende batek, izan ere, ez du jana erosteko dirurik ere. Espainiako Estatu mailan, Arrazakeriaren

Aurkako Larrialdi plataforma sortu dute eta elkarte eta kolektibo ugari gaude barruan, premia dutenentzako erresistentzia kuxak sortzen, baita zaintza sare antiarrazistak ere, sexu langileentzako baliabideak, inongo kolektibotan ez dauden migratzaileengana iristeko bideak...

Portugalgo Gobernuak legeztatu egin ditu herrialdeko paperik gabeak, osasun arreta jasoko dutela bermatzeko.

Guk dakigula inori ez zaio osasun arreta ukatu migratzaile izateagatik, baina inportanteak diren bestelako eskubide batzuk lortzeko aukera emango liekete paperik. Adibidez, errolda lortzea, hain gauza oinarritzkoa eta gauza asko eskuratzeko sarbidea. Paperak dira baita ere modu legalean lanean aritzeko bidea, kartzatu ahal izateko, lan eskubideak izateko...

Etterik ez eta transitoan, bidean diren migratzaileen kasuan, zein da egoera?

Aterpeez gain, kiroldegiak eta bestelako espazioak prestatu dituzte bidean nahiz kalean direnentzat, baina baldintzak ez dira onak: pilatuta dauzkate, gela berean berrogeita hamar lagun, estresatuta... Bat kutsatzen bada nekeza izango da gainerakoak ez kutsatzea. Gainera, polizia egunero dago horien bueltan.

Hain juxtu, pandemiaren aitzakian polizia-gehiegikeriak salatu dituzte herritarrek. Ziur migratzaileak direla gehien jasaten dituztenetakoak...

Bilboko San Frantzisko auzoa (migratzaile ugariaren bizitoki) adibide garbia da: edonon eta uneoro dago polizia, egunero gelditzen dute jendea arrazagatik, eta gehiegikeria polizialak etengabeak dira. Poliziaren bultzadak edo irainak lanera

“Agintarien neurriek ez dute balio paperik gabeentzat”

ALBA GARCIA, SOS ARRAZAKERIA

doazenean... Dagoen polizia erakustaldia izugarria da, jendea ikaratzea helburu balute bezala. Bizilagun asko beldurtuta daude, poliziak euren aurka har ditza-keen neurri errepresiboengatik.

Poliziaren gehiegikeriez ari garela, krisiak bide eman diezaieke politika murriztaileagoei eta herritarren kontrola areagotzeko mekanismoei.

Hala da, polizia auzo eta leku jakinetan kontzentratzearen atzean estrategia politiko bat dagoen neurri berean. Eguntan bizi dugun errepresio poliziala modu bat da berau legitimatzeko eta ondoren ere errepresio horri segida emateko. Kolektibo eta kolore batzuek espaloia okupatzeak enbarazu egiten du, baina tabernetako terrazetan jende zuria garga-ardoak edaten egoteak ez.

Diskurtso arrazistak eta xenofoboak ugaritzen ari dira pandemia garaian?

Diskurtso arrazistak hor zeuden aurretik ere, baina pandemia baliatu da migratzailea kulpabilizatzeko: birusa ekarri dutela, kalean daudela eta birusa zabaltzen dutela... Osasun arreta lehenengo bertakoei eskaini behar zaiela ere entzun dut. Krisi garaian, non beldurrak eta emozioek rol inportantea jokatzen duten, jendeak errazago heltzen dio diskurtso mota horri.

Zein arrasto utziko du krisi honek?

Kolektiboak eta zerbitzu publikoek duten garrantzia argi geratzen ari da. Pandemiak, gainera, azaleratu du zein baliabide ditugun: kiroldegiak gauetik egunera egokitu dira kalean bizi den jendea hartzeko, bizitza zuriak arriskuan daudela. Neguko hotz sasoiaren zergatik ez da halakorik egiten? Presente izan behar dugu hori guztia, etorkizunean ere aldarrikatzeko. ●



Eskolaren arrakalak agerian

Egun batetik bestera telematikoki i(ra)kasteari ekin zion hezkuntza komunitateak, eta ez da txikia izan batzuek eta besteek egin duten ahalegina, egoera berrira egokitzeko. Ikasle batzuen eta besteen artean gero eta handiagoa den arrakala –baliabide teknologikoak eta etxeko egoera tarteko–, lan zama gehiago duten irakasleak, eta seme-alabak eskolako lanez gainezka dituzten gurasoak ari gara ikusten. Maiatzaren atarian, ikasturte amaiera nola gauzatuko den dute denek buruan.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ / ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA

Garbi du Iñigo Beristain Bastidako ikastetxe publikoko zuzendaria –Bastida izan zen eskolak itxi zituen Euskal Herriko lehena, martxoaren 9an–: “Eskola 2.0 delakoa proban jarri du krisi honek, ez hori bakarrik, hezkuntza sistema osoa jarri du proban, eta dugun hezkuntza eredua ebaluatzeko eta birplanteatzeko balioko du. Ikastetxe barruan baliabideak eta konektagarritasuna bermatuta daude, baina ekosistema horretatik atera eta ez ordenagailurik ez konektagarritasunik ez duten familiak aurkitu ditugu. Eta horri soluzioa emateak du lehentasuna. Etxean egon daitezkeen hutsuneak orekatzen lagundu ohi du ikastetxeak, baina egoera berri honetan familia batzuetan hutsuneak areagotu dira, esaterako bi gurasoak lanera badoaz edo seme-alabari laguntzeko gaitasunik ez badute. Batik bat horietan jarri behar dugu fokua”. Premia berezia duten ikasleei ere bereziki eragin die egoerak.

Hala, hainbat ikasle atzean geratzeko arriskua areagotu du pandemiak eta batzuk zuzenean desagertu egin dira teleikasketatik. Ikastetxeek ere, ezberdin erantzun diote egoerari, eskolako baliabide teknologikoak utziz hainbatetan,

komunikazioa eta harremana indartuz askotan. Batzuetan, kanpotik iritsi da laguntza –Izarkom Euskal Herriko telekomunikazio operadore kooperatiboak, esaterako, konexioa eskaini die etxean internetik ez daukaten haur eta gazteei eta Erreterriako eta Elgetako udalek ikasle guztiek konektagarritasuna eta ordenagailua izatea bermatu dute–. Bastidako ikastetxearen kasuan, familiarekin telefonoz aritzen dira maiz, batez ere ikasle eta gurasoekin alde emozionala lantzeko. “Komunikazio hori funtsezkoa da –dio Beristainek–, ikaskuntza pertsonalizatu sakonagoa egiteko eta ikasle bakoitzak bere erritmoa duelako. Eskolak ezin du izan jakintzaren transmisio hutsa, irakasleonek ekarpena da ikasleei eta familiei eskaintzea faktore humano eta emozionala, eta jakitea bakoitzaren egoerara eta zirkunstantzietara egokitzen. Guraso guztiek ezingo dute seme-alaben ondoan laguntzen aritu, eta enpatikoak eta ulerkorrak izan behar dugu egoera guztiekin”.

TEKNOLOGIA BERRIAK, ESKEMA ZAHARRAK

Edukiekiko menpekotasunetik askatzea, erritmoa pausatzea eta bestelako

beharrei erantzutea aldarrikatu dutenak asko diren arren, kasu ugari ez da hala izaten ari. Irakasleei ez zaie administrazioarengandik agindurik iritsi, curriculum erlaxatu dezaten, eta aurrera segitzen dute. Guraso bat baino gehiago berriz, kexu da, seme-alabek eskolako lan gehiegi dituztela-eta. “Curriculumarena krisi honetatik harago doan gaia da eta koronabirusak erakutsi digu sistema hau berdiseinatu behar dugula, curriculumean zer den inportantea bereizten hasi behar dugula, egungo curriculum amaigabeetan gai asko oso azaletik baino ezin baitira landu, denbora mugatua dugulako, eta aldiz ikasketetan sakondu egin beharko genuke, gaitesia murriztuz –dio Beristainek–. Eskolak beste erritmo bat behar du, bestela badirudielako eskolara doazela haur eta gazteak gauza pila bat produzitzera, baina ikasketa sakonagoetara bideratu beharko genuke denbora”.

Zer ikasten den bakarrik ez, nola ebaluatzen den ere eztabaidaren erdigunera ekarri du krisiak. Bestelako planteamen-
duak egiten ari diren irakasleak badiren arren, azterketa memoristiko klasikora jo dutenak ere ikusi ditugu. Edukiak ez, hainbestetan aipatzen diren konpeten-

tziak ebaluatu beharko liratekeela uste dute hezkuntza munduko adituek, eta horretarako hobe dela ikasleei erronkak planteatzea, dituzten ezagutzekin erronkari aurre egin diezaioten, ezagutza horien gaineko etsamina memoristikoa egin beharrean. “Kontuak kontu –gehitu du Bastidako ikastetxeko zuzendariak–, ebaluazioa kalifikazioarekin lotzen dugu eta ebaluazioak beste zerbait izan behar du: ikaslea zein puntutan dagoen jakitea eta egingarriak zaizkion erronkak jartzea”.

IRAKASLEENTZAT, LAN KARGA HANDIAGOA

Lanordu gehiago eta lan karga handiagoa ekarri die pandemiak irakasleei, bereziki DBH eta Batxilergokoei, hala ondorioztatu du Hego Euskal Herriko hezitzaileen artean egindako ikerketak. 1.500 irakaslek hartu du parte Steilas sindikatuak bidali dien galdeketa. Egun batetik bestera telelanera egokitu beharra, materialak moldatzea eta ikasleen formakuntza falta –eta horrek sortzen dituen buruhausteak– dira, besteak beste, horren arrazoiak. Ikasleekin harreman zuzena bermatzeak ere denbora eskatzen du, eta horri gehitu behar zaio kontu eske ari den administrazioaren tzako gestio lana eta burokrazia. Administrazioak gauzak erraztu beharrean, hezitzaileak gestio lanak egiten jarri dituela kritikatu du Steilasek, “euren jarduna kontrolatzeko”.

GURASOENTZAT, LAN HIRUKOITZA

Gurasoei ere galdeketa bidali die EHIGE Euskal Herriko Ikasleen Gurasoen Elkar-teak eta 8.500 lagunek erantzun dute. Oro har, etxean lan hirukoitza uztartu beharra azpimarratu dute, hau da, familia, lana eta eskola. Aurretik aipatu ditugunak ere azaleratu ditu ikerketak:



guraso guztiak ez daude prestatuta seme-alabei laguntzeko, denek ezin diete denbora bera eskaini, baliabideak ere ez dira berdinak etxe guztietan... Eta lehen-tasunak ere, beti ez dira berdinak: “Familia batzuek esaten digute honelako egoera berezian seme-alaben beste gaitasun batzuk landu nahi dituztela, euren ardura nagusia haien ongizate emozio-nala delako”, dio Lurdes Imaz EHIGeko koordinatzaileak.

EBALUAZIO BERTINZALE ALA KLASISTA?

Aurretik aipatu moduan, eskola etxetik jarraitu behar izan denez hazi egin da ikasleen arteko arrakala akademikoa, eta erakunde publikoek ez diote hasieratik eutsi arrakala hori gainditzeak eskatzen duen planteamenduari eta inbertsioari.

Bakoitzak hain baldintza ezberdinetan aritu behar izan duenean, bidezkoa



al da denei proba bera jarri eta berdin exijitzea? "Ez erlaxatzea", "notarik ez oparitzea" eta "merezimenduak" aipatzen dituzte aurtengo ikasturte bukaera-ko ebaluazioa pandemiari gabeko orain arteko ebaluazioen ahalik berdinena izatea nahi dutenek. Zorrotz itxurako jarra horren atzean ez ote dago arrakala are gehiago handitzea baliatzeko gogoia, eta egoera zaurgarrienean dauden ikasleak klase sozialen arteko mailaketan koska bat beherago uzteko asmo ezkutua?

Ebaluatzeko moduarekin auzitan dagoena ez da hutsala: bere etxeko egoera sozioekonomikoa edonolokoa izanik ere guztiek ikasketetan aurrera egitea, edo egoera ahulenean daudenak ikasketetatik kanporatzea dago jokoan. "Promozioa" da guztiek aurrera egiteko bidea, hau da, bakoitzak nota ezberdinak jaso arren, ikasturtea errepikatzea salbuespena izatea. Ahulena ikasketetatik kanporatzea dakar, aldiz, ebaluazio irizpideak zorrozteak, ikasturtea errepikatze oihiko baldintzei eustekak –bi edo hiru ikasgai gainditu ezean ezin hurrengo ikasturteari ekitea– eta batez ere galbahea estutzeak DBH4 eta Batxilergoko eta Lanbide Heziketako 2. mailetan: izan ere, horrek ekarriko luke ikasle asko eta asko, gehienetan egoera sozioekonomiko txarrean daudenak, titulaziorik gabe geratzea. Zer egoeratan geratuko lirake titulatu gabeko ikasle hauek, ikasketekin jarraitu ahal izateko? eta zein lan motatan aritzeko aukera zabalduko lieke horrek etorkizun oso laburrean?

IPAR EUSKAL HERRIAN, AZTERKETARIK EZ

Frantziako Hezkunde Nazionalaren parte den Bordeleko Errektoretzatik iritsi da Ipar Euskal Herriko ikastetxeetara hirugarren hiruhilekoko ebaluazioa pasatzeko moldearen berri: ezin denez segurtatu azterketak baldintza onetan egin ahal izatea, ekaineko azterketa guztiak bertan behera utzi dituzte, frantsesezko ahazketa salbu. Azterketa hau Batxilergoko 1. mailako ikasleek pasatzen dute, eta testu literario bati buruzko ahazketa azalpena eta solasaldia egitea da proba.

Ikastetxeek espero dute apirila bukaeran jasoko dituztela ebaluazioari buruzko jarraibide zehatzak Hezkunde Nazionaletik. Oraingoan dakitenaren arabera, hirugarren hiruhilekoko ebaluazioa jarraitua izango da eta ikasturte bukaerako nota zehazteko aurreko bi hiruhilekotan jasotako notak baino

ez dira aintzat hartuko. Hirugarren hiruhilekokoaren notak eman ahalko zaizkie ikasleei, hauei azalduz irakasleen eskakizunetan non kokatzen diren, baina ezingo dira ofizialki kontuan hartu ikasturte osoko notarako.

Unibertsitaterako sarbidea den baxoa azterketa ere bertan behera geratu da. Uztailaren 3an bukatuko dira eskolak eta ikasleen dosierak aztertu ostean, espero da uztailaren 7an jakinaraziko dutela zein ikasleek gainditu duten baxoa eta zeintzuek ez. Hego Euskal Herrian, aldiz, selektibitate azterketei eutsi zaie.

Erakunde publikoek ez diote hasieratik eutsi ikasleen artean areagotzen ari den arrakala gainditzeak eskatzen duen planteamenduari eta inbertsioari

NAFARROAN, IKASTURTEAK UZTARTU ETA PROMOZIOA ARAU OROKOR

Nafarroako Gobernuak apirilaren 17an jakinarazi ditu ikasturte bukaerarako irizpide orokorrak, eta Espainiako Gobernuak proposatu duen markoaren barruan kokatzen da. Alderdi bera bietan agintean egonik, ez da harritzekoa. Nafarroako Hezkuntza kontseilari Carlos Gimeno nabarmendu du "ezin dela bermatu ikasleen arteko aukera berdintasunik hiruhileko honetan" eta ebaluazioaren oinarritzako irizpidea honela zehaztu du: "Ikasleek ez dute ikasturtea galduko koronabirusagatik. Inor ezin da horregatik atzean geratu, eta inor ezin da kaltetuta atera pandemiak ikas prozesuan izan duen eraginagatik". Klaseak ekainaren 19an bukatuko dira eta promozioa izango da araua etapa guztietan. Hau da, ikasturtea errepikatzea oso salbuespenezkoa izango da, sendo argudiatu beharko da eta Espainiako Gobernuak ezarritako marko orokorrak dioten beza-la, plan zehatz bat ere eraman beharko

du, ikasturtea nola erreperatu daitekeen adieraziko duena.

Azken ebaluazio irizpideak egokitu egingo dira eta hauek oinarritzako ikasketetan zentratuko dira. Eta ebaluazio honetako curriculumak malgutu egingo da. Aurtengo ikasturte bukaera eta hurrengoaren hasiera uztartzea da Nafarroako Gobernuaren plana, horretarako bi ikasturteetako curriculumak uztartuz. Hau ez da egingo etapa amaierako urteetan, hau da, 4. DBH, eta Batxilergo eta Lanbide Heziketako 2. mailetan.

EAE-N, "BURUJABETZA"?

Artikulu hau idatzi denean (apirilak 18) oraindik ez du Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak ikasturte amaierari buruzko zehaztapenik eman. Apirilaren 16an "plan propioa" duela iragarri zuen, eta autonomia erkidegoaren eskumenean jarri zuen azpimarra. Esanguratsua da EAEko Eskola Kontseilua ez dela bildu prozesu honetan guztian zehar: Espainiako eta Nafarroako Eskola Kontseiluek aldiz parte hartu dute gobernu horiek egindako prozesuetan eta onartu dituzte gobernu horiek ikasturte bukaerari buruz egin dituzten planteamenduak.

Ikusteko dago Uriartek egindako adierazpena ahuntzaren gauerdiko ez-tula izan ote den eta Espainiako Hezkuntza sailak planteatu duen markoan kokatuko den Jaurilaritzak prestatu duen plana, nabardurak nabardura, promozioa izanik arau eta ebaluazio irizpideak egokituz. Ala Espainiak planteatutako markotik kanpoko zerbait ote duen prestatuta Jaurilaritzaren planak, eta hori iragartzeko jotako kukurrukua ote diren *Deia* egunkariak Hezkuntza sailetik jasotako adierazpenak: "Euskadin inork ez du ikasturtea errepikatuko koronabirusagatik, baina horrek ez du esan nahi ikasle guztiek ikasturtea gaindituko dutenik. Ikasturtearen bi heren presentzialki eman dira dagoeneko eta horri gehitu behar zaio hila bateotako lana. Klaustro bakoitzak, duen esperientzia eta irizpide profesionalarekin, erabakiko du zeinek gainditzuten duen eta zeinek ez". EAJk "burujabetza" praktikara eramango luke justu klase sozial indartsuenen onurarako eta arrakala handitzeko denean. Esperotzekoa da gizarte eta hezkuntza eragileen erantzuna piztuko lukeela horrek. Ba ote du Jaurilaritzak gogorik eta indarrik zurrumbilo horretan sartzeko? ●

8 uste faltsu haurrei eta konfinamenduari buruz

Azkenaldian, haurtzaroa eta koronabirusari buruzko hainbat zalantza, iritzi, aurreiritzi, amen-omen eta uste oker zabaldu dira, eta horietako asko beldurraren ondorio dira. Haurtzaroaren profesionalak garen aldetik, eta ideia faltsu horiek hainbat modutan eragiten dutenez, konfinamendu-aste hauetan gehien errepikatu diren ideia horietako batzuk argitzeko erantzukizuna dugu.

 **HEIKE FREIRE ETA
JOSÉ MARÍA PARICIO TALAYERO**

Lehenik, argi utzi nahi dugu gure asmoa ez dela orain arte agintariak ezarritako legeak eta gomendioak zalan-tzan jartzea, baizik eta lasaitasunera, hausnarketara eta ezagutzak truka-tzera gonbidatzea, ahal bada, praktika indibidual eta kolektiboak hobetzeko.

1. Koronabirusa oso arriskutsua da haurrentzat.

Faltsua: koronabirus bidezko infekzioak oso frekuentzia txikia du adingabeengan eta osasuntsu dauden 40 urtetik beherako helduengan arazoak sortzeko.

Sortu den beldur giro soziala dela eta, azken asteetan, familia ugari larritu da seme-alaben osasunagatik. Munduko osasun-agintari guztiak ados daude koronabirus bidezko infekzioak larritasun- eta heriotza-arrisku oso txikia duela oinarritzko gaixotasun kronikorik ez duten pertsonengan, eta are txikiagoa haur eta jaioberriengan. COVID-19, nahiz eta kasu izugarriak gertatu diren, oro har, ez da arriskutsua haurrentzat.

2. Haurrak transmisio bektoreak dira, helduek baino gaitasun handiagoa dute birusa kutsarazteko.

Faltsua: edozein adinetako edozein pertsonak kutsa dezake birusa, baldin eta eramailea bada edo gaixotasuna badu.

Ez dago ebidentzia enpirikorik esateko adingabeek beste edozein adin-talde baino kutsatzeko gaitasun handiagoa dutela. Komunitate zientifikoan ere zalantzak dituzte eskolak ixtea, berez, eraginkorra izango ote den. Horregatik, Europako herrialde guztiek ez dituzte ikastetxe guztiak itxi. Telelana handitzea oinarri duten euste neurriak askoz eraginkorragoak direla dirudi. Haurrak kutsakorragoak diren ideiak aurreiritzi batean du funtsa: ez direla geldirik egoten, dena ukitzen dutela, helduen aginduei ez dietela jaramonik egiten eta kontrolatzeko zailagoak direla, adibidez, uhalaz lotutako zakurrak baino. Hala ere, esperientziak erakusten digu, behar bezala lagunduta, haurrak pertsona enpatikoak eta arrazoizkoak direla eta elkarlanean aritzea gustuko dutela. Gainera, egoera askotara egokitzeko gai dira, gertatzen dena argi eta garbi azaltzen badiegu, haien iritziak, iradokizunak eta emozioak entzuten baditugu (eta, zergatik ez, haien kexa eta frustrazio posibleak ere bai) eta konponbideetan parte hartzeko aukera ematen badiegu.



3. Kurba geldiarazteko, irtenbide bakarra haurrak erabat konfinatzea da, beste herrialde batzuetan egiten duten bezala.

Faltsua: Europako herrialde guztiek ez dituzte konfinamendu neurri zorrotzak ezarri.

Frantzia, Belgika, Suitza, Austria eta Erresuma Batua, besteak beste, Munduko Osasun Erakundearen gomendioak jarraitzen ari dira, eta aukera ematen dute haurrak modu ordenatuan ateratzeko etxetik gertu gurasoei buelta bat ematera.

Azken egun hauetan, Italiak ere bat egin du eta, Psikologo Elkargoak eta hezitzaileen eta familien elkarteek eskatuta, baimendu du haurrak guraso bakar batek lagunduta paseatzera ateratzeko etxetik gertu, segurtasun-tartea mantenduz. Alemanian, zeinaren administrazioa oso deszentralizatuta dagoen, lander gehienetako testuetan adierazi dute jolasak berebiziko premia duela haurrentzat, eta gomendatzen dute egunero eremu komunetan jolastea, betiere lagun berberekin eta arau jakin batzuei jarraituz. Suitzan hurbil dauden eskolakide edo lagunekin irten eta elkar daitetze, beti berberak. Frantzia familiak paseatzera atera daitezke, etxetik kilometro batera gehienez.

4. Positibo eman duten gurasoak seme-alabengandik banandu behar dira, ezin dira haien zaintzaz arduratu. Amek ez diete bularra eman behar.

Gezurra: gaixotasuna kutsatzen da lehenbiziko sintomak eragin baino egun batzuk lehenago, baita sintomarik sortzen ez duenean ere. Familiako norbait kutsatuta badago, pentsatzekoa da etxe berean bizi diren guztiak hala egongo direla.

Zaintzaileak, COVID-19ak kutsatuta ere, ondo badaude (ohikoena gazteen eta aurretik gaixotasunik ez dutenen kasuetan), beren egoerak ahalbidetzen dizkien jarduerak egin ditzakete. Kasu horietan, ez du zentzurik bata bestea-rengandik isolatzea, eta etxebizitza barruan maskara erabiltzea ez dirudi eraginkorra denik.

Gaixotasuna ez da amaren esnearen bidez transmititzen. Amek bularra eman dezakete. Pentsatzekoa da, katarroa eragiten duten antzeko beste gaixotasun batzuetan gertatu bezala, infekzioa pasa duen amak birusaren aurkako antigorputzak (defentsak) sortuko dituela eta

defentsa horiek ama-esnetik ere pasako direla edoskitzailea babestuz.

Edozein zereginen aurretik eta ondoren eskuak garbitzea, bereziki etxe kanpotik badator, modurik onena da kutsatzeko arriskuak ekiditeko. Ez dezagun alferrikako larritasunik gehitu haur konfinatuei, gurasoengandik bananduz edo gurasoen begirada maskaratuaren eraginpean jarritz, maskarak beti eta egoera guztietan erabiltzea ez duelako inolako eraginkortasunik erakutsi.

5. Garen bezalakoak izanik, are gehiago konfinatu behar dugu, bestela gainerako herrialdeetan baino hildako gehiago izango dugu.

Gezurra: Espainiakoa ez da hildako gehien dituen estatua, ez kopuru absolutuetan, ezta 100.000 biztanleko ere, eta ez gaude munduko gainerako herrialdeak baino pandemiaren fase aurreratuago batean.

Eremu bakoitzeko hilkortasuna ezaugarri demografikoen, biztanleriaren osasunaren eta bere osasun-sistemaren erantzuteko gaitasunaren arabera da. Adineko jendearen eta lehendik gaixotasun kroniko eta desorekatuak (biriketakoak, bihotzekoak, giltzurrunetakoak, diabetesekoak, minbizi aktibokoak, immunitate-defizitekoak) dituzten herritarren ehunekoa-aren arabera izango da herrialde eta eskualde bakoitzeko heriotza-tasa. Gogora dezagun gaixotasunak adin talde horiekin ez duela errukirik, eta aldiz gazteak, haurrak eta, oro har, aldeztu aurretik osasuntsu dauden pertsonak kaltegabe uzten dituela.

Bestalde, Espainiako Estatuko herritarrok ez ditugu legeak gutxiago errespetatzen, eta ez gara europarrak baino arduragabeagoak ere. Herrialde bakoitzak konfinamendua egokituz joan da epidemiaren fase bakoitzean adituek aholkatutako datuen arabera. Frantziako legediak, hasiera-hasieratik, haurren ezaugarri bereziak kontuan izan zituen, baita oreka lortzeko aire zabalean egoteko eta mugitzeko beharra ere. Gure konfinamendu arauak askoz zorrotza-koak dira haurrentzat, beste herrialde batzuetakoak baino. Horiek malgutzera lagungarria litzateke, seme-alaben osasuna sendotzeko ez ezik, baita parte-hartzea, haurren zaintza kolektiboa eta erantzukizuna praktikatzeko ere.

6. Haurtzaroan konfinamenduak ez du ondorioirik. Haurrak helduak



DANI BLANCO



DANI BLANCO



baino hobeto moldatzen edozein egoeratar.

Faltsua: konfinamenduaren ondorioe-kiko haurrak helduak baino ahulagoak dira, hainbat arrazoiengatik.

Haurrak hazteko fasean daudenez, ingurune naturala behar dute beren garapena osatzeko, gure espezieko izaki guztiek egin duten bezalaxe. Aire freskoa, argi naturala, mugimendua eta jolasa, lurra, ura eta landaretza behar dituzte. Osasuntsu hazteko, kalkulatzeko da egunero hiru edo lau orduz, gutxienez, jolas espontaneoa egin behar dela aire zabalean. Pandemiagatik konfinatuta gauden egoera berezi honetan ere, MOEk gomendatzen du, gutxienez, egunean ordubeteko jarduera fisikoa egitea aire zabalean. Askori, bere etxearen tamainak ez dio ia ezta mugitzen ere uzten.

Bestalde, bizirauteko behar duten gurasoekiko lotura emozionalak, gurasoen emozioak biziki bizitzera eta horien ondorioak sufritzera eramaten ditu. Dagoeneko ofizialki aitortu da Espainiako Estatuan, konfinamendua hasi zenetik, haurren aurkako tratu txarren kasuak oso kopuru kezkarria ugaritu direla. Genero-indarkeriaz ahaztu gabe, horrek ere haurrengan eragin zuzena baitu. Munta honetako krisi bat bizi dugun lehen aldia den arren, haurren konfinamenduari eta haren ondorioei buruzko aurretiko ikerketak dauzkagu: gerrak, haur errefuxiatuak, *hikikomoriak* eta abar. Ikerketa horiek egungo egoerara estrapolatzeko moduko zantzuak eskaintzen dizkigute. Konfinamenduak badu ondorio kaltegarriak haurren osasunean, ongizatean eta garapen fisiko eta psikikoan.

7. Etxean, haurrak seguruago daude. Gurasoak dira umeak ondo egoteko erantzule bakarrak.

Faltsua: Ingurumen Psikologian 40 urtez egindako ikerketek erakusten dutenez, haurrak hobeto garatzen dira aire zabalean, maila guztietan: fisikoa, emozionala, soziala, sortzailea eta intelektual.

Frogatuta dago espazio itxietan istripu gehiago izaten dutela, eta mugitzeko askatasun txikiagoari gehitu behar zaio gehiegizko kontzentrazioagatik eragindako arreta-nekea, umorean eta portae-ran eragin kaltegarriak dituen.

Gainera, okerra da umeak gurasoen kontu pribatua direla pentsatzea. Ez dira familiaren jabetza, ez direlako objektuak, eskubideak dituzten subjek-

tuak baizik. Behar bereziak dituzten herritarren kategoria berezia da haurrena, nazioarteko legeek araututakoa. Beste kolektibo batzuk baino ahulagoak dira, esan dugun bezala, hazteko garaian daudelako. Eta komunitatearen parte dira, beren berezko ezaugarriekin. Afrikako esaera zaharrak dioten bezala: seme-alaba hazteko tribua behar da. Hala izan da gure espeziearen sorreratik. Antropologo batzuek diotenez, haurren (beste espezie batzuk aldiz ez dira erabat heldugabe jaiotzen) zaintzaren antolaketa kolektiboa da gizaki eta zibilizatu egin gaituena.

Badakigu haurren bizipenek eta ga-beziek ondorio garrantzitsuak dituztela haien bizitza osoan. Demokrazia bermatzeko, haur guztiek eskubide eta betebeharrak izan behar dituzte. Baina gaur egungo egoeran, guztiek ez dute eguzkia, aire zabala, berdeguneak, naturan bat-bateko jolasa edo familia lasai eta sosegatu batean egoteko aukera bera, eta faktore horiek ezinbestekoak dira garapen osasungarriarako.

8. Orain garrantzitsuena eskolako lanak egitea eta ikasturtea "ez galtzea" da.

Faltsua: ikasketak eta emaitza akademikoak haurren etorkizunerako funtsezkoak diren arren, egoera kritiko honetan, ez dira garrantzitsuena.

Gutxienez ikasturtearen heren bat aldatu izanak estatu osoan zortzi milioi ikasleri eragiten dienez, irtenbideak kolektiboak baino ezin dira izan. Familietan, funtsezkoena da kide guztien osasun fisikoa eta mentala zaintzea, haurrek itxialdiko bizipenak askotariko eratan adierazteko (marrazkiak, ipuinak, musika...) eta lantzeko aukera emanez. Elkarrekiko komunikazioa, konexioa eta gozamen kolektiboa sustatzea guztiontzat da onuragarria. Eta haurrei espazio bat utzi, beren interesak landu ditzaten.

Zientzietako, letretako eta arteetako jeinu handi asko etxean giltzapetuta izan ziren gaixotasunagatik. Horri esker, eskolako egunerokotasunetik pixka bat atera ahal izan ziren, aurrerago beren bokazio eta lanbide bihurtuko zen pasio bat deskubritu eta garatzeko. Orain garrantzitsuena da bizipen traumatiko hori integratu ahal izatea beren bizitzetan, maila handiagoan edo txikiagoan. Integratu eta hortik irakaspen positiboak atera. ●

BILBOKO LANGILE AUTODEFENTSA SAREA

“Langile klaseak tresna berriak behar ditu kapitalaren erasoengandik defendatzeko”

Bizi baldintza geroz eta gordinagoek eta indibidualismoak ezaugarritzen duten jendartean, langileei beren eskubideak defendatzea zaila zaie sarri, eta sistema kapitalistari aurre egiteko ezintasun sentipena ohikoa izan ohi da. Horren aurrean, langileen autodefentsa antolatzea du xede Bilboko Langile Autodefentsa Sareak. Udazkenean eman zuen ezagutzera bere burua; hilabete gutxiren buruan martxa hartuta ari dira, koronabirusak azaleratutako krisiaren ondorioz hainbat lan gatazkaren berri izaten ari baitira.

AMAIA LEKUNBERRI ANSOLA

Zer da Langileen Autodefentsa Sarea eta nondik sortzen da?

Bilboko Langile Autodefentsa Sarea langile klasearen auto-antolakuntza eta autodefentsarako sortu dugun tresna da. Klase elkartasunean oinarritzen da, egiturazko indarkeriaren ondorioz sortzen diren gatazka eta arazo indibidualak kolektiboak direla ikusarazteko.

Kapitalismoaren krisien, eta hirien gentrifikazio eta merkantilizazio joeren ondorioz, langile klasearen desjabetzea eta prekarizazioa areagotu egin dira. Bilbo ez da marko horretatik irteten, gure hiriak jasan duen prozesua azkarra eta bilatua izan dela uste dugu, eta horrek talka handia sortu du jendearen oinarritzko beharrek –lana eta etxebizitza adibidez–, esplotazio mota berriak sortuz. Testuinguru horretatik sortzen da proiektu hau.

Zein helburu ditu?

Ez dugu uste instituzio kapitalisten baitan baldintzak hobetzeko aukerak egon daitezkeenik. Beraz, gure azken helburua langile klasearen emantzipazioa eta bateratzea da. Hori bai, gaur egungo testuingurua aztertuz eta errealistak izanez, nabaria da langile klaseak tresna berriak behar dituela kapitalaren erasoengandik defendatzeko, era eraginkor eta hiritontalean. Langileak borrokan murgildu

eta haien bizi-baldintzak hobetzeaz gain, haien potentzialtasun iraultzailea atera eta borroka kolektiboan parte hartu dezaten laguntzea dugu helburu. Norbanakoaren autodefentsa eta besteekiko elkartasuna piztu nahi dugu.

Horrez gain, klase borroka Euskal Herriaren agendan jarri nahi dugu eta borroka kalera atera, instituzioetatik kanpo irabaztea posiblea dela baieztatuz.

Bestetik, bereziki instituzioek eta sindikatuak jasotzen ez dituzten kasuentzat tresna izan nahi dugu. Muga horien bidez patronalak eta instituzioek etekina ateratzen dute, esplotazio mota berriak ezarriz zaurgarritasun handiena jasaten duten kolektiboen artean.

Zein da sarearen funtzionamendua?

Gatazka duen langilea da protagonista, berak markatzen ditu bai helburuak zein estrategia, bere kasu eta egoeraren arabera. Sarea langileak gatazka aurrera eramateko behar duen euskarria izango da, erantzun kolektibo bidez autodefentsa gauzatuz.

Beste zenbait sarek bezala, mekanismo ezberdinak darabiltzagu: gatazkaren borroka prozesuan langilearen ondoan egoten gara, gatazkaren difusioa egiten dugu eta enpresa presionatzeko estrategia garatzen ditugu.

Gaur egun ikusten ditugun egoera asko auzibidera joz kudeatu daitezke, gu bide horretatik at kokatzen gara, baina ez baliogabetuz. Langile borrokan historikoak diren praktikei erreparatzea da gure apustu politikoa, hau da: langileriaren auto-antolakuntza, elkarlana, elkartasuna eta ekintza zuzena.

Koronabirusaren eraginez azaleratutako krisiaren ondorioz langile klasea lehen baino ataka larriagoan egotera igaro den honetan, zuen egitekoa are beharrezkoagoa bilakatu dela ondorioztatu daiteke. Sarearen jarduna areagotu da?

Bai, kontaktuak nabarmen igo dira. Orokorrean, desinformazioa eta beldurra nagusi direla esan dezakegu. Jendeak espero ez zuen egoera batekin topo egin du eta gehiengoak informazio bila deitzen du.

Zer nolako kasuekin ari zarete topo egiten?

Gaur egun, gehien errepikatzen diren kasuak dira ERTEak (aldi baterako enplegu-erregulazioko espedienteak), bigabeak diruditen kaleratzeak –aislamenduan egoteko baja hartzeagatik adibidez–, oporraldi behartuak eta lan baldintzen okerragotzea, batez ere lan kargari eta segurtasunari dagokionez.



Bestalde, kontratu-rik gabe lan egin duten eta egoera horretan lana galdu eta inolako diru sarrerarik gabe geratu diren langile batzuk ere gurekin harremanetan jarri dira.

Kasu guztiak ezberdinak dira, batzuk besteak baino nahasiagoak. Langileen egoerak ere oso desberdinak dira eta zaila da kasu paradigmatico baten adibidea ematea. Hala ere, sistema kapitalistaren eta "koronabirusaren krisiaren" ondorio dira den-denak.

Lehendik zaurgarri ziren horiek are zaurgarriago bilakatu ditu krisialdiak. Zuen jardunari erreparatuz gero, bada koronabirusaren ondorioz bereziki kaltetua izaten ari den langile perfilik edo lan arlo konkreturik?

Gure kontaktuen arabera ezingo genuke profil konkretu bat azpimarratu, oso arlo anitzetatik kontaktatu gaituzte: dendak, tabernak, klinikak... Hala ere, autokritika moduan bada ere, sektore zaurgarriengana iristeko zailtasunak ditugula uste dugu, langile migratuengana adibidez, eta panorama ikusita, ziur gaude horien baldintzak askoz gordinagoak izango direla.

"Langileok ez dezagun krisi hau ordaindu", darabilzuen leloak argi uzten du zein den zuen lehentasuna momentuotan. Alabaina, larrialdi egoera eta itxialdi agindua tarteko, borroka eta erantzunak artikulatzeko trabak nabarmenak dira. Nola ari zarete antolatzen?

Telefono bidez ari gara antolatzen. Langileekin kontaktua mantentzen eta kasuak gatazka publikora bideratzen saiatzen gara. Itxialdia amaitutakoan kalera irteteko, gatazka ezberdinak aurrrera eramateko eta mobilizazioetara batzeko beharra izango dugu. Hala ere, presioa hasteko badaude tresna erabilgarriak: e-posta bidez nagusiarekin kontaktatu, sare sozialak... Horrela salaketa kanpaina bati hasiera eman ahal-ko genioke.

Testuinguru honek lan harremanak moldatzeko aukerak mahai gaineratu ditu. Ildo horretan, zein da etorkizun hurbilari dagokionez dituzuen aurreikuspenak?

Gure beharrak asetzeko mekanismo egonkor eta efektiboak eratu nahiko genituzke, gertatzen ari denaren gaineko

egia azaleratuz eta sistema kapitalista bera iraultzeko beharra mahai gainean jarritz. Bide horretan, langile klaseko sektore kolpatuenen esku gure bitarteko guztiak jarri nahi ditugu, lanpostuetan jasandako erasoei kolektiboan erantzuteko. Hiru espektatiba zehatz ditugu:

Batetik, etorriko diren lan gatazketan langileekin batera erantzutea, erasoen aurrean borrokatzeko mekanismoak martxan jartzea eta gatazka irabazteko gai garelako frogatzea. Dagokiguna berreskuratzeko joan, kontziente izanik prozesua luze bezain beharrezkoa dela.

Bestetik, sare erreal bat garatzea, klase elkartasuna egunez egun jasaten ditugun erasoei aurre egiteko tresna baita. Borrokaren bitartez, gure arazoei irtenbidea emateko bide bakarra indar kolektiboa dela frogatu nahi dugu.

Azkenik, badakigu klase antolakuntzak soilik salba gaitzakeela. Horregatik, bizi-baldintzen aurkako erasoak kapitalismoari berezko zaizkiola sozializatu behar dugu, ezohiko egoerak edo enpresarien ekinbide txarrak horren ondorio direla ikusaraziz.

"Normaltasunera" itzultzearen ideari muzin egiten diozue. Zer eraiki nahi duzue "normaltasun" horren tokian?

Sistema kapitalista gainditu eta langile klasearen burujabetza bermatu nahiko genituzke. Langile klaseak berea dena berreskuratzea, baliabideen birjabetzea eta haien kudeaketaren autonomia izatea.

Krisiak agerian utzi ditu sistema kapitalistaren barrenak. Zapalkuntzak begi bistako bilakatzeak langileria mobilizatzeran bidean lagundu dezakeela uste duzue?

Bai, dudarik ez dago langileria mobilizazioan eta antolakuntzan lagundu dezakeela. Dena den, kontuz ibili beharko ginateke, eta modu automatikoan gertatuko ez dela jakin. Jendartean zabaldu diren antolakuntza eta elkartasun dinamikekin batera kontrako jarrerak ere hedatu dira, errepresio lanak txalotzen eta egiten dituzten auzokideak, edo disziplinamendu orokortua kasu. Horregatik, borroka grina mantendu behar dela uste dugu. Erresilientzia oinarrituz eta gure burujabetzaren alde tinko egiten jarraituz. ●

KULTURGINTZA COVID-19AREN KRISIAN

Larrialdirako neurriak badaude, erabaki estrategikorik ez

Gauza bat nahiko argi dago: etxealdia hasi baino lehen ere ekonomikoki gaizki pasatzen ari zirenak bihurtu dira koronabirusaren krisian kaltetuenak. Eta kultura ez da inoiz izan dirua irabazteko sektore oso aproposa. Beraz, konfinamenduak probokatu duen jarduera kulturalen etete orokorrak hankaz gora jarri du dena. Aste honetan greba digitala egin du euskal kulturgintzak eta erakundeek laguntza bereziak iragarri dituzte. Gerora begira, ordea, planik ez dagoela dirudi.

Pandemiari aurre egiteko ezarri den distantziamendu sozialaren eraginez, martxoko eta apirileko programazio kulturalak domino fitxak bezala erori dira, eta ez dirudi gauzak ondorengo hilabeteetan ere ohiko martxara erraz itzuliko direnik. Itxita daude liburutegiak, liburu-dendak, geratzen diren disko denda apurrak, zine eta kontzertu aretoak, museoak, galeriak, antzokiak, kultur etxeak, dena. Eta horrek esan nahi du jende asko langabezian geratu dela edo diru-sarrerarik gabe. Hori gutxi balitz, kulturarekin lotutako komertzioak konpetentzia desleiala jasaten ari dira: Amazon edo ikus-entzunezko *streaming* plataformak topera lanean ari diren bitartean, liburu-dendak eta zine aretoak itxita daude. Eta presioa areagotu zaie sortzaileei ere, etxealdia hasi zenez geroztik sarean zuzeneko emanaldiak egiteko eskaintzak asko ugaritu zaizkielako, hori bai, lan horren truke ezer kobratu gabe.

COVID-19aren krisitik neoliberalismoaren azkenaldiko joerak are indartuago aterako direla profetizatzen dutenek, beren hipotesia konfirmatzeko argudio sendoak aurkituko dituzte kulturaren alorrean: prekarietatea zegoen lekuan orain langabezia dago; gutxi kobratzen ziren lanen orde, doan ari diren profesioletara pasa gara azken hilabeteetan; euskarazko lanek ikusgarri izateko problemak zeuzkaten lehen, eta orain berriz, hizkuntza nagusietako superproduzioaren azpian lurperatuta gera daitetzeke. Zerrenda asko luza liteke horretan hasiz gero, baina laburbilduz: dinamika ez da jasagarria, ezta epe laburrean ere. Eta momentuz eman zaion erantzun ins-

tituzionalak asko jota adabaki bat jartzen dio zuloz josita dagoen soinekoari.

Kulturgintzan lan egiten duten ehunka profesionalak koronabirusaren krisiaren aurrean eskatutako laguntzei pribatuan muzin egin ondoren, sortzaile horiek bi eguneko greba digitala iragarri behar zuten egun berean (apirilak 15) 2,5 milioi euroko balioa duten laguntzak iragarri zituen Eusko Jaurlaritzak. EAJk eta PSEk Podemosekin adostutako EAEko aurrekontuetan aurreikusita zegoen diru-partida hori, izena aldatu diote COVID-19aren tiradizo komertziala baliatuz; eta ezin ukatu, jokaldi ona izan da Bingen Zupiriak gidatzen duen Kultura eta Hizkuntza Politikako sailarentzat, asalto honetan behintzat esan ahalko baitu ez dagoela geldirik bere ardurapeko sektorean hazten ari den ezinegonaren aurrean.

Konparazioak ere alde ditu: Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako gobernua da oraingoz neurri inportanteenak iragarri dituenak. Nafarroako Gobernuak autonomoentzako laguntzen barnean sartu ditu kultura mundukoak, babes espezifikorik eman gabe. Eta Euskal Elkargoak Ipar Euskal Herriko kulturgileei zuzendutako neurri-sorta iragarri duen arren, kopurua askoz xumeagoa da, Frantziako Estatuko egitura administratiboan erakunde horrek daukan garrantziaren proportzioan. Hori bai, Euskal Elkargoak iragarritako neurrien artean kulturgileekin kontaktua estutzea ere



aurreikusi da, sortzen diren premiak eta egoeraren eboluzioari buruzko informazioa gertutik jarraitu ahal izateko. Beste bi administrazioek ez dute horrelakorik iragarri. Eta beharbada, auzi honen iltzea hor dago.

POLITIKA KULTURALAK ADOSTASUN ESKE

Puntu honetara iritsita, politika kulturalak pixka bat jarraitu dituenari gogora etortzen baitzaio duela bospasei urte gertatutakoa. Eta akaso lagun dezake ulertzen gaur gosaltzeko orduan indarrean dauden zenbait posizio zein materialez eginda dauden.

Testuinguru pixka bat: 2007-2008ko krisi ekonomikoaren ubera luzean, kulturaren alorreko profesional eta eragile asko elkartu zituen 2014an GEUK plataformak, euskal kulturaren sektorearen diagnostiko amankomuna egin eta egoera hobetzeko beharrezkoak izango ziren neurriak proposatzeko. Proiektuak zentzua izan zezakeen instituzioetatik begiratuta ere, hain atomizatuta dagoen



Euskal kulturgintzako hainbat ahotsek greba digitala deitu zuten egun berean, diru-laguntza bereziak iragarri zituen Eusko Jaurlaritzak.

esparru batean eragile eta norbanako bakoitzarekin banaka bildu ordez, askoren ordezkarri izan zitekeen ahots bat gorpuzten hasi baitzen. Hurrengo urtearen hasieran talde hori iritsi zen "Premiazko neurrien egitasmo" bat aurkeztera ere, kulturaren alorreko hainbat esparrutan har zitezkeen 31 erabaki zehatz proposatuz, horien inguruan erakunde publikoekin hitz egiteko asmotan. Aurretik eginak zituzten plataformako kideek bilerak erakundeekin, tartean Eusko Jaurlaritzarekin, baina egitasmo hura aurkeztu ondoren, lehenago ere oso joria ez zen hartu-emana moztu zen. Instituzioen mezu inplizitua, gutxi gorabehera, izan zen politika kulturalak beraiek erabakiko zituztela, ez beraiek eta kulturgintzan dihardutenek.

Geroztik euskal kulturarentzat babes neurriak eskatu dituzte beste ahots batzuek ere, Elkar taldeak adibidez, baina ez da egon sektoreko profesionalen mugimendu antolaturik etxealdiak eragindako egoera larria iritsi den arte. Apirilaren 21erako eta 22rako iragarritako greba digitalak ehunka sortzaile eta kulturaren alorreko langileren babesa edukitu du, eta deitzaileek publiko egin duten dokumentuak momentu honetako egoeraz hitz egiten badu ere, epe luzeagorako politika kulturaletan jarriak ditu largabistak. Bigarren puntu hori, ordea, ukitu gabe geratuko da segur aski, erakundeek

iragarritako larrialdiko neurriek estaliko baitute. Eta ez dirudi instituzioak prest daudenik beste eremu batzuetan –adibidez euskalgintzan, Euskaraldia bezalako ekimenekin– gizarte eragileekin abiatutako lankidetzaren ereduak kulturgintzaren eremura eramateko.

Gutxienez "greba" hitza dagoeneko agertu da krisi honetan kulturarekin lotuta. Eta eremu semantiko horretan esploratzen duenak beste hitz batzuk ere aurkituko ditu laster, oraindik gehienon imaginarioan buzo urdinarekin aritzen diren langileekin lotzen direnak. Euskal kulturgileek adierazi dute ez dutela izan nahi koronabirusak ekonomiari emango dion astinaldiaren pagaburuak. Lehenbiziko urrats gisa, ez da gutxi. ●



BARATZE ORO BAITA URRE, NOR IZAN NAHI BADUGU

Gure amonari eta bere baratzeari ohore



JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Gure amona zena, Joxepa Amunarriz Arostegi Zubietako Barrenezteko sukaldetik baratzerako tar-tean gogoratzen dut. Baratze izugarri bat zuen bere kontu. Igandea izan ezik, egun guztiak bere baratzerako zituen. Baratzetik bizi zuen etxea. Baratzetik bizi zuen sendia.

Baratzea landu eta etxeko mozkinak Donostian etxetz saltzera joaten zen. Buruan sorkia eta haren gainean saski-kada barazki eta lekale, eskuetan marmitakada bana behi esne, treneraino. Donostian kalez kale, etxetz etxe bere etxeko emana saltzen zuen. Senarra zenak, Usurbilgo Azparrengo Benito Salsamendi Alkortak, honela esan omen zion lehen salmentarekin ekarritako dirua erakutsi zionean: "Egunero horrela ekartzen bazu duzu etxea aurrera aterako dugu".

Etxea ez da etxea. Etxea ez da eraikuntza soil bat. Gure amonaren etxea baratzea zen. Etxea egitura da. Zerbaiti eusten dion egitura: gurtetxea gurdia- ren egitura da, aretxea arearen egitura da. Geure amonaren etxea, bere sendiari eusten zion egitura, baratzea zen. Bar- tzearen parte zen baserriaren eraikun- tza. Eta kaletik ekartzen zuen mundua baratze- ra, beste emakumeekin haziak trukatzeko zituen eta aniztasunarekin

osatzen zuen bere jakintza. Hazi guztia da hizkuntza, historia, genetika, hauta- keta, hibridazioa, iragana eta etorkizuna.

Euskaldunontzat baratzea paisaia osoa da, urrutieneko menditik etxerainokoa la- burbiltzen duen lurraldea. Baratzean ditu- gu: eraikitze zura eta berotzeko egur di- ren basoko zuhaitzak (haritz, arte...), fruitu arbolak (sagarrondo, udareondo, intxa- rondo, hurritz, pikondo...), erritualeta- ko landareak (hagin, lizar, ereinotz, lore...), lokarrietarako (zume, ihi, atxapar...), osa- sunerako sendabelarrak, xaboiak eta kos- metikoetarakoak (malba, menda, asun, pasmo-belar, zaingorri...), erleak eta gure espiritua eta estetika elikatzeko loreak (krabelin, kala, arrosa, amañilili, geranio, begonia, esparragera...), ontziteriarakoak (kurkubi, ezki, urki, ezpel...), jatenak (be- laze, arbi, pagotxa, alpapa...) eta jatekoak (babarrun, arto, kui, barazki...). Hori dena da baratzea. Gure kulturaren oinarria, "kultura", izan ere, lurra lantzearen ar- tea baita. Izan, gu izateko -pertsonek eta komunitate izateko, kultura eta gutako bakoitza izateko- baratzea da hatsapen eta muin. Baratzea paisaia kulturala da.

Eta paisaia kulturala gure kulturak egin duena da. Paisaia gure amonak eta bere amonak, eta haren amonak sortua da, bai. Guk bizi dugun paisaia kulturala da, gure amonaren kulturak eraikitakoa. Berea zena gure baratzea da. Gu izan ginenak, gu orain garenak eta izango garenak gu izateko. Gure munduaren ikuskera eta hizkera.



MATANE GARTZIAN DIA

Nor bagara, eutsi diezaiozun baratze- ri. Baratzea artzaina da, eta basoneska, lorezaina, barazkigilea, mahastizaina, sa- gardogilea. Zaindu ditzagun, zaindu gai- tzaten. Nekazaritza, hemengo gure neka- zaritza. Arrantza, hemengo gure arrantza. Nor bagara. Nor izan nahi al dut?

Belaunaldiz belaun, iraultzen dugu geure bizimodua eta kultura. Gure izaera egokitzen dugu, eta irauten dugu. Irau- tetik bizitzera urratsa egiteko sasoia da. Iraultza hori baratzea da.

Baratzeari eta nekazaritzari bizkarra emanda ari den jendea, hedabide-politi- kari-teknikari-administrazio... Gu denoi labankadaka ari zaigu bizkarrean, atze- tik! Aurre egin diezaiegun. Zuk eta nik. Bion, denon amonen izenean.

Hizkuntza, kultura, artea, lana, jakin- tza, ekonomia, elikadura, izaera, mun- du ikuskera, natura, paisaia, aniztasuna, bizitza kalitatea, burujabetza eta... gure amona. Hori dena landu behar dugu. Hori egiten duena maitatu behar dugu. Horren mozkinak gure mahaira dakarre- na goratu behar dugu. Gurebiziko altxo- rra dugu nekazari oro. Berebiziko har- tzaile izan gaitezten. Izan ere, baratze oro da urre. ●

sasoikoa ...
bertakoa ...
NAFARROAKOA



KONFINAMENDUA ETA BARATZEAK

BABES ZABALA JASO DU BARATZEAK LANTZEKO
ESKUBIDEAREN ALDEKO SINADURA BILKETAK

GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRANN

Konfinamendua hasi zenetik zalan-tza ugari izan dituzte Euskal Herrian zeharreko baratzezainek: “Gure baratzea lantzeko aukerarik badugu?”, izan da galdera nagusia. Badirudi hartutako neurriek autokontsumorako baratzezainen aurka egin dutela: baratzea etxetik aldentzea dutenek bertatik barazkiak jasotzearekin konformatu beharko dute. Edo ez? Herritar asko ez dago konformatzeko prest, eta martxan jarri dute “Baratze guztiak behar ditugu” sinadura bilketa. Uliako Lore Baratzeetatik sortu da ekimena.

BARATZEAK EZ OTE PREBENTZIO?

Konfinamenduan hartu diren neurriak kontuan izanda, badirudi supermerkatuetan saltzen dituzten barazkiak baratzeetakoak baino garbiagoak eta seguruagoak direla. Baina ez al du arrisku gehiago supermerkatu itxietan jendea pilatzeak, bertako produktu gehienak urrutikoak eta esku askotatik pasatutakoak izanik gainera? Manifestuan diotenez, neurriak idatzi dituztenak ahaztu



ULIAKO LORE BARATZAK

egin dute autokontsumorako baratzeek milaka pertsoneri bitartekaririk gabe jaten ematen dietela, eta ondorioz, koronabirusarekin kutsatzeko aukerak murrizten.

Udako baratzea prestatzen eta lantzen hasteko garaian harrapatu gaitu koronabirusaren itxialdiak, eta orain egiten ez den lanak ondorio zuzenak izanen ditu hurrengo uztetan. “Hurrengo asteetan produktu freskoen edozein motatako hornidura falta egongo balitz, etorkizuneko uztak ziurtatu ahal izateak gutxiti egingo du herritarren zaurgarritasuna”. Beraz, autokontsumorako baratzeek gizartearen eta lurraldearen duten onura ere kontuan hartzeko eskatu dute manifestuan.

ESKAERA ARGIA JAURLARITZARI

“Azter ditzala orain arte baratzeen erabilerari jarritako murrizketak, baratzeak uztaz biltzeaz eta mantentzeaz gain, sasoiako landaketa eta erabilerak ere egin ahal izatea, beti ere osasun irizpideak mantenduaz, udako eta udazkeneko uztaz ziurtatzeko”. Horretarako, autokontsumorako baratzeen jabetza izaera konplexua kontuan hartzeko eta landare eta haziak erosteko pertsonen mugikortasuna baimentzeko ere eskatu diote.

Uliakolorebaratzak.wordpress.com webgunean dago manifestu osoa irakurgai eta bertan atxikitu daitezke eragile nahiz norbanakoak. Baratze guztiak eta gehiago beharko ditugulako honetatik ahalik eta ongien ateratzeko... ●



**TOKIKOA ETA
EKOLOGIKOA
KONTSUMITU.
ZIURTASUNA
KONTSUMITU.**

- ✓ Sasoian sasoiak ekoizten da.
- ✓ Ez du transgenikorik onartzen.
- ✓ Ongarri naturalak erabili eta herbizida eta pestizida sintetikoak sahiesten ditu.
- ✓ Abereen ongizatea ziurtatzen du.
- ✓ Biodibestitateari eusten dio.
- ✓ Elikadura-balio handiagoa du.
- ✓ Tokikoa defendatzen du.
- ✓ Berme bikoitza dauka.



Kirolarien elkartasun keinuak

GUZTIOK HEROI?

Makina bat dira, koronabirusaren aurkako borrokan laguntzea xede, diru ekarpenak egiten ari diren kirolariak. Zentzuzkoa al da, ordea, heroi gisa hartzea, hartu izan diren moduan judutarrak salbatu edota diktaduren aurka borroka egin zuten kirolariak?

 JON TORNER ZABALA

Pau Gasol saskibaloia jokalaria eta Rafa Nadal tenislaria, esaterako, Gurutze Gorriarekin elkarlanean, 11 milioi euro biltzeko kanpaina abiatu dute.

Ez da nire asmoa gisa horretako keinuak epaitzea. Beste batean hitz egingo dugu “elkartasun” mota horri buruz, zergak atzerrian ordaintzen dituzten kirolarien esku-zabaltasunaz tartean, edota osasun-zerbitzu publikoetan murrizketak aplikatu dituzten politikariak babestu izanaz... Oraingoan, *El Mundo* egunkariak plazaratutako artikulua bat ekarri nahi nuen hona, eragin didan ondorezagatik: *Esconder judíos, salvar inmigrantes o cantar en ‘topless’ contra el cáncer: otros gestos solidarios antes de Nadal y Gasol* (Judutarrak ezkutatzeari, immigranteak salbatzea edo minbizia-aren aurka ‘topless’-ean abestea: Gasol eta Nadal baino lehenagoko beste elkartasun keinu batzuk).

Nola demontre ausartu da Orfeo Suárez kazetaria guztiak zaku berean sartzen?!

“[Nadalek eta Gasolek] ulertu dute gizarteari itzuli behar diotela hark eman dien guztia”, dio. “Beste askok halaxe egin zuten, jazartuen alde, diktaduren aurka, immigranteen edota eskolarik gabeko umeengatik, pertsona desgaituen edo sexu askapenaren alde. Heroiak dira”. Eta aipatzen ditu, besteak beste:

Gino Bartali, II. Mundu Gerran ehundaka judutar salbatu zituen ziklista ita-



Rafa Nadalek eta Pau Gasolek COVID-19 birusak kolpatutakoei laguntzera bideratu dute euren dirutzaren parte bat. Sócrates brasildarra diktaduraren aurka egin zuen borroka 1980ko hamarkada hasieran.

liarra. 2003an, bera hil eta hiru urtera, jakin genuen balentria horren berri.

Max Schmeling boxeolaria. 1938ko azaroan, judutarren aurkako *progrom* (Kristal hautsien gaua) eraso hastean, Berlingo hotel batean bi gazte judutar ezkutatu eta AEBetara ihes egiten lagundu zien. Ez ziren bakarrak izan.

Jackie Robinson beisbol jokalaria estatubatuarra. Beisbol Liga Handietan aritu zen lehenbiziko jokalaria beltz. Arrazakeriaren aurka eta beltz komunitatearen eskubideen alde borroka egin zuen.

Sócrates futbolari brasildarra. Demokraziaren aldeko eta Joao Figueiredoren diktaduraren aurkako ekintzailea. Langileen Alderdian militatu eta 1980ko hamarkada hasieran “Corinthiar Demokrazia” sortu zuen, bere klubeko beste zenbait futbolariarekin.

Megan Rapinoe futbol jokalaria estatubatuarra, LGTB kolektiboaren eskubideen aldeko ekintzailea. Partida baten

atarian bozgorailuetatik AEBetako ereserkia jartzen dutenean, belaunikatu egiten da, Colin Kaepernick jokalariairekin elkartasunez. ‘Quarterback’-ak gisa horretan salatu zuen beltzen aurkako polizia-indarkeria.

Eta, zer nahi duzue esatea, ikustea kazetariak nola lotzen dituen Gasol eta Nadal, Bartali edota Sócratesekin... Bai, tira, egia da diru ekarpenaz gain kirolariek laguntzen dutela injustiziak azaleratzen, kausa zehatzak ikusgarriago egiten eta jende bat erakartzen, baina hortik diktaduren aurka borroka egin zuten kirolarietara lotzea, kontuan izanik zer jartzen duten jokoan batzuek eta zer besteek...

Ez naiz kirolarien elkartasuna epaitzen ari. Ongietorriak izan daitezela, esaterako, Osasuna eta Eibar futbol taldeen moduko ekimenak (koronabirus-testak herritarren esku uztea), baina ez ditza-gun guztiak zaku berean sartu, “heroi” etiketapean gainera. ●

Iritzia

Korona dirusa?



IÑAKI MURUA
BERTSOLARIA

Hauxe da hau egoera! Etxean gaudelako jende gehiena txaloka eta bibaka osasun langileei (ongi mereziak noski), berdin herri txikietan zein hirietan, nahiz hiri izan nahian beren izatea alboratu eta zer diren ez dakitela dabilzan horietan. Hau galde-tuko nizueke ordea, pentsatzeko astia eta denbora biak ditugunez, osasungintzako langileez gain, zenbat gehiagok merezi ditu txalo horiek?

Baina noiz hasi behar dugu herriko alkateari

kasu gehiago egiten?

Noiz baserritarrei eta beren bizipen nahiz eskarmentuari garrantzia ematen eta behar beste entzuten?

Eta galderekin segiz, zeini leporatzen diogu Jaurilaritza gaidik pasa eta erabakiak Madrildik etortzea, geuk ere gauza bera egiten badugu? Hau da, zertarako ditugu hainbeste herri egitura, udal, batzar... erabakiak beti leku berean hartzen badira? Zergatik emaitza hain desberdinen aurrean denok arau bera bete behar dugu? Baratzera han dagoena bildu edo jasotzera joan omen gaitezke baina lanera ez! Azokak, atzo debekatu, gaur onetsi... Hauek aterako dizkigute azaz lapikotik!

Baina noiz hasi behar dugu herriko alkateari kasu gehiago egiten? Noiz baserritarrei eta beren bizipen nahiz

eskarmentuari garrantzia ematen eta behar beste entzuten? Noiz hasiko ote gara egunotan salbatu gaituzten denda txikietan eguneroko erosketak egiten, *zero km* delakoa erabat betetzen? Noiz herriko ostatuak garai batean bezala denda bihurtzen, edo abere bahituen epe baterako konfinamendu toki, herritarren biltoki eta transmisio gune? Agian, horrek bideragarri bihur ditzake hainbat herritako ostatuak eta maizterrak izateko aukerak biderkatu? Noiz izango gara herri txikiok kaletarren eta beren maskoten pasealeku edo hirietako zaborren nahiz erraustegien bilgune ala haien beharren ur putzuak eraikitze espazio soil (so-hil)? Noiz izango ote da gure lurra orde, gu lurrarenak garen eguna... Heriotza ala justizia izango da egun hori?

Bitartean, hauxe Erret agindua:

Gehienek *birusa* deituko diogu, pandemia hau sortu duenari denbora batean behintzat; batzuek *dirusa*, herritarroi kostako zaiguna txertotan eta ekonomia egonkortzen, berriz ere bankuek irabaziak izan ditzaten, aurreko aldiari jasotakoak gutxi nonbait; *heriobusa* deituko diote bereziki zaharren egoitzetan baina gizarteak orokorrean deitu beharko lioke horrela, medikuntza prebentiboa erabili orde emaitzak azkar eta onurak berehala hobetsi ditugunon gurutze-bideari; *inklusa*, bai halaxe gauzkate etxean sartuta eta irteteko baimen berezien beharrean, garai bateko gurasorik gabekoen antzera; *tifusa*...hamarreko bat osatzeko lain errima eta denbora iraungo omen duenez... ●

IÑAKIBEREZIARTUA

ENBALAJEAK
BILTEGIRATZEA ETA LOGISTIKA
ZERRA ETA ERAIKUNTZA



25 urte baino gehiago paketatze
industrialaren sektorean

Jauregi auzoa, 75
Hernani (Gipuzkoa)
☎ 943 552 828
www.inakibereziartua.com
mjm@inakibereziartua.com

mitxelena
NEURRI HANDIKO MEKANIZAZIOA



EZIAGO POLIGONOA, 21
HERNANI

info@talleresmitxelena.com
www.talleresmitxelena.com

Nahasmena piztu, goikoen hitzarekiko dependentzia sortu, klase arrakala handitu eta igoalen arteko mesfidantza landu. Esan dezagun argi, izurriteari aurre egiteko alarma-egoeraren bitartez erakutsitako autoritarismoak ez du osasun justifikaziorik. Laborategi ekonomiko, sozial eta politiko baten erdian gaude, gure etorkizun hurbilaz gain ondorengoa ere marrazteko balioko duena. Dena ez da berdina izango. Krisi orotan bezala, arriskuekin batera datoz aukerak. Batzuek diote "normaltasunera" itzuliko garela. Baina, zuk, "normaltasunera" itzuli nahi al duzu?

📷 DANI BLANCO ✍️ AXIER LOPEZ





BIHARAMUNARI SO

COVID-19 ostean
paradigma aldaketa?

Pandemien aurka, ekologia

Zientzialariek saguzarrak eta pangolinak seinalatu dituzte birusaren iturburu potentzial gisa, baina benetako arazoa beste nonbait dago: ingurumenari gizakiok egindako kaltean. Ez ote da ordua galdetzeko zergatik ari diren pandemiak geroz eta azkarrago sortzen?

 SONIA SHAH / THE NATION

Pangolin bat izan ote da? Saguzar bat? Are, suge bat, zurrumurrua gezurtatu aurretik entzun genuen bezala? Ikusteko dago nor izango den lehenbizikoa animalia basati bati leporatzen koronabirus honen jatorria izatea. COVID-19 deitu diote eta ehunka milioi pertsona berrogeialdian edo segurtasun hesien atzean gordeta utzi ditu, bai Txinan, baita beste herrialdeetan ere. Jatorriaren misterio hori argitzea funtsezkoa bada ere, mota horretako espekulazioek ez digute uzten ikusten pandemiaren aurrean geroz eta zaurgarriagoak bagara, horrek baduela kausa sakonagorik: habitaten suntsipen azkartua.

1940tik hona, ehunka mikrobio patogeno agertu edo berragertu dira aurretik inoiz atzeman ez ziren eskualdeetan. VIH, adibidez; edo ebola, Afrika mendebaldean; edo zika, kontinente amerikarrean. Horietatik gehienek (%60) animalietan dute jatorria, baina nagusiki (bi heren baino gehiago), animalia basatietatik datoz.

Baina azkeneko hauek ez dute errurik. Fauna basatia epidemia hilgarrien abiapuntutzat jotzen dute artikulu batzuek argazkiak baliatuz, baina faltsua da animaliak gainezka daudenik gu kutsatzeko prest dauden agente patogeno hilgarri. Egiazki, animalia horien mikrobioen partetik handiena beraiekin batera bizi da eta ez die batere kalterik egiten. Problema beste nonbait dago: basoen suntsiketan, urbanizazioan eta etenik gabeko indus-

trializazioan, horiei esker mikrobio horiek giza gorputzetara iritsi eta egokitu ahal izan baitira.

Habitata suntsitzeak espezie asko desagertzeko mehatxupearan jartzen du, horien artean hainbat sendabelar eta animalia, zeinak tradizionaliki gure farmakoparen oinarria izan diren. Bizirauten dutenek berriz, ez daukate aukerarik, ez bada gizakiak ezarri ondoren geratzen zaizkien habitat zokoetara joatea. E-maila: gizakiekin hurbileko eta eten-gabeko kontaktua izateko probabilitateak handitzen dira, eta horrela aukera sortzen da haien mikrobioak gure gorputzetara pasatzeko, non onberak izatetik agente patogeno hilgarri izatera pasatzen diren.


Ebola da horren adibide on bat. 2017an egindako ikerketa batek erakutsi zuen ohikoa goa zela birus hau, zeinaren jatorria hainbat saguzar espezie-tan lokalizatu den, Afrika erdialdeko edo mendebaldeko guneeetan agertzea. Duela gutxi basoen suntsiketa jasan duten lurraldeetan, alegia. Basoak moztzen ditugunean, saguzarrak derrigortzen ditugu gure lorategietako eta etxaldeetako zuhaitzetan pausatzen. Erraza da imajinatzea zer gertatzen den gero: gizaki

batek saguzarraren listua ahoratzen du mikrobioz beteriko fruitu bati kosk egitean; edo, bestela, bisitari desegoki hori ehizatzen eta hiltzen saiatzen denean, haren ehunduretan babeslekua aurkitu duten mikrobioekin kontaktua edukitzea arriskua hartzen du. Horrela lortzen dute saguzarrentzat kaltegabeak diren birus askok giza-populazioetan sartzea –ebola aipa dezakegu adibide gisa, baina nipa birusaren kasua ere hori da (Malaysian eta Bangladeshen agertzen da nagusiki) edo marbugbirusarena (batez ere ekialdeko Afrikan)–. Fenomeno horri “espezieen arteko jauzia” esaten zaio. Ohikoa ez izan arren, eragin dezake animalietatik datozen birusak gure organismoetara egokitzea eta patogenoak izan arte eboluzionatzea.

“

Habitata suntsitzeak era askotan laguntzen du birus berriak mundu osoan hedatzen eta beraz, ez du zentzurik koronabirusaren errua pangolin bati edo saguzar bati egozteak”

Gauza bera gertatzen da eltxoek transmititzen dituzten gaixotasunekin, izan ere, badakigu harremana dagoela epidemien etorrera eta basoen suntsiketaren artean –nahiz eta kasu honetan ez den hainbeste habitat galeragatik, haren transformazioagatik baizik–. Zuhaitzekin batera, hosto hilen geruza eta sustraiak desagertzen dira. Ura eta sedimentuak errazago igarotzen dira biluzik geratu diren lur horren gainetik, gainera



orain eguzkipean, eta horrela putzuak sortzen dira, paludismoa garraiatzen duten eltxoen ugalketa erraztuz. Hamabi herrialdetan egindako ikerketa baten arabera, gizakientzat patogenoak diren agenteen bektore diren eltxo espezieak bi aldiz gehiago dira basoak suntsitu dituzten guneetan, ukitu gabe utzi dituzten basoetan baino.

Era berean, habitatak suntsitzeak laguntzen du hainbat espezieren ale kopurua eraldatzen eta horrek agente patogeno baten hedapena areagotu dezake. Adibidez: mendebaldeko Niloko birusa, hegazti migrariak garraiatua. Ipar Amerikan, txorien populazioak %25 baino gehiago gutxitu dira azken 50 urteetan habitaten galerak eta beste suntsipen batzuek eraginda. Baina espezie guztiek

ez dituzte horren eraginak berdin sumatzen. Habitat baten espezialista gisa definitzen diren hegaztiak, okilek edo rallidae familiakoek, askoz kalte handiagoak jasan dituzte jeneralista gisa definituek baino, adibidez txantxangorriak edo beleak. Lehenbiziko taldekoak mendebaldeko Niloko birusaren bektore oso txarrak dira, bigarrenak berriz, apartekoak. Hortik dator birusaren presentzia handia inguru horretako etxeko txorien artean, eta geroz eta probabilitate handiagoa egotea ikusteko nola eltxo batek ziztatzen duen gizaki bat, kutsatutako txori bat ziztatu ondoren.

Akainek transmititzen dituzten gaixotasunen kasuan, fenomeno bera da. Garapen urbanistikoa pixkanaka Amerikako ipar-ekialdeko basoak murtzikatzen

doanez, kanporatu egiten ditu zarigueiak bezalako animaliak, zeinak lagungarriak diren akainen populazioa kontrolpean edukitzeko, eta ugaltzen uzten die hanka zuriko saguei edo oreinei, zeinak ez diren hain eraginkorrek lan horretan. Emaita: akainek transmititutako gaixotasunak errazago zabaltzen dira. Horien artean, Lymeren gaixotasuna, AEBetan lehenbiziko aldiz 1975ean agertu zena. Azken 20 urteetan, akainek zeramatza ten zazpi agente patogeno berri identifikatu dituzte.

Gaixotasunak agertzeko arriskua ez da areagotzen bakarrik habitatak galtzen direlako, horiek ordezkatzeko aukeratzan dugunak ere badu eragina. Gizakiak, bere haragi-gosea asetzeko, Afrikako kontinentearen azalera suntsitu du, ganadua

elikatzeke eta hazteko. Ganadu horren parte bat legez kanpoko salerosketara bideratzen da, animalia bizien merkatuetan saltzen da. Horietan, inguru naturalean sekula gurutzatuko ez ziren animaliak agertzen dira batzuk besteen ondoan kaiolatuta eta mikrobioak zoriontsu ibil daitezke batzuetatik besteetara saltoka. Garapen mota horrek 2002-2003an arnas sindrome akutu larria ekarri zuen (SARS, ingelesezko sigletan) eta orain eraso egin digun koronabirus ezezagunaren jatorria izan daiteke.

Baina badira beste animalia asko gure abeltzaintza industrialeko sisteman hazten direnak ere. Ehunka milaka animalia, batzuk besteen gainean pilatuta, hiltegira noiz eramango zain: mikrobioak agente patogeno hilgarri bihurtzeko baldintza egokienak horiek dira. Adibidez, hegazti gripearen birusek, uretako hegaztiek garraiatu zituztenak, gatibatutako oiloz beteriko etxaldee eraso egiten diete, han mututzen dira eta erasokorrango bihurtzen –prozesua hain da aurreikusten erraza, laborategi batean errepikatu daitekeela–. Horren anduietako bat, H5N1a, gizakietara transmititu daiteke eta kutsatutako pertsonen erdia baino gehiago hiltzen du. 2014. urtean, Ipar Amerikan, hamarnaka milioi hegazti sakrifikatu behar izan zituzten andui bat beste batera ez zabaltzeko.

Abeltzaintzak produzitzen dituen gorrozi mendiek animalietan jatorria duten mikrobioei beste aukera batzuk ematen dizkiete populazioa kutsatzeko. Landa-lurreek ongarri gisa har dezaketena baino askoz ere hondakin gehiago dagoenez, sarritan gorrozi horiek hermetikoak ez diren putzuetan pilatzen dituzte –ametsetak urmaelak *Escherichia coli* bakterioarentzat–. Nahiz eta AEBetan gizentzeko ukuiluetan giltzapetutako animalien erdia baino gehiago gaixotasunaren eramaile izan, han oraindik kaltegabea da. Aldiz, gizakiengan, *E. Coli*-a iritsi daiteke eragitera kolitis hemorragikoa, sukarra eta giltzurrunetako gutxiegitasun akutua. Eta nahiko ohikoa denez animalietan jatorria duten gorroziak gure ur edangarrira eta elikagaietara isurtzea, urtero 90.000 estatubatuar kutsatzen dira.

Animalietan jatorria duten mikrobioen mutazioaren fenomeno bizkortu den arren, ez da deus berria. Iraultza neolitikotik gertatzen da, alegia, gizakia habitat naturalak suntsitzen hasi zenetik landa-lur gehiago edukitzeko; eta animaliak etxekotzen, zama-lanetan erabiltzeko. Trukean, animaliek pozoindutako opari batzuk egin dizkigute: behiei zor diegu el-



PANGOLIN BAT Myanmarreko animalia basatien legez kanpoko merkatu batean.

Mota horretako lekuak oso aproposak dira naturan sekula elkartuko ez ziren animaliak gurutzatzeko eta agente patogenoak zabaltzeko.

gorria eta tuberkulosia, zerriei kukutxetula eta ahateei gripea.

Prozesu horrek aurrera jarraitu zuen Europaren zabalkunde kolonialean. Kongon, kolono belgikarrek eraiki zituzten hiri eta trenbideek aukera eman zuten inguruko makakoek zeramaten lentibirus bat giza gorputzera egokitzeke. Bengalan, britainiarrek Sundarbanseko hezegune erraldoia berenganatu zuten arroz-soro gisa erabiltzeko, bertako biztanleak jarriz ur gazieta agertzen diren bakterioen mende. Intrusio kolonial horiek eragindako pandemiak ez dute gaurkotasunik galdu. Makakoen lentibirusa VIH bihurtu zen. Sundarbanseko uretako bakterioak, gaur egun kolera izenez ezaguna, zazpi pandemia eragin ditu jada, berriena Haitin.

Zorionez, ez garenez izan prozesu honen biktima pasiboak bakarrik, asko egin dezakegu mikrobio horien agerpenaren arriskua gutxitzeko. Habitat naturalak babes ditzakegu animaliek euren mikrobioak gorde ditzaten guri transmititu ordez, hori da One Health mugimenduaren helburua.

Jar dezakegu martxan zaintza zorrotz bat animalien mikrobioak gizakien agente patogeno bihurtzea errazten duten bitartekoen gainean; eta saia gaitzeko suntsitzen gure organismora egokitzeke joera dutenak, epidemiak lehertu baino lehen. Hain zuzen horretan ari dira ahalegintzen,

duela hamar urtetik, Predict programako ikertzaileak, Nazioarteko Garapenerako Estatu Batuetako Agentziak (USAID) finantzatuta. Dagoeneko identifikatu dituzte 900 birus berri baino gehiago, giza garapenak planetan utzitako arrastoarekin lotuta; eta horien artean badira orain arte ezagunak ez ziren koronabirusaren anduiak, SARSaren antzekoak.

Gaur egun, pandemia berri batek egin du mehatxu, eta ez da bakarrik COVID-19a. AEBetan, Trumpen administrazioak ahalegin handiak egin ditu industria estraktiboek erregulazioak kentzeko, baita jarduera industrialei ere, orokorrean; eta horri esker, animalien mikrobioek gizakietara errazago egin dezakete jauzi. Era berean, AEBetako Gobernuak arriskuan jarri du hurrengo mikrobia hedatu baino lehen lokalizatzeko aukera: 2019ko urrian, Predict programa bukatzea erabaki zuen. Gainera, 2020ko otsailaren hasieran, iragarri zuen %53 gutxituko zuela bere ekarpena Munduko Osasun Erakundeak [itxultzailearen oharra: martxoaren amaieran %75etik gora gutxitu du laguntza hori Trumpen administrazioak].

Larry Brilliant epidemiologoak adierazi zuen bezala, “birusaren agerpena saihestezina da, baina epidemia ez”. Edonola ere, ez dugu lortuko pandemiak geldiaraztea ez badugu natura eta animalien bizitza aldatzeko jarri genuen kemen berdina jartzen politikak aldatzeko. ●

ZAHARTZAROA ETA KORONABIRUSA

AGINTARIEK ETA JENDARTEAK BIDERATU ADINKERIA AGERIAN DA KORONABIRUSAREN KRISIAN

Zaharren artean ari da desmasia gehien egiten koronabirusa eta adinaren kargaz zaurgarriagoak izatea ez da arrazoi bakarra. Gure sisteman eta jendartean adinduek duten tokiari begira jarritz, laster agertzen dira bestelako arrazoiak. Orokorki, arras gutxi aipatzen direnak. Horiei begira jarri da ARGIA, adinduei dagokionez ere, bizitza zentroan jarri eta biharamun duin bat eraikitzeko gako batzuk ekarri nahian.

 JENOFA BERHOKOIRIGOIN  DANI BLANCO

Inegalitateak eta diskriminazioak sekulan baino gehiago agerian gelditzen ari dira koronabirusaren krisian. Ez da ispilua izaten ari, inegalitate eta diskriminazioen lupa izaten ari da egoera ezohiko hau. Besteak beste, gure jendartean zaharrek duten tokia, erabakiak hartzerakoan haien iritzia- ren kontutan hartu eza eta bistan da, zaharrei bideratzen zaien zaintza sistema kaxkarra begibistan gelditzen ari dira. Frantziako Estatuko hainbat intelektualek “Koronabirusa: Zaharrak gutxiago defenditu beharrak liratezkeela dion basakeria maltzurra oztopatzeko deia” testua argitaratu zuten *Le Monde* egunkarian, martxoaren 25ean. Bizitza eskubidearen printzipio etikoa jartzen dute lehen lerroan: “Pertsona adinduek, beretik eta askatasun osoz, eman dezala lehentasuna gazteei, hori ados, nahi badu. Baina, bizitzeko urte gutxiago dituelako estakuruan Estatuak eta jendarteak erabakitzearen perspektiba ezinjasana da”.

Koronabirusak hildakoetan zaharren egoitzetan direnen proportzioa esanguratsua da: Bizkaian demagun %62 dira zaharren egoitzetan hildakoak eta Nafarroan ere erdia baino gehiago. Euskal Herria ez da salbuespena, hainbat herri- tan ere dute errealitate bera. Adinaren kargaz edota bestelako eritasunengatik, pertsona ahulagoak direla ezin ukatua baldin bada ere, hori ez da arrazoi bakar- ra. Azken urteetan sektore horrek izan duen aldaketak ere dakar koronabirusak bertan izandako zabalpena ezin izan dutela oztopatu. Ez da bertan dabiltzan langileen nahikeria edo lan

eskasagatik, baizik eta langile eta baliabideak eskas dituztelako.

ZAHAR EGOITZEN PRIVATIZAZIOA

Egoera hori azken hamarkadetan Estatu- tuk zerbitzu publikoa murrizteko har- turiko erabakiaren emaitza da. Bizi es- perantzaren gorakadak dakar adinduen populazioren emendioa. Hori horrela, Estatu- entzako gastu bat bilakatu da biz- tanleria horren beharrei erantzutea eta sektore pribatuak diru iturri emanko- rra ikusi du, ordea. Azken urteetako ten- dentzia sinplea da: sektore publikoa ez da eskaerari erantzutera bideratzen eta pribatua dabil egoitza berrien sortzen. “Kontrol apur batekin, langile eta egoi- liarren arteko ratio hobearekin eta lan baldintza hobeekin gaur egun gertatzen ari dena ez zen gertatuko”, dio Eduardo Arriolabengoa Abasolo erretretadunak. Ongi ezagutzen du zahar egoitzetako errealitatea, urteetan egon direlako as- tean behin baino gehiagotan bera edo bikotea, azken honen amari bisitak egi- ten. “Arazoen artean inportanteena da zaintzaile gutxi dagoela. Azkenean, ja- naria eman, eguneroko garbiketa egin eta beste gauza gutxi egiteko denbora dute. Ez da zaintzaileek gaizki tratatzen dituztela, baizik eta astirik ez dutela. Agente gehiago behar da eta atentzio pertsonalagoa eman behar zaio adineko jende- ari”. Sektorea bai ala bai publikoa egon behar dela dio, kalitatezko zerbi- tzua bermatzeko bidea delako. Hala eta guztiz ere, instituzioek privatizazioaren bidetik segitzen badute, baldintza as- koz gogorragoak egon behar direla dio (ratioen, lan baldintzen, instalazioen





eta formakuntzen aldetik, besteak beste) eta noski, ikuskaritza bat, baldintzak errespetatuak direla segurtatzeko. “Pribatuei eskatzen zaizkien baldintzak oso xumeak dira, behar bezalako baldintzak balira gaur egungo egoitzak ez lirateke irekitzen ahalko”.

Zifra bat adierazgarria, AEBetakoak –zerbitzu publikoaren desegiteko bidean lehen lerroan direlako eta erritmo apalagoan bada ere, salbuespenak salbuespen, bide beretik doazelako beste estatuak ere, Munduko Merkataritza Erakundeak azkarki akuilaturik ala beharturik–. AEBetan zaharren egoitzen %94ak dira pribatuak.

Egoitzetako adinduez anitz hitz egiten baldin bada ere, asko dira haien etxeetan bakarturik diren zaharrak. Kalitatezko zerbitzu publikoa ezinbestekoa dute horiek ere. Hauetarikoa dugu Maixan Arbelbide, Baionan bakarrik bizi den 87 urteko adindua: “Oraino ene moduko autonomia daukat eta aski ongi bizi dut ene zahartzea. Egungo egoerak ez du ene bizia sobera aldatzen, nahiz gertatzen ari denak inarrosi. Arranguraturik, laguntza eskaintzera heldu zaizkit auzo ala beste egiturak, baina ene autonomiaz harro nago, eta ulertzen dute”. Agintarien lanaz galdetuz gero, ahoan bilorik gabe mintzo da: “Badute bide egiteko, zaharrak ez dira premiazkotzat hartzen, non ez den bazterketa eta isolamendua bideratzeko”. Adin handian, lapurtu nahi zaien autonomiari lotutako adinduak daude. Nola ez, etxeetako langileen bal-

dintza gogorren auzia mahai gainera dator, beste behin koronabirusarekin.

ZAHARKERIA

“Iruditzen zait argi gelditu dela adinkeria. ‘Ez da problemarik, soilik zaharrentzat eta patologiak dituztenentzat da arriskua’ entzuten zen, izugarria izan zen; politikariak konturatu dira horrela ezin zutela hitz egin eta denborarekin malgutu da, baina hasieran! ‘Zahar batzuk hil behar badira, hil daitezela’ esango nuke hori jaso dutela zaharrek”, dio Mari Luz Esteban antropologo feministak. Adinkeria edo adinean oinarrituriko diskriminazio, segregazio eta mespretxu multzoa. Jendar-teak bideratu adinduaren irudi ezkorra ere da adinkeriaren parte: izatez ahula, dependentea eta hauskorra da zaharra. Irudi hori dugu hegemonikoa, zahartzaroan dagoen aniztasuna gordetzen duena. “Zaharra arazo moduan ikusten da, zahartzaroaz hitz egiterakoan hitz egiten da zainduak izan behar diren subjektu moduan eta ez alderantziz. Alta, zaharrek zaintzen dute, politikan ari dira. Pentsionisten borroka interesgarria izan da, pensionisten beste irudi bat ukan dugulako. Baina koronabirusaren konfinamenduan dimentsio hori desagertu da eta berriro agertu da patologiarena, menpekotasunarena”, Estebanek ohartarazten duenez.

Duda gabe, adinkeriaren emaitza litza-teke Ursula von der Leyen Europako Batzordeko presidentea plazaratutakoaren gauzapeña: zaharrak abendura arte

konfinaturik atxikitzea. Konfinamendua- ren ondorio psikologikoak, emozionalak zein fisikoak sentitzen dabilta munduko hiru miliar herritar, gutxiago ala gehiago, animalia sozialak garen heinean konfinamendua eragiten digulako. “Hil ala bizikoa” omen lirateke, von der Leyenen hitzetan. Nola ikusi daiteke zaharren abendura arteko konfinamendua soluzio gisa? Nolatan da posible gaur egun zaharrak haien lo geletan bakarturik gelditzea, egoitzako beste lagunekin kontaktu oro mozturik, inolako bisitarik gabe? Nolatan agintariek ez dituzte diru laguntzak konfinamendua bizigarriagoa izateko bideratzen? Maskarak eta testak, nola ez, baina ordenagailuen instalazioa izan zitekeen bide bat demagun, senideekilako elkarrizketak ahalbidetzeko. Egin da guneka, baina ez da izan neurri politiko baten emaitza.

Zaharren deskonfinamendua atzertzeari mesfidati begiratzen dio Jérôme Pellissier Frantzia mailako Adinkeriaren Behatokiako presidente-ordeak: “Ez dutelako lan egiten dugu sozialki pentsatzen ez dela arazo bat zaharrak isolaturik gelditzea? Benetan babes-neurri bat baldin bada, arriskuari begiratu behar zaio ez eta adinari, adinak ez duelako ezer erran nahi. Hau da, zein adinez ari gara?”. Galdera honek garrantzi handia du: Noiz bilakatzen gara zahar? Munduko Osasun Erakundearen arabera adibidez, 60 urteak dira erreperio. Problematikoa da hori, batetik, adin horretan zaurgarritas-



sunak ez delako zahar izaeraren sinonimo –beraz Pellissierek dion gisara, arriskuari begiratu behar zaio eta ez adinari– eta bestetik, 60 eta 70, 80 ala 90 urteen artean alde handia delako. Orokorki, jendartean den adinkeriaren isla ikusten du koronabirusari aurre egiteko neurrietan Pellissierek: “Adinduentzako hartu politika ia guztiak dira paternalistak, ez dira haiekin gogoetatuak eta erabakiak”. Adin batera heldurik, pertsona batek subjektu izaera galduko balu bezala. Egoeraz ohartarazteko konparaketak egiten ditu Pellissierek: “Birusak gehiago kutsatzen ditu gizonak, beraz deskonfinamendua maitatzen emakumeentzat eta ekainean gizonentzat? Gainpisan direnak gehiago hunkiak izanki haien zat konfinamendua iraila arte? Ez da irudikatzen, haatik zaharrentzat bai”.

Azkenean, kexuak baretu nahian, Frantziako presidenteak atzera egin du: maitatzaren 11atik goiti, zaharrentzako konfinamendua ez da behartua izango, baizik eta “kontseilatua”.

DUINTASUNA HILTZERAKOAN

Isolamendu horrek darama koronabirusarengatik hiltzen direnak bakardadean hiltzen direla. Babes materialen eskasiak darama bakarrik hiltzen direla koronabirusak eramandakoak. Hurbilekoek egin beharreko dolu prozesuarentzat oso gogorra izaten ari da eta nola ez, hildakoarentzat are bortitzagoa deke azken orduko kezkek, minak, biziaren bilanak eta

beldurrak bakardadean iragaitea. “Bizitza duin baten amaiera heriotza duina da, eta printzipio horri eusten saiatu behar dugu, baita egoera zail hauetan ere”, dio Duintasunez Hiltzeko Eskubidea elkarteak. Estebanek ere partekatzen du printzipio hori eta eskubide hori bermatzearen alde sozialki mugimendurik ez –edo oso gutxi– egon izanak “harritzen” duela dio. Eskubidea bermatzeko bideak aztertu behar direla dio. “Giltzurruna behar duen senide bat baldin baduzu, ematen da familia-ko bat prest egon daitekeela giltzurruna emateko. Orain pentsatzen badugu pertsona bat baduzula oso gaizki, izan daiteke antzeko esperientzia bat: giltzurruna emateko prest zaren bezala, izan zaitezke prest kutsatua izateko arriskua hartzeko, beti neurriak hartuz eta onena, demagun gazteena aukeratuz. Nik ez dakit horrelakoak egin daitezkeen baina zergatik ez? Momentu batean jendea prest baldin badago, zergatik ez? Nik uste dut jende asko egonen zela arriskua hartzeko prest: nire ama, aita, izeko ala nahi dena hiltzen dago, ni kutsatua izateko prest naiz eta behintzat agur errango diot”.

IKUSPEGIA ALDATZEKO PREMIA

Zahartzarorako politiken balorapen bat egiteko balioko digu koronabirusaren krisiak? Ondorioak ateratzeko eta norabide berriak finkatzeko ardura hartuko dute agintariak? Zaintzaren esparrua iraultzeko balioko digu? Euskal Herriko mugimendu feministak zaintzari buruz osa-

tu krisi mahaiak landu proposamenak kontutan hartuko dira? “Orokorki gizarteak –ez dut erraten politikariak bakarrik– ez du nahiko baloratu zaintzaren lana. Pentsatzen dut pandemia horrek balioko duela ohartzeko zenbat lan dagoen, zenbat jende dagoen eta zer nolako egoera kaskarrean dagoen –edo gustatuko litzaidake horrela izatea–. Horri ere buelta eman beharko zaio. Politikoei horretaz ere mintzatu beharko dute eta beste bide batzuk eta beste sistema bat asmatu beharko dute” dio Arriolabengoa Abasolok. Zaintza, zerbitzu publikoa izan dadila eta sektore horretako langileentzako lan baldintzak duinak izan daitezela. Horrez gain, zahar izaera indibidualki baino batez ere kolektiboki aldarrikatzearen premia ikusten du Estebanek: “Lehenengo mugimendua da aitortzea zahartzen ari naizela, heriotza hurbil dudala eta hortik ondoko galderari begiratzea: zer egingo dut horrekin guztiarekin? Hitz egiten da, baina maila oso pribatuan. Ikusi, hitz egin, eztabaidatu: egongo dira esperientzia askotarikoak, askotarikotasuna azpimarratu behar da. Gauzei begiratzeko beste modu bat”. Dei ederra plazaratu du justuki, titular bera duen bere azken liburuan plazaraturiko “andrezahararen manifestua”-n. Mugimendu feministak horri buruzko gogoeta gehiago egin beharra ere ezinbestekotzat du. Beste ideia bat gehitzen du Pellissierek: adinkeriarekin, joera paternalistarekin eta zaharren infantilizazioarekin bukatzea. ●

SANTIAGO LÓPEZ PETIT

FILOSOFOA ETA BARTZELONAKO UNIBERTSITATEKO IRAKASLE OHIA

“Egungo epidemia baliagarri izango da autoritarismoa areagotzeko”

Ohiturak eta bizitza nola aldatu daitezkeen, edota sistema kapitalistak krisi ekonomiko eta sanitario hau bere erara erabili ahalko duen aztertzea, COVID-19 garaietako eztabaida politikoetan eta sozialetan azaleratu diren auziak dira. 2014an, *Hijos de la noche* (Bellaterra) liburuan [Gauaren semeak, euskaraz], Bartzelonako Unibertsitateko filosofia irakasle Santiago López Petitek jada bazioen bizitza erronka bilakatzen dela herritarrek anomalia gisa hautematen direnean eta errealtatea aldatu asmoz, bizitzarekin hiltzeraino borroka egiten denean. Deleuzeren eta Foucaulten tradizioaren, zein Negri, Panzieri eta Trontiren Italiako marxismo heterodoxoaren eraginaz, larrialdi sanitarioak ireki ditzakeen eszenatokiei buruz hausnartu du López Petitek.

Krisi sanitario egoera nahasmena ari da eragiten jendartean eta ekonomian. Zein testuinguru sozial, politiko eta ekonomikotan garatu daitezke birusarekiko beldur eta ikara erreakzioak?

Lasai egon nahi badugu, baieztatu genezake birusak ezagutzera eman duela gizarte honek alor ezberdinetan –osasungintzan, ikerkuntzan, hezkuntzan...– funtzionaltasun arazo larriak dituela, eta erremedioak jarri beharko genituzkeela “denok batera”. Hurbilpen horrekin konformatu ezean, jazoera desatseginagoa onartu behar dugu: kapitalak eta botereak, elkarri bultzaka, lortu dute kanporik gabekoa eta bakarra den errealtatea eraikitzea. Piztiaren sabela da, zeinaren barnean bizi garen, eta guk geuk elikatzen dugu. Egun zeharkatzen gaituen eta hedabideek biderkatzen duten larritasuna, etengabe errepikatutako jakinarazpena da, aterabiderik ez dagoela esatera datorrena. Edo hobeto esanda: soilik Estatuak salba gaitzakeela gugandik.

Europar Batasunean, estatu bakoitzak hartu ditu bere neurri propioak, bere printzipioak argi utziz eta birusaren hedapenari dagozkion ondorioekin. Gaur egungo krisiak eragin dezake kide diren Estatu arteko harremanetan?

Europar Batasuna garrantzia galdu duen baina oraindik ere kapitalaren interesak defendatzeko balio duen nazio estatuaren koalizioa da: batez ere Alemaniarentzat onuragarria den politika ekonomikoaren ezarpena, mugen kudeaketa, eta abar. Krisi honek, neoliberalismoaren estatizazio berria egitean, nola edo hala, harremanak tenkatuko ditu, baina gutxi gehiago.

Immunitariotik eta birikotik abiatuta, zirkulazio librearen gaineko kontrola ezartzen ari da. Pandemia honi aurre egiteko, justifikazio sanitarioa dauka autoritarismoak?

Egungo epidemia baliagarri izango da autoritarismoa areagotzeko. Baina hitz hori, gure gizartean aplikatuta, betidanik iruditu zait txepela eta nahasgarria: ametsezko demokrazia baten nostalgia erakusten du. Demokrazia ez da existitzen; “demokratikoa den hori” existitzen da, eta continuum bat da, faxismo posmodernotik estatu-gerra bateraino doana. Lehenak ezberdintasunak kudeatzen ditu, bigarrenak etsaia identifikatzen du.

“Gerra garai honetan”, “denok gara soldaduak” edo “etsaiari aurre egin behar diogu” bezalako esaldiak ohikoak bilakatu dira klase politikoak eta hedabide askok darabilten hiztegiak. Ze ondorio izan ditzake termino belikoen erabilerak?

Ni neuk hitz egin dut koronabirusaz berau “gerra deklarazio bezala” hartuz, eta uste dut sarrarazi gaituzten fikzioa ongi deskribatzen duela. Gure biziak salbatzeko erabateko mobilizazioa jarri dute martxan. Hauxe da paradoxa: bizitzaren izenean egiten den gerra, etxean konfinatzean datzana. Funtsen, kapitalari oso gutxi inporta zaizkio gure bizitzak. Salbatu nahi duena da bizitza, baina algoritmo bezala ulertuta, hau da, gizartearen antolatzaile modura. Esan dezakegu bizitza-kapitalak bakoitza bere tokian kokatzen duela. Bizitza merkatua da eta merkatua bizitza da. Gu algoritmoaren terminak besterik ez gara. Konfinamenduak

arrakasta baldin badu, denbora luze atzeragotik bere marka propioa bilatzen diharduen “ni” batean konfinatuta gaudelako da, soilik mobilizazio makinaren pieza garen heinean. Koronabirusaren epidemia nahasteko indar iluna da, algoritmotik ihes egiten duen kutsatutako bizia da.

Naomi Kleinek, “Shock Doktrina” lanean, kommozioa jotzen du gobernu sistema berri bat onartzeko momentu apropostzat. Espainiako Estatuan dagoeneko hasi dira herritarren mugimenduak taxutzeko proiektu pilotu bat lantzen, mugikorren datuen bidez. Birusa eragiten ari den kommozioak eragin dezake Txinakoaren antzeko erregimen polizial baten iritsiera?

Ez halabeharrez. Baditugu gure ekarpen idiosinkrasiko propioak: ateari ostikoa, Mozal Legea... Atzo, mosso batek bizilagun batekin kalean hizketan ikusi ninduenean, oihu egin zidan: “Mugi zaitetz!”. Ahaztuta neukala uste nuen hitz bat gogorarazi zidan. Botereak panpina errusiarren aztikeria bezala funtzionatzan du.

Diseinatzen ari diren teknologiak funtsezkoak izango dira sistema kapitalista mantentzeko?

Kapitalak, bere borondatearen kontra, langileen komunitatea eraiki zuen –fabrika barruan–. Hau kontrolatzeko disziplinak erabili zituen; jagoletza panoptikoa eta, bereziki, bizitza denboren bahiketa. Orain, koronabirusari esker, kapitalak aukera dauka komunitate horretatik oraindik geratzen zena desegiteko. Kontrol dispositiboa ja ez da bahiketa, telelana da. Internet eta telefono mugikorra, gailu horiek dira ahalbidetzen dutenak lana eremu politiko bilakatzea, beti izan den bezala. Baina gaur egun, botere hori aginte garbi bezala erabiltzen da, eta geroz eta zailagoa da bereiztea lan egiten, bizitzen ala obeditzen ari garen.

Osasun krisi honen ondoren, askatasun indibidualaren ideia betiko alda daiteke? Zein modutan?

Uste dut gure borroka ez dela askatasunagatik. Zer da askatasuna? Gure borroka gehiago da zapaltzen gaituen guztia-
ren aurka. Hasten den guztia itsua da.



ALVARO MINGUITO

Bidea zabaltzen ari da itzaropena, izua zeharkatzeko.

Nola eragiten die eta eragingo die COVID-19ak auzo eta klase apalei?

Epidemiak ahalbidetu egingo dio kapitalari aldaketa geopolitikoak, globalizazioaren berregokitzea eta pentsatu ere egin ezin ditugun gauza gehiago inplikatu dituen saltoa egitea. Nolanahi ere, eraldaketa horren albo-ondorioek argi eta garbi eragingo die egoera ahulenean daudenei, batez ere kapitalak baztergarritzat jotzen ditueniei.

Gure herri eta hirietan babes talde asko ari dira sortzen. Jendea adinekoei erosketak egiteko edo bizilagunaren txakurra paseatzeko antolatzen ari da. Uste duzu arau murriztaileekiko erresilientziaren edo elkartasun adibideak direla? Konfinamendua bukatzean jarraitu ahaliko dute?

Ederra da teilatura igo eta zure bizian inoiz ikusi ez duzun jendea agurtzea, edo agian laguntza behar duen auzo-

kide batekin hitz egitea. Normaltasuna beharrezkoa da eta, aldi berean, maltzurra. Berau habitatzeko modu sortzaileak asmatu beharko dira.

Gordon Lichfield analistak aurreikusten duenez, bizia ez da lehen bezalakoa izatera bueltatuko inoiz. Ohitu egin beharko gara konfinamendu sasoi luzeetara, harreman birtual gehiagotara eta politikoki beste modu batera antolatzen. Zer uste duzu?

Politikariaren estatutua koronabirusa iritsi baino lehen ere pentsatzea zaila bazen... orain? Epidemiak despolitizazio ikaragarria eragin du heriotza naturalizatu egiten duelako, konfinamendu espazioak berdintzen dituelako... Nire iritziz, erronkak berdina izaten jarraituko du: existentziaren politizazioa nola pentsatu. Gehigarri garrantzitsu batekin: makina kapitalista aldi baterako gelditu ahal izan bada, zergatik ez gara saiatzan amesgaizto honen eten-gailuak izaten, algoritmoaren terminalak ordez? ●



Erabateko hondamendiaren aurreko azken alerta dugu gaur egungo krisia”

DOMINIQUE MEDA FILOSOFO ETA SOZIOLOGOA

Parisko Dauphine unibertsitatean irakaslea da. Lanaren soziologian berezitua izanki, koronabirusaren izurriteak esfera horretan eragindakoa azaldu dio ARGIAri. Hala ere, lanaren esparrutik desbideratu eta ikuspegi integralarekin begiratu diogu gaur egungoari. "Bigarren Mundu Gerraren ondorengoa prestatu zen bezala prestatu behar dugu koronabirusaren ondorengoa. Nire irudiko, Erresistentzia Kontseilu Nazionalaren programa da jarraitu beharreko adibidea", dio.

 **JENOFA BERHOKOIRIGOIN**

Egoera ezohikoa eta arraroa dugu: 3.000 milioi pertsonen konfinamendua eragin du birus batek. Koronabirusaren biharamunean, zer aldaketa ekar diezaioke gure bizitzeko moduari?

Konfinamendu garai honetan prestatzen ari dena erabakigarria da. Edo biharamuna izango da *business as usual*, zoro gisa kontsumituko dugu konpentsatzeko eta ahazteko, eta gobernuek horri sustatuko dute; edo aldatu egingo gara, proiektu berri bat prestatua ukanen dugulako eta gai izango garelako gure portaera eta praktika berriak printzipio horiekin errimatzeke.

Bigarren bidea helburu, nola heldu gaitzke biharamun ezberdinera?

Une honetan informazio argia eta etorkizunerako proiektu serioak sortzeko lekuak beharrezkoak ditugu, krisialditik aterako garenean nahiko argi ukan dezagun elkarrekin egin beharrekoa. Hori erraterakoan Erresistentzia Kontseilu Nazionalaren (EKN) programan

pentsatzen dut –1944an osatu zuten, eta berehalako gaiez gain, gerra biharamunerako erreforma sozial eta ekonomikoak biltzen zituen–. Gisa horretako programa bat behar dugu, printzipio berriak eta hurrengo urteetarako plana zehazteko. Gure jendartearen antolaketa berria zehaztuko luke, ekologiaren gaia lehentasunetan kokatuz.

Nola osatu behar litzateke EKN gisako egitura hori?

EKNren baitan sindikatueta eta alderdi zein tendentzia politiko ezberdinetako ordezkariak genituen. Uste dut orain ere, erradikalki ezberdinak izanen diren politikak erabakitzeko koalizio oso zabal bat behar dugula, alderdiez, sindikatu guztiez baita Gobernu Kanpoko Erakundeez –behartsuenekin harremanetan direnak baita trantsizio ekologikoaren arloan dihardutenak ere– osatua. Hartu neurriak erreferendum bidez berretsiak izan behar liratezke. Noski, aldaketa politikoak nazioarte eta Europa mailan erabakiak izatea litzateke idea-

la. Baina, maleruski, ikusten dugunean zer nola ari den Europa –zer pena!–, une honetan uste dut maila nazionala dela egingarriena.

Hau izurrite bat baino gehiago da: sistemak funtzionatzen ez duenaren froga.

Jakina! Gure sistemaren ahultasun guztiak agerian dira, begi-bistakoa da mugak gauditu ditugula. Krisi ekologikoaz hitz egiterakoan zientzia-artikulu askok seinalatzen zigutena argi gelditzen ari zaigu. Kontrola guztiz galdu dugu: kapitalen zirkulazioa liberalizatu dugu eta ez dugu gehiago meneratzen. Horixe ederki azaltzen digu Rawi Abdelal ekonomialariak.

Gure jendarte indibidualistari ohartarazpen interesgarria dakar guztiak: norbanakoa eta kolektiboa ez doazela bereiz.

Bai, baina norberekeria elkartasunarekin nahastearen arriskua ere bada. "Eragingarri eta baliogarri izateko ez dut



mugitu behar" irakurketa ez da bikaina. Norberak baliagarri izan behar luke beti jendarteari zerbait eskainiz, bakoitzak bere gaitasunen arabera eraikiz jendarteak behar duen hori: maskarak, gogoe-tak, irakurketa aholkuak, kantuak...

Nahiz eta premia sozial eta sanitarioan egon, agintarien begietan ekonomiak segitzen du lehentasun izaten. Premiazkoak ez diren enpresak ez dituzte hertsia nahi.

Kriminala iruditzen zait. Gobernuaren aginduak kontraesankorrak dira, ez da serioa: Alde batetik, joan-etorriak debekatuak dira, eta erraten da hiru pertsona baino gehiagoko elkarretaratzeak debekatuta daudela, baina beste aldetik, bizirauteko funtsezkoak ez diren sektore batzuetakoei erraten zaie lanera joateko babes-neurririk ez dagoenean. Eskandalagarria da. Joan den astean Frantziako ekonomia ministroak zifra sinesgaitz baten berri eman zuen: langileen %40a tele-lanaren bidez ari dela, %45a lanto-

kian eta %15a langabezia partzialean dagoela. Herriak behar dituen lanpostuen zerrenda fin eta zehatza egin eta langile horiei ekipamenduak bideratu behar dizkiegu. Mobilizazio orokorra eskatzen duen gerrako ekonomia behar dugu, enpresen errexisizioak behar dira, beharrezkoak diren produktuak bakarrik ekoizteko: maskarak, eskularruak, testak, elikagaiak, energia, telekomunikazioa...

Ondoko herrian gertatutakoari begiratzeko ezintasuna dute agintariak. Italian gertatzen ari dena bizi dute orain Espainian, bihar Frantziak biziko duena.

Okerrena da molde txarrean egiten dituztela nazioarteko konparazioak:

ikusteko besteek nola lortu duten ospitaleetako ohe kopurua jaistea, zergak jaistea, kaleratzeak erraztea, funtzionario kopurua murriztea, eta abar. Besteak baino bihurriago direla uste dute

beti: ziur nago batzuek pentsatu dutela -erran ere egin dute-

ezin dugula geure burua

konparatu pertsonako

Barne Produktu Gor-

dina gurea baino

apalagoa duten he-

rrialdeekin. Baina

bai, Italiak erakus-

ten zigun bidea:

erabateko konfina-

mentua behar dela,

ahalik eta jende

gehien babesten duen

ekonomiara pasa behar

dela. Bestalde, non dago

Europa? Europari legokioke

gomendioen, ahaleginen eta prak-

tiken koordinatzea. Guztiz harrigarria

da Nazioarteko Diru Funtza edota Euro-

pako Batzordea behin eta berriz aritzea



Koronabirusaren biharamunean, haserrearen adierazpena izanen dugu, baita hori zapuztu nahiko duten polizia-indarren hedapena ere

gomendioak egiten –zigor mehatxuekin batera– gure zorrak, lan-kodeak zein babes sozialak murrizteko; eta orain, gure osasun publikoko jardunbide egokiak homogeneizatzeko gomendioak nahi ditugunean, ez dago inor!

Lanak gure bizitzetan daukan balioaz gogoetatzera eramanez gaitu bizi dugun garai honek?

Uste dut pertsona asko konturatuko dela lanaren funtzioez, nolatan egituratzen dituen gure bizitzak, lan egiteak arau soziala izaten jarraitzen duela, harremanak ahalbidetzen dituela. Baina, beste batzuentzat lanaren esperientzia oso mingarria izango da –babes-neurririk gabe lan egitera behartuak direnentzat eta gobernuaren manu paradoxikoaren eta erretiratzeko eskubidea erabiltzeko beldurraren artean urratuak dauden guztientzat–. Azkenik, ez da ezinezkoa langile askok distantzia hartzea eta bat-batean galdekatzea haien lanaren balioa. Gure bizitzan lanak daukan lekua-
ren berrikustea baino gehiago, uste dut krisi honek lanbideen birbalarizazioa eta birkontsiderazioa ekar dezakeela: lanbide erabilgarriak ala lanbide toxikoak. Gaur egun, eta sarritan krisi ekologikoaren iragarpenarekin, gazteak jada auzi horretan dabilta. Nire ustez, egungo egoerak areagotu egingo ditu galdera horiek.

Ondokoa erran izan duzu: "Bere lanaren zentzuaz baita eredu ekonomikoaz ere galdetzeraz eramango lituzkeen kontzientzia hartze herritarrak parean ukan dezake gaur egungo sistema. Aldaketa erradikalerako aukerak mugatzen dituzte oraingoz joko arauak".

Nahiz eta gu modu pertsonalean aldatu, sistema aldatzen ez bada ez du ezertarako balioa –% 3aren araua, zorraren beldurra, kapitalismoa, ezberdintasunak, soldata-hierarkia eroa, BPGaren fetitxismoa, ekonomia neoklasikoaren inperialismoa, liberalismoaren oinarrian den sinesmena, produktibismoa eta kontsumismoa...–. Gure gramatika, gure printzipioak, gure zenbaki adierazleak, hots, gure konbentzio guztiak aldatu behar dira. Adibidez, badu 20 urte idazten dudala –beti gauza bera– BPGaren fetitxismoa bukatu eta beste adierazle fisiko eta sozial batzuk hartu behar ditugula, alar-mak pizteko balioa lukeenak.

Horrek herritarren matxinada ekar lezake? Edo, azkenean, koronabirusaren bataila irabazten dugunean, jendea berdin ala gehiago kontsumitzen hasiko da?

Seguru asko, haserrearen eta sentipenen adierazpena izanen dugu, eta hori zapuztu nahiko duten polizia-indarren hedapena ere izango dugu. Horretarako herritarren formakuntza beharrezkoa dugu, krisialditik irteteko proiektu herritarra adierazten lagundu behar dugu, Bigarren Mundu Gerraren ondorengoa prestatu zen bezala prestatu behar dugu koronabirusaren ondorengoa. 2007an Denis Kessler MEDEF patronalaren sindikatuko presidenteordearen hitz hauek gogorarazten ditut: "Frantziako modelo soziala EKNren emaitza da. Gaulisten eta komunisten arteko konpromisoa. Erreformatzeko garaia da, eta gobernu horretan dabil. Gobernuak egindako aldaketen ondoko ondoko iragarpenek *patchwork* itxura eman dezakete. Askotarikoak, garrantzi desberdinekoak eta helburu askotarikoak diruditen arren (funtzio publikoaren estatutua, erretiroko araubide bereziak, Gizarte Segurantzaren bateratzea, paritarismoa...), gertutik begiratuta, argi dago unitate sakona dagoela. Erreforma-zerrenda? Siplea da, har ezazu 1944 eta 1952 artean ezarritzen guztia, salbuespenik gabe. Hori da kontua: 1945etik ateratzea da gaur egun behar duguna, EKNren programa metodikoki desagitea".

Uste duzu buruzagi politikoek beren akatsak onartzeko zuhurtzia ukango dutela eta norabidea aldatzen jakingo dutela?

Frantziako Errepublikako presidentek martxoaren 13an egin hitzaldian aukera hori zabaldu zuela zirudien. Baina ez zuen inolako *mea culpa*-rik egin. Nola liteke inork ez hartu izana kontuan duela urtebetetik ospitaleetako langileek plazaraturiko sorospen-deiak? Nolz Errepublikaren presidentea eta lehen ministroa ez dira inoiz haiekin bildu? Nola liteke?! Bozkatu berri den zuzenketakin finantzei buruzko legean nolaz ez da artatzaileen ordainsariaren berehalako

emendiorik? Ez dut uste gure agintariekin halako aldaketarik bideratzeko gaitasuna dutenik.

Konfinamenduaren biharamunaz gogoetatzera, batek baino gehiagok azpimarratzen du teknologiaren bidezko kontrol eta jarraipen soziala, kutsatutakoak segitzeko eta beraz birusaren hedapena mugatzeko helburuz.

Tentazio eta joera horren aurka borrokatu beharko gara indar handiz. Estatuak egiten duena kontrolatzen ariko diren kontra-botereak beharko ditugu absolutuki. Kontra-botere horiek independenteak izan beharko dira, magistratu, abokatu eta GKEz osatutakoak.

Maiz hartzen duzu hitza klima larrialdiaz eta paradigma aldatzeko beharraz ohartarazteko. Zer lotura dago koronabirusaren egoera katastrofiko horren eta klima aldaketaren egoera katastrofikoaren artean?


Krisi hau, klima-aldaketarekin lotuta egon ala ez, neurrigabeko globalizazioaren eta muga guztiak bortxatzearen logikaren krisia da.

Abisu bat da. Krisiei aurre egiteko dugun prestaketa-eza argi utzi digu.

Baina, krisi are larriagoei aurre egin beharko diegu geroa. Karbono dioxido emisio berekin ala handiagoekin jarraitzen badugu egoera are okerragoa izango dugu. Zikloiak, itsas mailaren igoerak, lehorteak, elikagai-eskasiak, erre-

fuixiatu klimatikoak, birus berri are okerragoak –ezin dugu imajinatu ere–. Ez gaude batere prestatuak! Gaur egun, gure zoritxarreen zortea dugu, epidemia honek gure hauskortasunez eta ahultasunez ohartarazteko balio digulako, gure ereduaren erabateko iraunkortasun-ezaz ohartarazteko balio digulako. Hau da erabateko hondamendiaren aurreko azken alerta. Horrek aldaketarako aukera ematen digu, gure jendartea birmoldaketa ekologikorantz bideratzeko aukera ematen digu. Hori luze eta zabal azaldu dut *La Mystique de la croissance* (Hazkunderen Mistika) liburuan. ●


Gaur egungoa abisua da; krisiei aurre egiteko dugun prestaketa-eza argi utzi digu, baina krisi are larriagoei aurre egin beharko diegu"



Alor lexikala



BEIA SALABERRI
IRAKASLEA



PAULA ESTÉVEZ

Hitzen boterea azpi-baloratua da ardura. Hala diot, gehiegi edo eskas, edo desegoki erabiltzen ditugulako maiz. Alta, hitzek hil lezakete. Ez badute zinez hiltzen, berdintsu da, anestesiatu bailezakete arrazoi oro. *Manu*-k du ontsa ulertua, orde, horregatik ditu ematen hitzaldiak Eliseotik, hitz bakoi-tza pisatuz, antzeztuz, lagunduz gorputz hizkeraz. Erretorikari emana, hitzak hautatzen ditu. Gerlaren alor lexikala eta metafora aitiatar jarraikiak. Etxeko jokoa bihurtu da zorrozki behatzea lehendakaria, bere Boris Vian airearekin, eta adieraziak oro aztertzea, detektatzea klaseko lehena erraz zitekeenaren erreferentzia historiko, kultural edo literarioak. Guk ere ulertzen dugu orain *macroniera*. Hizkuntza ahaltsua.

Bi hitzaldiren artetik, neurriak hartzen ditu egin behar denaz eta ez denaz, permititzen digunaz, gaizki eta ongi egin ditugunak baloratzen ditu, berak daki zer egin, noiz eta nola. Halaxe heltzen da bere boza etxe guzietaraino. Badira arau sortak, modalitateak eta bada zigor sortak, noski. Baina hain ontsa erraten du! Hortik goiti ez da zaila edozein gauzaren onartaraztea eta nor bera bihurtzea bere askatasun guzien zentsuratzaile.

Hasteko eta bereziki, denak Frantzia-

ra begira jarri gaitu. Etsai komun ikusezinaren beldurra aski izan da, batasuna sustatzeko. Muga hermetiko bihurtu du berriro, gai bakarrari buruzko informatiboei zintzilik gaitu, etorkizuna ezbaian, begiak hara. Ez dakigu gehiago gure hegoaldeko anaia-arrebez, gure ortzemuga aldatu du. Badugu aski pentsatzekorik, krisiaz, aurreikusten diren malur guziez, haurrei eginarazi behar dizkiegun etxeko lanez, eraginen dugun zor publiko abisalzaz. Beharrik, kaosaren erdian, lehendakariaren ahotsak markatzen du pausoa: erran digu, Estatuak ordainduko du. Dena. Probidentzia Estatua dator-kigu, sokorri, baldintzarik gabe. Beldurra sartu eta, errespetua sustatu du, eta etorkizun berria martxan eman daiteke. Eskas ditugunak (idazten dudane honetan oraindik) biharko munduaren oinarriak dira, nazioa urtuko lukeena, baina detaile bat da, etorriko dena bere orduan. Gaurdanik, denek barneratu baitugu atzoko mundua izan zela eta bihar beste bat datorrela.

Scenario sinpleenak dira emankorrenak.


Eta ez, ez dugu batere problemarik 1940rainoko bidaia egiteko. Gogo bihotzak horretan jartzen ditugu, aplikatuz, haurrak atxikiz 50m²tan, irakaslearena

jokatuz, ohiko logistika segurtatuz, telelana eginez, ateratzeko *laisser-passer*-ak arrakopiatuz. Galdeginez geroz, prest ginateke lorpen zenbaiten sakrifikatze-ko. Harrigarria da nola amore ematen diegun erabaki guziei, ordenantzei eta dekretuei, egiten direnei eta ez direnei, ekintza super-komunikatibo inutit guziei. Adibidez, eri multzoak leku batetik bestera mugitzearen bitxikeriari, *jogger*-ren aktibitateen arrazoirik gabeko babesari, Paristik Marseillarrainoko joan-jin misterioitsuei, garai arrunt batean inkoherenteak idurituko litzaizkigukeen egitate guziei.

Ontsa imajina daiteke, lehen eta bigarren mundu gerletan nola heldu ziren nazionalismoak supazter guzietara. Eta ez diet nik auzirik eginen ordukoiei, hil ala biziko kontua denean nekez baita beste gisaz gertatzen.

Baina aizue, ez naiz bakarria denboraren kapsulan egon dena. Auzoak polizia deitu du, bitan: ene haurrak gehiegi jostatzen direlako etxeko borta aitzinean eta ondokoak zakurra sobera ateratzen. Uste du ez dakidala bera dela. Uste du ez dakidala ez nauela ikusten ahal. Ene aldetik ohartua natzaio: hondarkinak, estalkiak, plastikoak, balkoian erretzen ditu astean bitan. ●

COVID-19 eta familia



MARIA COLERA INTXAUSTI
ITZULTZAILEA

COVID-19k eragindako krisiak gure gizartea egituratzen duten zimenduak goitik behera birpentsatzeko beharra mahai-gaineratu duen honetan, egungo gizarte-ereduaren zutabe guztiz nagusi bati astinalditxo bat emateko aroprobetxa genezake: familiari (nuklear eta patriarkalari), hain zuzen ere.

Gertuko senidetan eta maitasun-harremanek gure sozializazioan eta garapen afektiboan duten funtsezko eginkizuna ukatu gabe, erreproduktio soziala, bizitzaren beraren erreproduktioa, familiaren instituzioaren esku uzten jarraitzen du estatuak –emakumeen esku, alegia–, eta transferentzia horren bidez eremu pribatura eramaten du bere mendeko herritar guztien ongizatea bermatzeko ardura, horrek emakumeentzako dakartzan ondorio guztiekin: senarraren soldatarekiko mendekotasuna eta emakumeen pobretzea, emakumeen nahiz nesken aurkako familia barruko indarkeria matxista, zaharren eta umeen zaintzaren pisu gehiena beren bizkar hartu beharra, emakumeak familiaren luzapen gisa hartuak izatea eta ez gizabanako beregain gisa.

Friedrich Engelsek *Familiaren, jabetza-pribatuaren eta estatuaren jatorria*-n (1884) azaldu zuenez, jabetza pribatua senideen zirkuluaren barruan gordetzeko sortu zen familia modernoaren instituzioa. Gaur egun, berdintsu funtzionatzen jarraitzen du: herentziari esker, batetik, eta besteen

ongizateaz arduratzeko erantzukizuna familiaren esparrura mugatzen duten legeen (Kode Zibilaren nahiz konbentzio sozialen) bidez, bestetik. Horren ondorioz, ausaz jaiotzea tokatzen zaigun familiaren baliabide materialek zeharo baldintzatuko dute zer-nola-ko osasun arreta, elikadura, heziketa eta zaintza jasoko dugun gure bizitzan zehar.

Koronabirusak ekarritako salbuespen egoeran inoiz baino ageriago gelditu da familiak nola determinatzen dituen gure bizi baldintzak: agintariak internet partekatzeke eskatzen ari zaizkigu “egoera zaurgarrian dauden” haurrei (beti eufemismoak bilatzen, pobre hitza ez erabiltzeko!) eskolako lanak egiteko aukera emateko, elikadura bonoak atera dituzte eguneko otordu fuerteak eskolan egiten zituzten haurrentzako, erdi-abandonatuta bizi diren zaharrak zaintzeko sareak sortu dira herri askotan... Halakoak larrialdi egoerarako adabakiak baino ez dira, ordea.

Datorkigun krisi sozialari aurre egiteko bizitza erdigunean jarri beharra azpimarratzen ari dira asko, arrazoiz azpimarratu ere, baina kontuz ibili behar dugu erdigune hori ez dadin familiaren inguruan egituratu. Guztiz funtsezkoa da gure gizarteko kide guzti-guztien zaintza izatea edozein gizarte-eredu humanoren ardatza, zaintza hori familiaren esparru pribatutik gizarte osoaren esparru publikora eramatea, alegia. ●

Paidokrazia



ARITZ GALARRAGA

Koronabirusak ekarri dituen albo-kalte positiboetarik: isil antzean zebiltzan ahots esanguratsu batzuk itzuli dira berriz zera publikora –auskalo puntualki, estuasunak hartara behartuta, edo geratzeko; noski azken hori desio nuke, biziki–. Santi Leone adiskidea izan da berpiztuetako bat. Pablo Sastre ere animatu zaigu, agerkari honetantxe publikatu artikulua pare batekin. Hirutasun laikoa osatzeko, Ramon Andres, Elizondotik, nahiz ematen duen belarrondotik ari zaigula: *“El silencio, sobre todo el silencio. Como si hubiera renovado la propiedad de su origen, que es la de dejar las cosas, el mundo, de manera intacta”*.

Andres gaur hona ekarri badut, ordea, da batez ere berak irakatsi zidalako azken garaiotan asko erabili dudana kontzeptu bat: paidokrazia, hau da, haurren gobernu, edo, areago, haurren diktadura. Buruan dabilkit terminoa egunotan, konfinamendu garaian haurren kaleratzea errebindikatzen duten ahotsak nabarmendu baitira. Ea, ez gaizki ulertu, nik ere nahi dut haurrak kalera ateratzea, nahi dut mundu guztia kalera ateratzea, ahal den neurrian behintzat. Baina haurrak lehen lerroan jartze hori bi motibazio ikusten dizkiot: edo haurrekin denbora gutxi pasa du jendeak aurretik –eta orain lanak–, edo haurrak guztiaren zentroan kokatu ditu definitiboki. Bigarren horrek kezkatzen nau bereziki: helduon bizitzaren erdigune, motibo bakar ia, haurrak direnean –ezagutzen dut haurren egitekoekin haurrak baino gehiago emozionatzen denik–. Eta hori ere ez da asuntua. Edo bai, bakoi-tzak egin dezala bere bizitzarekin nahi duena. Hori bai, haurrak kalera atera behar direla diogunean, haurrengatik egiten dugu, edo guregatik, haurrekin gehiago ezin dugulako? Haurrak esku-bide osoko subjektu gisa aitortzearen alde nago noski. Baina haurrak izaki ia jainkotiar gisa hartzearen kontra. Eta batez ere helduon miseriak haurren atzean ezkutatzearren kontra. ●

KORONABIRUS AROAN ARGIAK SORTUTAKO FORMATO BERRIAK

MAITANE GARTZIANDIA



Ohiturak aldatu, egoera berrira moldatu

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Etxetik ateratzen uzten ez diguten garai hauetan entretenimendurako errekurtsoak berriak ari gara sortzen. Ohiturak ari gara aldatzen. ARGIAN, norbere etxeko ohiturak aldatzeaz gain, informatzeko moduak ere aldatu dira. Azken hiru astekariak, paperekoak, ez dira inprentatik pasa. Baina bitartean interneten aritu gara jo eta su, aktualitateari buruz ahalik sakonen informatzen. Sortutako artikulua pila horren artean edonorentzat bilaketa erraza izan dadin, argia.eus webgunean sartu eta albiste guztien gainean espreski barra bat prestatu da "Koronabirusaren krisia" izanarekin. Azken orduaren jarraipena egiteaz gain, ARGIAN bezala beste hainbat komunikabidetan gaiaren inguruan sortzen ari diren artikulua bilduta daude webguneko goiko barra horretan, gaiaren arabera hiru atal hauetan bilduta: "Shockean adi", "Biharamunari so" eta "Erantzun soziala".

Eta horrez guztiaz gain, proiektu berriak sortu ditugu. Informazioa modu askotara eman baitaiteke.

TXINA ZAHARREKO IPUINAK

Azken hilabeteotan Txina gora eta Txina behera gabiltza, birusaren lehen sintomak han azaldu zirela eta albistegietako titularrak bete ditu ekialdeko indarrak. "Txina koronabirusa baino askoz gehiago da", pentsatu zuen Jexux Eizagirre Portillok, eta ekin zion inguru haietan hitorian zehar sortutako ipuinak bilatu, hautatu eta euskarazko

bertsioa egiteari. Bertsioa, garbi utzi nahi du, abiadura, mugimendua, indarra jarri nahi izan baitie ipuinei eta horretarako hizkuntza bakoitzak dituen errekurtsoak erabiltzea komeni baita, itzulpen zehatza egin gabe. "Transmititu behar da originalaren esanahia, eta ondoen transmititzen da hizkuntza bakoitzaren formulekin", dio. Pako Eizagirre Irurek ahotsa jarri die kontakizunei, Maitane Gartziandiak ilustrazioak gehitu dizkie eta Eneritz Arzallusek edizioa eginda, ARGIAk aurreko astean zintzilikatu ditu, egunean bat, denon gozamenerako. "ARGIaren barrenak" blogean ikusentzun ditzakegu zazpiak.

OHASIKO KRONIKAK

Igandero umorezko irratsaio berezia argitaratzen da sarean. Konfinamendua aitzakia polita izan da lehendik zertorren ideari forma eman eta martxan jartzeko. Hau irakurtzen ari zarenerako bosgarren saioa zabaldua egongo da.

JAKOBA ERREKONDORREN ZUZENKO KONTSULTATEGIA

Baratze eta lorategietan lan gehien dugunean moztu dizkigute hegoak. Ordea galdera asko ditu oraindik jendeak eta horiei denei erantzuna eman nahian ostegunero Jakoba Errekondok Facebookeko Bizi Baratzearen orrian zuzeneko emankizuna eskaintzen du. Galderak aurrez landarekontsultategia@gmail.com helbidera idatzita eta zuzeneko saio horretan emango ditu erantzunak. Ostegunero, 18:00etan. ●

OLATUKOOPEN ZAINZA DEKALOGOA

Koronabirusaren krisian zaintzak erdigunean jartzeko helburuz, ekonomia sozial eraldatzaileko sarea den Olatukoopek dekalogo argitaratu du: norberaren zaintzatik hasi eta komunitatera zabaltzeko hainbat galdera eta erreminta erabilgarri biltzen ditu. Hasteko, gomendio orokor hauek eman ditu: gardentasuna, erritmoak errespetatzea eta malguak izatea.

Gardentasunari lotuta, informazioa guztien eskura jarri eta erabakiak denen artean eta batzar moduan hartzea aholkatu du. Erritmoei lotuta daude beste neurri hauek: erritmoak errespetatzea, guztien denborak kontuan izatea, zalan-tzetarako tarteak eskaintzea... Malgutasuna izan daiteke krisi egoera honetarako balio eragin-korrenetako bat: "Gogoratu egoerak aldakorrik izan daitezkeela, beraz etengabearen errebisatu beharko ditugula hartutako erabakiak (bai indibidualak eta baita kolektiboak ere). Izan gaitzeen malguak" aholkatu du.

NORBERA ERE ZAINDU BEHARREKOA

Maila indibidualen "nola nago?" galdera planteatzen du, hiru eremutan: gorputza, burua eta emozioak. Gorputza mugiaraztea, emozio "on" eta "txarrak" bereiztu gabe hauek adieraztea eta gustuko zerbait egiteko edo ezer ez egiteko tarteak hartzea gomendatzen du.

ETXEKOAK ZAINTZEAZ

Elkarrekin bizi direnen artean "nola gaude" galderari erantzutea proposatzen du eta baita ere ordutegiak jartzea, gaiez hitz egin eta denen artean erabakiak hartzeko asanbladak egitea eta etxeko lanak denen artean banatzea: "Zaintza lanak ikusgarri bilakatzeko momentua da".

LANKIDEEN ARTEAN

Lankide bakoitza nola dagoen jakitea garrantzitsua dela azpimarratu du: "Pertsonak ez bagaude ondo oso zaila da martxa produktibo bat jarraitzea". Horretarako, "ezinbestean bermatu behar dugu enpresa kooperatiboa osatzen duten pertsona guztiek izatea haien egoera eta emozioen berri emateko espazio segurua: epairik gabe, gertutasun eta goxotasunetik. Elkartasunetik eta konfiantzatik abiatuta, errespetatu ditzagun bakoitzaren erritmoak eta beharrak".

KOMUNITATEAN PARTE HARTU

Gertuenekoen zaintzatik hasita, ahal bada auzoetan antolatzen ari diren zaintza sarean parte hartzeko deia egin du.

Dekalogo osorik irakurgai:

www.olatukoop.eus



BERANDUEGI
KRONIKA SERIOSA EGITEKO



BIDALI ZURE HARRIKADAK: BERANDUEGI@ARGIA.EUS




Koronabirusaren krisia hasi zenetik lehenbiziko aldiz, heroien kopurua handiagoa da pertsona normalena baino

Egun osoa sofán eserita pasatzen du Abaltzisketako bizilagun batek, baina 20:00etan balkoira ateratzen da txaloak jasotzera paparra aterata. ●

SOS haurrak kanpainaren arrakasta ikusita, SOS kirolariak ekimena jarri dute abian Goierriko triatletek

Arratsaldeko lauak eta laurdenetan balkoietatik edari isotonikoak isuriko dituzte Ultra-Trail bat egiteko monoarekin dauden matxaka guztiek. ●



Guraso euskaldun asko etxealdi honi esker konturatu dira Pirritx eta Porrotxen musika beraiei gustatzen zaiela, ez beren haurrei

Bere alabak dagoeneko Rosaliaren diskoak entzuten dituela eta Marlboro erretzen duela deskubritu du Barakaldoko aita batek. ●

OASIko
Kronikak

▶

UMORE KONFINATUA
Entzun podcasta astean behin



Sasoi trumoitsu hauetan
inor ez dadila
ARGIArik gabe geratu

ALBOAN IZANGO GAITUZU



ARGIA txikitik eragiten
Komunitateak
komunitatea babesten du

ARGIA.EUS/EGINARGIAKOA

INPRENTA
Offset eta digitala

**DISEINU
GRAFIKOA**

DISEINU
EDITORIALA

antza
KOMUNIKAZIO GRAFIKOA

*Txikitik eragiten
Komunitatea zaintzen
Bidea eraikitzen
Aurrera!*



**ALDIZKARIAK
ESKU-ORRIAK
KARTELAK
LIBURUAK
EGUTEGIAK
KATALOGOAK
AGENDAK
KOADERNOAK
KARPETAK
LOGOTIPOAK**

www.**antza**.eus

Zirkuitu Ibilbidea 2, 20160
LASARTE-ORIA
Tel. 943 370 738 · info@antza.eus